

KOLDO MITXELENA KATEDRAREN III. BILTZARRA  
III CONGRESO DE LA CÁTEDRA LUIS MICHELENA  
3<sup>rd</sup> CONFERENCE OF THE LUIS MICHELENA CHAIR



Ricardo Gómez, Joaquín Gorrochategui,  
Joseba A. Lakarra & Céline Mounole  
(arg./eds.)

eman la zabalaz



Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea

ARGITALPEN  
ZERBITZUA  
SERVICIO EDITORIAL

2013

Vitoria-Gasteiz

CIP. Biblioteca Universitaria

**Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea. Cátedra Luis Michelena. Congreso (3.º 2012. Vitoria-Gasteiz)**

Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra = III Congreso de la Cátedra Luis Michelena = 3rd Conference of the Luis Michelena Chair / Ricardo Gómez ... [et al.](eds. = arg.). – Vitoria-Gasteiz: Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, 2013. – XXII, 770 p. : il., map. ; 24 cm. – (Publicaciones de la Cátedra “Luis Michelena” = “Koldo Mitxelena” Katedraren Argitalpenak ; 5)

Textos en euskara, español e inglés.

D.L.: BI-1849-2013. – ISBN: 978-84-9860-911-0

1. Euskara (Lengua) – Congresos. 2. Michelena, Luis, 1915-1987. I. Gómez, Ricardo, ed. lit.

811.361(063)

Argitalpen hau ondoko ikerketa proiektu eta taldeen barruan sartzen da /

Esta publicación se enmarca en los siguientes proyectos y grupos de investigación /

This publication has been developed in the framework of the following research projects and groups:

- “Historia de la lengua vasca y lingüística histórico-comparada” (HLMV-LHC) (Eusko Jaur-larritza, GIC. IT698-13),
- “Monumenta Linguae Vasconum (IV): textos arcaicos vascos y euskera antiguo” (Espainiako MINECO, FFI2012-37696),
- “Onomástica aquitana e ibérica: datos y evaluación lingüística” (Espainiako MINECO, FFI2012-36069-C03-01),
- “Hizkuntzalaritza Teorikoa eta Diakronikoa: Gramatika Unibertsala, Hizkuntza Indoeuropar-  
rak eta Euskara” (HiTeDi) (UPV/EHU, UFI11/14).

All rights reserved. No part of this publication may be reproduced, stored in a retrieval system, or transmitted, in any form or by any means, electronic, mechanical, photocopying, recording, or otherwise, without the prior permission of the University of the Basque Country Press.

Debekatuta dago liburu hau osorik edo zatika kopiatzea, bai eta berorri tratamendu infomatikoa ematea edota liburu ezein modutan transmitit-  
tzea, dela bide elektronikoz, mekanikoz, fotokopiaz, erregistroz edo bes-  
te edozein erataraz, baldin eta *copyrightaren* jabeek ez badute horretarako  
baimena aurretik eta idatziz eman.

© Ricardo Gómez, Joaquín Gorrochategui, Joseba A. Lakarra & Céline Mounole (arg./eds.)

© Egileak / Los autores / The authors

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua  
Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco

ISBN: 978-84-9860-911-0

Lege gordailua/Depósito legal: BI - 1.849-2013

# Euskalkien historiaz: Lapurdi eta Nafarroa Garaia\*

Iñaki Camino  
UPV/EHU

## 1. Sarbidea

Saio honek bi ardatz ditu; alderdi batetik (§§ 2, 3, 4) aurkezten digu nolako urratsak egin ohi dituen dialektologia historikoak azpialdeak eratzeko eta jakiteko sailkatze lanean ezaugarrien zein konbinazio baliatu behar den: funtsean dialektologia diakronikoa lantzeko hizkuntzalaritza historikoaren eredia baliatzen dela adierazten du. Mundu zabaleko eta eremu erromanikoko sailkapen arazo batzuk dakartza erakusgai, auzi honetan hemendik kanpo ere arazo iduriak daudela aurkezteko. Izan ere berrikuntzak baliatzean ikertzailearen lana ez baita behaztoparik gabea: hartu-emanaren bidez horizontalki geografian gaindi aldi post-dialektalean hedatu diren berrikuntzak, garai dialektalean espeziazio bidez goitik beheiti arbaso batetik transmititu direnetarik bereizi behar ditu. Helburu argia du: egungo hizkuntzetarik protohizkuntzara bidean edo egungo dialektoetarik hizkuntza batura bidean dauden azpialdeetara heldu nahia, bidenabarkoan hizkuntza-familiaren edo dialektoen iragana hobeki ezaguturik, hizkuntzaren historiaren aldiak erakutsirik.

Bigarren alderdia (§§ 5, 6) euskal dialektoen iraganari dagokio eta ahal bezainbat metodologiari heldurik urrats xume batzuk egin dira, halako esperimentu bat, baina testu zaharrik ezak eragiten duen lausotasunean murgildurik. Calvert Watkins-en arabera, hizkuntzalaritza konparatzailearen lehen hatsarrea zer alderatu jakitean datza (2001: 63): XVI-XVII. mendeetako Lapurdiko idazkietako euskarari ageri dena Nafarroa Garaiko XVII-XVIII. mende-

---

\* Saio hau honako ikerketa egitasmoen barrenean kokatzen da: a) *Lingüística teórica y diacrónica: gramática universal, lenguas indoeuropeas y lengua vasca*, UPV/EHU, UFI 11/14; b) *Núcleos innovadores de los dialectos vascos*, MEC, FFI2012-33190; c) *Monumenta linguae vasconum (IV): textos arcaicos vascos y euskera antiguo*, MEC, FFI2012-37696; d) *Historia de la lengua vasca y lingüística histórico-comparada* (HLMV-LHC), UPV/EHU, GIC. IT698-13. Joseba A. Lakarrari eskertu behar diot eztabaida interesgarri bat baino gehiago gaiaz, eta Edu Zelaietari egindako ohar zorrotzak, baina saio honetako hutsak enek dira guzti-guztiak.

tako testuetan denarekin alderatu dugu, argi izpi bat sumatu nahirik. Saioaren emaitza xumea da, erdietsi nahi den sakontasun diakronikoaren mailara iristea ez baita aise, baina nolana ere den, dakartzagun datuek eta egin dugun alderaketak hein batean erakusten digute hondarreko mendeetan Lapurdiko eta Nafarroa Garaiko mintzoak elkarrekin zerik erlazioanatu diren.

## 2. Dibergentziaren sekuentzia kronologikoak

Eredu konparatzailean hizkuntzekin egiten den bezala —arbaso komunitat jotzen dugun hizkuntza batetik espeziazioz hizkuntza ume gehiago sortzen dira—, dialektologian iraganeko talde dialektalei, dialektoei edo dena delako hizkuntza-azpitalde geografikoei begiratzen diegu, geografia-eskualdeetan aspaldiko garaian baliatzen ziren hizkuntza-ezaugarrien konbinazioez dihardugu, tasunen orduko konbinazioez, haien geografia-hedaduraz eta iraupen kronologikoaz, eskualdetik eskualdera orduan zegoen hizkuntza-distantsiaz... baina arazo nagusi batek hertsatzen gaitu: egiten dihardugun sailkapena eratzeko baliatzen ditugun lanabesak ez ditugu aski findu eta zorrotzu; aspaldi zaharrean gertatu ziren dibergentzia-sekuentziak ez ditugu kronologikoki gardentasunez bereizten; cf. Black (2004: 267).

Hizkuntzalaritza indo-europarrean geografia dialektalak eredu konparatzailea osatu du eta honen zenbait arazo argitzen lagundu, baina argi dago ezin ordezkari dezakeela:<sup>1</sup> arbasotzat jotzen den hizkuntza idealki uniforme batetik abiatzen diren hizkuntza umeen zatiketa garden eta definitua aurreikustera jo du konparatibismoak hasieran, baina ikuspegi historiko honetan arazo franko sortzen da eta hizkuntzalaritza arealak horiek argitzeko edo arintzeko saioak egin ditu, izan ere, zatiketaren ondotik, azpitalde genetiko desberdinekoak diren zenbait hizkuntza edo mintzok elkarrekin hartu-emanen jarraitu ahal izan dute eta kutsaduraz berrikuntza berak partekatzen heldu, nabarmena delarik berrikuntza horiek ondarez bi azpitaldeetarik bakar batek baizik ez dituela bildu (Pulgram 1953: 70-1). Hedadura dialektala eta hizkuntza zatiketaren ikuspegi bitarra ez dira aise uztartzen; dialektologialariak diosku desberdintasun dialektalak ez direla iragazkaitzak, baina hizkuntzalaritza historikoaren ohiko eredu berreraiketan eta aldaketen kronologia erlatiboan oinarritzen da; cf. Jean-Pierre Chambon (2007: 62, 69).

Itsaso Beltzaren ertzean, ekialdeko Anatolian mintzatzen da laz hizkuntza kartvelikoa: turkieraren egiturazko paralelo batzuk laz hizkuntzaren ardeşen dialektoreen alderdi morfosintaktikoaren barreneraino sartu dira (Haig 2001: 214); adierazi behar da, haatik, laz hizkuntza egiten duen erkidegoa

---

<sup>1</sup> Robert A. Hall-ek dioenez (1946: 282), geografia dialektalaz Leonard Bloomfieldek idatzi zuen atala egokiagoa da Mateo Bartoliren hainbat eztabaidatako mamia baino: hizkuntza-geografiaz dakarren irudia osoagoa eta orekatuagoa da eta oro har, hobeki uztartzen da hizkuntzalaritzaren ereduaren arazoekin.

hiztun gutikoa dela eta arrazoi soziolinguistikoek egiturazkoak laguntzen ahal dituztela ere. Munduan geografia hedadura zabaletan gaindi barreiatu den ezaugarri areala da perpauseko osagaien hurrenkera berezi zenbait: Baltikoan, Etiopian, Afrikan, Indian, Ertamerikan edo mendebaleko Europan (220), horregatik, osagaien hurrenkera ez da erlazio genetikoaren froga egokitzat jotzen, hizkuntzen arteko hartu-emanaren adierazletzat baizik.

Hizkuntza-ezaugarrien aldaketa historikoen emaitzari begiratzen zaio-nean, dialektologiaren alderditik mintzo batzuk anfibioak direla esaten zaigu, hango eta hemengo ezaugarriak dituztela, tasunen nahasketa bildu dutela, bi dialekto talde nagusiren artean kokaturik trantsizioan daudela, bien arteko lotura lana egiten dutela..., horregatik, ikuspegi gradualak erabiltzen dira, inoiz mintzo bat bi dialektori dagokiela adierazteraino. Hizkuntzalaritza historikoan era absolutoagoan jokatu da mintzo bat beraren sorreran talde genetikoko batetik ala bestetik —baina ez bietarik— atera den erabakitzeko; André Vaillant-ek dioen bezala, identitatea ez da kumulatiboa, mintzo bat ez da kategoria honetakoa gutiago ala gehiago, baizik eta “bada ala ez da”, era absolutoan erabakitzen da filiazioa; cf. Petit (2004: 27) eta Bowerman & Koch (2004: 1).

Goitik beheiti doan iragate genetikoa eta hein batez kronologikoaren eredu grafiko nagusia zuhaitz genealogikoa da, hizkuntzen arteko erlazioen metaforatzat August Schleicher-ek 1861-2an eraturia. Claire Bowerman & Harold Koch-ek diotenez, arbola hau ez da hizkuntza baten historian gertatu diren aldaketa guztien aurkezpen sakon, oso eta zehatza; batez ere, zatiketa eta erlazio nagusien laburpen egokia da (2004: 4). Arbola araberako ikuspegi kladistiko hau ez zen hizkuntzalaritzarako asmatu (Hoenigswald 1990: 441-2), baina aspalditik ibili da hizkuntzaren azterketaren hainbat alderditan. James A. Matisoffek dioenez zuhaitz genealogikoaren ideiak errealitatea soiltzen du; hizkuntzak nekez zatitzen edo bereizten dira gardentasunez beren kideetarik, zuhaitzak nekez argitzen ahal ditu hizkuntzek erlazioatzeko dituzten era historiko guztiak, aldaketen hedaduraren ereduak berak denboran gaindi aldakorrek izan daitezkeelako. Esate batera, itsasoan gaindi migrazioak egiten dituzten Ozeaniako uharteetako erkidegoak, mila urteren buruan lehen hiztun migratzaileen ondoko belaunaldi bat abiagune edo uharte berera itzultzen denean, beste uharte batean ala beste batzuetan luzaz bizi ondotik, bere hizkuntzaren bilakabide jatorra bihurtitu eta katramilaturik.

Ekaitz egun bateko zeruko hodeien metafora proposatu zuen George Yuri Shevelov-ek (1964) zuhaitza ordezkatzeko, cf. Aikhenvald & Dixon (2001: 5): hodeien etengabeko itxura-aldaketak, beren ugaltzea, batzuk eta besteak elkargainka kokaturik, elkarrekin nahasirik, ondotik bata bestetik bereizirik, eta une batean desegiteko duten gaitasuna; zerik irudikatu, ordea, hodei motak, nola hauek marraztu eta zerik beren higadura eta beren elkarrekintza kuantifikatu?

Nolanahi ere den, argi utzi beharra dago arbola-diagramaren oinarrian berrikuntza partekatuen kronologia erlatiboa dagoela (Koch 2004: 58). Kro-

nologia erlatiboak hizkuntza-aldaketaren lastertasuna aintzat hartzen du, kokagune geografikoaren arabera (saihetsetako hizkuntzena, esate batera), hizkuntza mailaren arabera (oinarrizko hiztegia, azpisistema gramatikalak) edo tipologiaren arabera; cf. Schmidt (1992: 43). Garapen arras lasterra izan duten hizkuntza-aldaketak ez dira sakoneko erlazio genetikoan adierazle fidagarrien artean sartuak izateko hautagairik egokienak, konparazio genetikorako ez dira baliagarri.<sup>3</sup>

Hizkuntzak nolako lastertasunean alda daitezkeen edo zenbat denboraz iraun dezaketen ia batera aldatu gabe aspaldiko ikergaia da; izan ere, Urtzi Reguerok dioen legez, aldaketak beti gertatzen dira hizkuntzan, baina kasu batzuen eta besteen artean aldaketan lastertasunean eta kopuruan alde handia dago (2012: 14). Joaquín Gorrochateguik dakarrenez, bi mende aski izan zituen aitzin-irlanderak —ondarez harturik zeukan kontsonante sistemarekin eta bere izen flexioarekin— irlandera zahar klasikoaren aldirat jo, garapena izan eta desberdintasun handia jasateko (2012: 66).

Jeffrey Heath-en arabera elebakartasun estatikoa “oreka” da eta hizkuntzen arteko hartu-eman hertsia hizkuntza-aldaketa lasterrak eta espezieen sorrera eragiten ditu, *punctuation* deritzana; cf. Watkins (2001: 61); irudi egoki eta erabilgarria da arbola genealogikoa *punctuation* egoeratarako. Robert M.W. Dixonek dioenez, aldaketa dramatiko eta lasterren garaia hizkuntzaz kanpoko arrazoiei dagokie.<sup>4</sup> Peter Bellwood arkeologoaren arabera nekazaritza sartu izanak eragin ditu hainbat *punctuation* egoera, egungo munduko hainbat hizkuntza familia handi eragin dituztenak (2001). Aldiz, oreka aldian, ezaugarriak hizkuntzen artean hedaturik “hizkuntza-eremu” izenekoak —*linguistic area*— garatzen dira, konbergentzia eredu komun baterantz; Australia denbora luzeko oreka eremua da, munduan denbora luzeenean garatu dena; cf. Koch (2004: 53). Malcolm Ross-ek (1996, 1997) *metatypy* izena darabil hizkuntzen arteko mailaz mailako konbergentzia deitzeko, mota aldaketa izendatzeko: egitura eta semantikan isomorfismorako joera da bere ezaugarria eta egitura morfologikoaren alineazio lineala; cf. Aikhenvald & Dixon (2001: 9-10) eta Haig (2001: 218).

Hizkuntza-ezaugarrien hedadurari galga ezartzen ala indarra ematen ahal dioten eragileak tipologikoak, geografikoak edo gizarte arlokoak izan daitezke: handia da hizkuntza-ezaugarriak hedatzeko aukera, gizataldeen arteko hartu-eman sareak lasaiak eta ugariak badira eta taldeetako kideen jarrera irekia baldin bada.

<sup>3</sup> Ipar Amerikako hizkuntza batzuetan —selayarese, alyawarra, gunya eta jakaltek— denbora laburrean sortu dira izenordainen afixuak nahiz inkorporazioa, baina alderdi fonologikoa eta lexikoa erlatiboki aldakaitz gelditu dira (Mithun 1992: 100-106).

<sup>4</sup> Sistema konplexuen kolapsoak hizkuntza aldaketa lasterrak eragin ditzake: arapaho eta gros ventre hizkuntza algonkiarren adibidea baliatuz, Peter Bakker-ek erakutsi du (2000) gizarte aldaketa bortitzen inguruan fonologia aldaketa lasterrak gerta daitezkeela; cf. Garrett (2006).

### 3. Azpitaldeak eratzeko zailtasunaz

Hizkuntzalaritza historikoan arazoak izan ohi dira azpitaldeak xuxen be-reizteko eta sailkatzeko. Munduko hizkuntzen taldekatze eta antolaketan, guztiz bereizi ohi da hizkuntza-ezaugarrien iragate bertikal-genetikoaren eta hartu-eman bidezko iraganbide horizontalaren artean: lehen gertakarian hizkuntza arbaso bat zatitzen da eta hizkuntza “kumeak” ateratzen dira; aldiz, bigarren gertakaria ekologikoa da, kutsadurari dagokio, *demic diffusion* delakoari eta honen bitartez, are genetikoki sail desberdinari dagozkion hizkuntzen artean ere ezugarrien hedadura edo transmisioa gerta daiteke, hizkuntza-eremu edo *linguistic area* delakora heltzeraino.<sup>5</sup> Munduan hainbat eskualdetan gertatu da ezaugarrien iragate indartsu hau: Afrikako Kalahari arroan, Anatolia zaharrean, Ipar Australiako Arnhem Land-en, Balkanetan, Hego Asian, Indian, Ipar Ameriketako ipar-mendebaleko itsasaldean, Mexikoko iparrean edo Ertamerikan. Hizkuntza-eremu hauek guztiak denboran aspaldiagokoak dira lauhun urte ingurukotzat baizik jotzen ez den beste bat baino: Amazoniako ipar-mendebaleko Vaupés ibai arrokoa. Alexandra Y. Aikhenvald-ek dioenez, bestalde, aski arrazoi bada Peru herrialdearen ipar-ekialdean eta ondoko Kolonbia, Brasil eta Venezuelako eskualdeetan hizkuntza azpi-eremu bat dagoela pentsatzeko (2001: 168); nolahi ere den, hedadura unilateralaren duen hizkuntza-eremu gardenaren irudia abstrakzioa eta sinplifikazioa da.

Baina gertakari honi izendapen bat emateak ez dio bermatzen hizkuntzalaritza arealeko ikertzaileari garbi duenik hizkuntza-eremu bat proposatzeko zenbat ezaugarri behar duen, eremu mota honen mugak nola finkatzen diren: eremuok muga arras lausoa eduki ohi dute eta hartu-eman bidezko erlazioa duten hizkuntzak sailkatzeko ereduak hutsune handiak dituzte (Heine & Kuteva 2001: 409). Badakigu, bestalde, elkarren ondoko hizkuntzek elkarri eragite honen ondorioa, eredu edo tasun zaharrenak itzalpera ekartzea izan ohi dela. Eta hizkuntzalaritzan lan egiteko moldeak ezagun du ondorioa: hizkuntzak edo dialektoak sailkatzean edo multzoetara biltzean funtsean bi era edo bi teknika ageri zaizkigu (Bowerman & Koch: 2004: 3, 57):

- a) era kladistiko edo filogenetikoan espeziazioari so egiten zaio, azpitaldeko kide guztientzat arbaso komun bakarra proposaturik, hizkun-

---

<sup>5</sup> Esate batera, Afrikan ezohikoa den VSO hurrenkera sintaktikoak definitzen du Rift ibar handiko konbergentzia-eremua; Afrika ekialdeko eremu honetan bi philumetako hizkuntzak ditugu, nilo-sahararrekoak (surma, kuliak, ekialdeko niloarra eta hegoaldeko niloarra) batetik, eta bestetik khoisan taldeko hadza hizkuntza (Heine & Kuteva 2001: 396). Bestalde, gerta liteke lexikoki arras hurbil dauden hizkuntzen artean egitura gramatikal eta morfologikoan desberdintasun bortitzak agertzea, sail bereko hizkuntza batzuek auzoko diren baina genetikoki beste sail bati dagozkion beste hizkuntza batzuekin konbergentzia bilakabideak izan dituztelako; sailkapena zailtzen du honek eta halaxe gertatzen da Amazoniako iparrean (Aikhenvald 2001: 176).

tza arbasoaren lehen zatiketaren emaitza bilatzeko ezaugarrien kronologia erlatiboan oinarrituz, berreraiketa gauzatzeko, ezaugarri berri diagnostikatzailerak zaharrenak baliaturik, ondare komuna eta azaleko antzekotasunak ongi bereizirik

ala bestela

- b) era fenetikoan egin daiteke, sailkapen edo multzokatze lanerako hizkuntzek edo dialektoek partekatzen dituzten ezaugarri berdin guztiak baliaturik, zaharrenak eta berrienak bereizi gabe, alderdi genetikoari so egin gabe, ekologian oinarrituz, kasik emaitzan, ez horrenbeste bilakabidean, hartu-emanaren bidez hedatu ezaugarri horizontalak ere alderatze lanerako baliatuz, tasun zaharrentariek bereizi gabe; ezaugarri komunetan oinarritzen da, ez ondare komunean, berdintasun edo desberdintasun erlatiboan, bi hizkuntza edo dialekto zenbategiaren diren berdin edo desberdinak jakitea bilatzen du, ez etorki edo jatorri beretik ote datozen

Kultura arloko zenbait ohiturak ezaugarrien hedadura demikoa eta hizkuntzen arteko konbergentzia dakarte; zenbait etnietan —Amazonia edo Australiako adibideak lekuko— ohikoa da hizkuntza desberdineko kideekin ezkontzea, hizkuntza bereko kideak anai-arrebak sentitzen direlako edo zernahi arrazoigatik (Aikhenvald 2001: 177); exogamiak eta zenbait eskualdetan dagoen hizkuntza-aniztasunak ezaugarrien hedadura horizontala areagotzen dute hizkuntzen ekosisteman (Dench 2001: 109).

Ernst Pulgram-ek zioen bezala (1953: 69), bilakabide genetikoa goitik beherakoa da espeziean, ez da zeharka edo horizontalki dialektotik dialektora edo hizkuntzatik hizkuntzara iragaten. Lehen kasuaren adibide gardena azpialde indo-irandarra da; kutsadura bidezko horizontala da, berriz, balto-eslavieraren errealtatea. Hizkuntzen ezaugarri eskusibo partekatuen bidez aise da indo-irandarrean proto-hizkuntza bat eraikitzea: ez da ikusten hasieran dialektoen *continuum* baten baitako bigarren mailako hedaturarik (Garrett 1999). Sail genetiko desberdin bati dagozkion hizkuntza dravidiarrek anitz kutsadura eragin diete hizkuntza indikoei (Sjoberg 1992: 509, 519, 525), baina halaz ere inork ez du hizkuntza indo-irandarren bitarteko aldia edo azpialdea zalantzan jartzen; hizkuntza indo-irandar errealean eta indo-europeararen bitarte horretan, hizkuntza indikoei eta irandarrek eratu zuketzen azpialde edo aldi aurrehistoriko hori onesten da.

XIX. mendetik jakin nahi izan da ea hizkuntza baltikoak sail eslaviarri dagozkion ala talde beregain bat osatzen duten; hizkuntza eslaviarrek hizkuntza baltikoen bilakabide bat direla ere adierazi da, baina auzia ez dago hain garbi; Balkanetan kokatu ditu lehenik hizkuntza baltikoak Wolfgang P. Schmid-ek (1992), “geruza ponto-baltikoa” deitzen duenean; dioenez, ondotik hizkuntza germanikoekin izan zuketzen hartu-eman eta azkenik, eslaviarrekin; cf. Petit (2004: 32). Daniel Petit-en arabera (34), ez



daiteke uka hizkuntza baltikoen eta eslaviarren ezaugarrien konbergentzia sail handia dutela, baina bestalde, dibergentzia balto-eslaviarren ebidentzia kualitatiboa ere ukazina da, eta ezagutza arkeologikoak ere ez du aldi balto-eslaviar komunik aldezen<sup>6</sup> (31). Uste du zuhaitz genealogikoaren eruditik beharrean, hizkuntzalaritza arealetik atera beharra dagoela argitasuna: dioenez, balto-eslaviera izatez izan baldin bada, ez da segurki hizkuntza batu gisa izan, isoglosen hedadurari iragazkor izan diren dialekto talde bezala baizik (35).

Australiako hizkuntza-egoeraz diharduela, Dixonek zail dakusa bereiztea kontinenteko ezaugarri partekatutak ea a) berrikuntza komunari, b) geografia-hedadurari ala c) bilakabide paraleloei zor ote zaizkion; goragoko mailako hizkuntzen azpitalde gardenak bereiztea edo ezagutzea ere neke dela dio (Koch 2004: 52). Alan Dench-en arabera (2001), Australiako Pilbara eskualdean hizkuntza talde batek batasun hertsia du, baina zail da jakitea ea batasun edo berdintasun hori ezaugarrien hedadurak eragin duen, ala hizkuntzek berdintasun horiek arbaso zaharrago batetik ondarez bildu dituzten.

Philum uralikoak arazo bera du, ez dago garbi uralikotzat jotzen diren hizkuntza guztiak genetikoki loturik dauden, protohizkuntza bakarra ala bi proposatu behar ote diren, eredu genetiko zatitzailea beharrean konbergentziaren eredu areala baliatzea egokiago ez ote den, yukaghir hizkuntza bera uralikoaren aspaldiko kide den ala ez den (Janhunen 2009); uralik-yukaghir multzoa izan baldin bazen, hain behar du aspaldikoa izan, egun ez baita sumatzen (61). Bakana da corpus lexiko uraliko bateratzailea eta kronologikoki urrun kokatzen du Janhunen-ek protohizkuntza (72); uste du proto-uralikoaren zatiketa indo-europarrekiko hartu-emanak baino lehen gertatu zela (74).

Eta Afrikan ere gauzak ez daude batere garbi. Khoisan izeneko Afrikako philuma, genetikoki desberdinak diren hainbat hizkuntza-familiak eratu hizkuntza-eremutat jotzen da. Aldiz, afroasiatikoak batasun genetiko duela irizten diote hizkuntzalariek eta philum nilo-sahararraren kasuan elkarren aurkako irizkiak daude hizkuntzalarien artean. Niger-Kongo philumaz denaz bezainbatean, ez dago sakoneko arrazoirik genetikoki batasuna dutela baieztatzeko, ez hizkuntzen arteko hotsen egokitzapen erregularren irizpidearen arabera, ez proto-formen berreraiketaren irizpideari dagokionez.

Hizkuntza bantuen barne sailkapena ere zail da egiten, izan ere, potentzialki ezaugarri diagnostikatzaile genetiko izan litezkeen zenbait berrikuntza fonologiko eta morfologikok hedadura areala baitute, eta honelako berrikuntza partekatutak zail dira arealki hedatu diren berrikuntzetarik bereizten (Dimmendaal 2001: 359).

<sup>6</sup> Hizkuntzen azpitaldeen berreraiketaz diharduten ikertzaileek berdintasunei garrantzia ematen badiete ere, dibergentzien gai teorikoa seriooki hartu beharra aldarrikatu du eta hizkuntza baltikoen eta eslaviarren arteko dibergentzia sail bat dakar: konparatzaileen, zenbakien eta partizipio pasiboen morfologiaren arteko aldea, aspektu oposaketa, lexema zenbaiten egitura eta apofonia zenbaiten desberdintasuna (26).

Hego Ameriketako arawak hizkuntzen iparreko sailaz diharduen ikerlan batean, geografia-hedaduraren, ondare genetikoaren eta sailkatze arazoen berri dakar Alexandra Y. Aikhenvaldek (2001): ipar Amazonian genetikoki kide ez diren hizkuntzen arteko hartu-emanak sailkatze jarduna nola iluntzen eta zailtzen duen. Eta migrazioak ere arazo nabarmena dira Amazoniako hizkuntzen azpitaldeak eratzeko: eskualdean ohikoak dira, hizkuntzen arteko hartu-emana gertatzen da eta mailegaketa hedatua eta aldaketa gramatikalki franko eragiten dute; gramatika berregituratzen da, ezaugarriak hizkuntzatik hizkuntzara hedatzen dira, ordura arteko morfemak berrinterpretatzen dira eta morfologia berria txertatzen da, usu item lexikoak gramatikalizaturik (168).

Bestalde, hizkuntza errealean kasuan litekeena da ikerketan ikuspegi genetikoa eta areala —ekologikoa, hartu-eman bidezkoa— gurutzatzea. Esate batera, inoiz pentsa dezakegu bi hizkuntza egoeraren edo bi mintzoren arteko alde edo urruntasun linguistikoa historiaurreko zatiketaren emaitzari dago kiola, baina urruntasun hori bestela ere gertatu ahal izan dela aintzat har dezakegu: esate batera, bi gune hedatzaile historikoren artean kokaturik zeuden trantsizioko dialektoak urtu izanaren ondorioz (Hoenigswald 1990: 444). Grezieraren dialektoen banaketaren auzia ere konplexua da, urrun gaude ezaugarrien kronologia edo haien geografia-hedadura zehazki ezagutzetik.<sup>7</sup>

Urruntasun kronologiko handiko kasuak aztertzeak hizkuntzalaritza historikoaren mugak agerian uzten ditu, baina horregatik ez da uste izan behar hondarreko milurteari edo kronologia hurbilagoari dagozkion korapiloak laxatzea aise denik. Beren iragan linguistikoaz euskaldunok dugun baino eza gutza hobea eta testu zahar gehiago dituzten hizkuntzen kasuan ere gertatzen

---

<sup>7</sup> Frankotan, grezieraren dialektoak sailkatzeko balia litezkeen berrikuntzak eta hautuak partzialak dira soilik eta bestalde, beti ez dago argi zer den zaharra eta zer berria; dialekto baten ageri dituen dimorfismoen kasuan, berriz, bi aldaerarik bat berrikuntza ote den erabaki behar izaten da usu, eta ez da aise; berebat, bilakabideen eta ezaugarrien kronologia erlatiboak eraiki behar izaten dira. Hainbat aldiz, isoglosa baten bigarren mailako hedadurak eragiten du zalantza (Rodríguez Adrados 1999: 74). Andrew Garrettek dioenez (2006), mizenikoa dialekto greziar bat gehiago da, besteekin berrikuntza komunak partekatzen dituena, esaterako arkadiar-zipretarrarekin. Aspalditik sumatu da arkadieraren eta zipretarren arteko batasuna, batetik bestera 1.000 km.ko distantzia badago ere; proto arkadiar-zipretarra eraiki ahal izateko bien hurbiltasunaldi bat gauza beharra da; historialariek aurkitu dituzte hori frogatu ahal izateko arrazoiak, baina ez, esaterako, grezierak eta armenierak dituzten ezaugarri partekatuen berri historikoki azaldu ahal izateko (Petit 2007: 25-6). Hizkuntzalarri zenbaitek mizenikoak eta arkadiar-zipretarrak azpitalde bat osatzen dutela proposatu izana “berdintasunek” eragin dutela uste du Garrettek, eta berdintasun horietarik batzuk, gainera, ezaugarri zahar gordeak direla jakin da gerora (Hoenigswald 1966: 11-12). Garretten arabera (2006) mizenikoa ez da proto-greziera, horregatik, mizenikoa agertu baino lehen ikertutako greziar dialektoen berrikuntza batzuen saila —mizenikoak falta duena—, ordura arte proto-grezieratzat hartzen zena, ikusi da ez dago kiola proto-grezierari, ondotik sortu diren berrikuntzat jotzen dira horiek orain eta pentsatzen da hedaduraz barreiatu direla; proto-grezieraren ondoko garaiko dialekto greziarren berrikuntza definitzaileak, mizenikoan falta direnak, genetikoki hedatu beharrean, kutsaduraz barreiatu zirela dirudi mizenikoa ezagutu ondotik.

da hizkuntzalaritza historikoaren indeterminazio maila handi hau: esate batera, inguruko hizkuntza erromanikoen ikerketan. Chambon eta Yan Greuben arabera gaskoina ez da okzitanieraren dialekto bat; diotenez, hizkuntza-ezaugarrien antzintasunari dagokionez, okzitaniera hizkuntza bera sortu aitzinekoa da gaskoinaren errealtate linguistikoa (2002).

Aragoieraren errealtatea ere zabal eztabaidatu da: bai lehen eta bai orain mintzo aragoiarrek tasun komunak nahiz zatitzaileak dituzte (García Martín 2008: 39-40). Erdi Aroan bi adar edo multzo zituzkeen aragoierak: mendialdekoa batetik, euskararen auzoa, eta bestetik erdigune eta hegoaldeko atala.<sup>8</sup> Fernando González Ollék uste du erromantze nafarra eta mendebaleko aragoiera biak sorburu berekoak direla. Dioenez, geroagoko gertakari historiko eta kulturelek ezaugarri dibergenteak eratu zituzketen bakoitzaren baitan eta beraz, Erdi Arorako bi eremu hauek bereiz ikertzea komeni dela dio (Enguita 2008: 86); González Ollék dakarrenez erromantze nafarra aragoieratik urrundu zatekeen eta Errioxakora hurbildu; aragoieraren eta gaztelaniaren arteko trantsiziotzat jotzen du nafar erromantzea. Eztabaidatu ohi da ea gaztelania eta Nafarroako erromantzea batu edo fusionatu ote ziren, gaztelaniak erromantze hau irentsirik, Nafarroako erromantzea gaztelanian gesaldurik, ala, González Ollé irakasleak dioen legez, gaztelanian gertatu hizkuntza-bilakabide batzuk erromantze nafarrean ere —norabide berean eta berezko garapenez— ez ote ziren gertatu, baina kronologia desberdinaren bidez (García Martín 2008: 36-7). Errioxarako ere *continuum*-aren eta emeki eta mailaka gertatu aldaketen irudi hori bera baliatu da; trantsizioa ikusi da, Errioxa Garaiak Gaztelarat jo dukeela eta Errioxa Apalak Aragoi eta Nafarroarat; egia esan, Errioxa herrialdea, Leon, Nafarroa, Aragoi eta Gaztela herrialdeen zati ere izana da, XII. gizalditik honat Gaztela herrialdeko etengabeko partaide izan arte (García Martín 2008: 37). Sailkapenak aurkezten hasirik, Jesus Neira-rena ere aipagarri da, urrats bat haratago egin baitu: uste duenez, erromantze nafarrak, Errioxakoak, gaztelaniak eta ekialdeko leonerak talde bat osatzen dute (36). Izan ere, Maria Teresa Echeniquek adierazten du ez dela aise erromantzeen adarreztapenak egitea. Donemiliaga Kukullako glosei lau sailkapen aitortu zaizkiela dio:

- a) erromantze nafar-aragoiarra direla
- b) erromantze nafarra direla
- c) erromantze aragoiarra direla eta
- d) gaztelera direla, eta honen barrenean errioxartzat jo direla.

<sup>8</sup> José María Enguitak dioenez, beren gisa ibilitako hiru konterriren batuketa izan zen Aragoi: “el Aragón primitivo, en la parte noroccidental, constituía una comunidad pastoril no uniforme, vinculada al sur francés y, tempranamente, a Navarra; Sobrarbe recibió una impronta franca mucho más marcada que Aragón y, además, estuvo más abierto al influjo árabe; el condado de Ribagorza, por último, dependiente de los condes de Tolosa, se mantuvo siempre muy relacionado con las tierras más orientales. Y esa diversidad política y socio-cultural, anterior a la formación del Reino, hubo de repercutir, lógicamente, en lo lingüístico” (2008: 97).

Donemiliaga Kukullako testuak darabiltzan ezaugarrien artean jatorrizko dialekto erromaniko hauen guztien tasun definitzaileak daude, baina zehatzago mintzaturik esan beharko litzateke, dialekto hauen arteko batzuetakotzat jo litezkeen tasunak daudela, iraganean dialekto hauek guztiek Pirinioetan gaindi Kataluniaraino hizkuntza-*continuum* bat eratzen zutelako (2008: 523).

Kantzelaritzako idazketa ohiturei egotzi ohi zaie inoiz testu zaharretan ageri den mintzoaren batasunaren arrazoiak; katalanaren kasuan honela argudiatu da: Valentzian, Mallorkan eta Katalunian hizkuntzak Erdi Aroan arras itxura batua du, kantzelaritzako ohituren batasunaren ondorioz edo; German Colón-ek ez du hau ukatzen, baina ez zaio guztiz asetzeko moduko arrazoiak denik iruditzen (2008: 64). Aitortzen duenez, Erdi Aroko katalana arras baturik dago eta hobeki ulertzen da orduko gaztelania, frantsesa edo portugesa baino (71); aldiz, Erdi Aroko aragoiera zatiturik eta arrakalaturik zegoen, emeki-emeki gaztelaniak haren nortasunari erasan zion (Enguita 2008: 84). Colónek dioenez, katalanak okzitanierarekin lotura izateak ez du adierazten okzitaniarrek nagusitasun karolingioaren garaian Kataluniara beren hizkuntza eraman zutenik, datuek erakusten dute penintsulako ekialdera iritsitako latinaren ondare dela katalana: Galo-Erromaniatik bereizten da, *ū* ez da *ü*-ra palatalizatu eta deklinazioan, akusatibotik abiatuak emaitza bakarra izan du katalanak, ez ditu kasu zuzena eta zeharkasua bereizten, nahiz lehen lekukotasunetan bereizketaren zantzu zenbait ageri den (65-6).

#### 4. Azpitaldeak eratzeko ereduaz

##### 4.1. Ondarea vs. hedadura

Hizkuntzalaritza historikoak ohiz baliatu sailkapena kladistikoa da, ondare komunean oinarritzen dena, hizkuntza arbaso baten zatiketean eta ondoko espeziazioan; kronologia erlatiboa baliatuz hizkuntza-aldaketak berre-raikitzen dira, baina ezaugarriak ez dira beren arteko berdintasun soilagatik hautatzen: ezaugarri komun alderatuek garai bateko berrikuntza partekatatu zaharrak izan behar dute, ez bi dialektotan gerta daitezkeen azken garaiko berdintasunak, kutsaduraz edo bakoitzean era beregainean gauzatuak. Hizkuntza-ezaugarrien iragatea genetikoa, goitik beheiti, ala kutsadura bidezkoa eta zeharrekoa den jakiteko, hizkuntzalariak ongi bereizi behar ditu ezaugarriak eta hori izan da hizkuntzalaritza historikoaren ohiko lanbidearen funtsa: eredu konparatzailea; cf. Lehmann (1992: 14). Eredu honetan, genetikoki kide diren hizkuntzei buruz erabakiak hartu ahal izateko gauza beharra da ezaugarri zaharrak eta berriak bereiztea. Ereduaren arabera bi entitate genetikoki bereiz daitezke (Miceli 2004: 62):

- a) Alderdi batetik hizkuntza-familia bereizten da, hizkuntza batzuek partekatzen dituzten berdintasunen arabera, interpretatzen baita ber-

dintasun horiek arbaso komun batetik ondarez bilduak edo gordeak direla; berdintasunok hizkuntzatik hizkuntzara egokitzapen foniko sistematikoen bidez arautzen dira.<sup>9</sup> Hizkuntzok partekatzen dituzten berdintasun horiek ez dagozkio 1) halabeharrari, 2) naturari —ikonikoak ez diren aldetik— ala 3) maileguari edo hedadurari

- b) Bestalde familia baten barreneko azpitaldea dugu, non ezaugarri berdinak partekaturikako berrikuntzatat interpretatzen baitira; berrikuntza horiek eskusiboak dira eta ez dira familiako hizkuntza multzo batek osatzen duen azpitaldean baizik ageri, gainerateko hizkuntzetan falta dira; ulertzen da ageri den hizkuntza bakoitzean berrikuntza hori ez dela bere gisa edo beregainki gertatu, eta bestalde, ez da pentsatzen maileguaren edo hedaduraren ondorioz etorri denik. Izan ere, usu gertatzen da berrikuntza bera agertzea harreman genetiko garbirik izan ez duten hizkuntza bat baino gehiagotan, eta gure baitan irudipen makurra eragin dezakete: iruditu dakiguke berrikuntzok hizkuntza partekatzaile horien guztien goitiko hizkuntza arbaso batean garatu direla, baina ez da honela, berez berrikuntzok hizkuntza bakoitzean beregainki gauzatu direlako.

Henry M. Hoenigswaldek bere garaian salatu zuen bezala, hizkuntzen artean erlazioak aiseago frogatu daitezke azpirlazioak baino (1966: 1); cf. Aikhenvald & Dixon (2001: 6), Bowerman & Koch (2004: 12, 14) eta Dench (2001: 131) ere. Toponimia ez da salbuespena: “podemos llegar así a aceptar la indoeuropeidad de ciertos nombres de lugar, pero no podemos adscribirlos a una lengua concreta o conocida” (Gorrochategui 2007-08: 1193).

Espezifikoki berrikuntza eskusiboak partekatzen dituzten mintzoen erabiltzaile ziren erkidegoak elkarrekin hartu-eman hertsiko egoeran loturik zeudekeen hizkuntza batuago hura zatitzen hasi zen garaian, multzo bakarrean elkarturik; multzo bakar hartan garatu ezaugarri berriak halako batasun bat eratu zuten. Aspaldiko hizkuntza batuagoaren eta egungo dialekto edo hizkuntza historikoen bitarteko mintzoen azpitalde haren garaia historiaurrea da eta bertako kideek ezaugarri berri batzuk eskusiboki partekatu zituzten orduan, Hans H. Hockek *period of exclusively shared prehistory* deitzen duena, non mintzo horiek beren arteko hartu-eman hertsian elkarturik baitzeuden (1991: 579). Ondotik, mintzoen azpitalde espezifiko eta —teorikoki bederen— batu hura ere zatitzen hasi zatekeen eta bertatik ondoko garaian era bertikalean dialekto edo hizkuntza berriak sortu ziren, zeinek ondare genetikoetatik zatiketaren lehen aldiko edo lehen mailako berrikuntza espezifiko

<sup>9</sup> Hona Hoenigswalden aipu klasikoa: “after all, the essence of the Comparative Method is simply to say that if (in our morph-to-morph translations) a phoneme /x/ or a distinctive feature /x/ of language A corresponds, in language B, sometimes to /y/ and sometimes to /z/, without correlated differences in the surrounding environment, the ancestor is like B, and A is the innovator; whereas, with such correlated environmental differences, the innovating language is B” (1966: 6).

haiexek partekatu baitutuzte; hau da, beharbada orain hizkuntza diren eta hasieran dialekto izan ziren entitate horiek, zatitu baino lehen guztiak azpitalde bereko partaide izan ziren garaiko berrikuntza espezifikoko eta eskusiboen sorta bat partekatu dute elkarrekin.

Gerora, denbora iragan arau, hizkuntzaren zatiketa lehen azpitalde dialektaletan gauzaturik egon edo finkatu ondotik, litekeena da geroagoko beste berrikuntza batzuk gertatu izana, post-dialektaltzat jotzen direnak, hain zuzen ere. Bigarren maila honetako berrikuntza post-dialektalok hasierako edo lehen uneko azpitaldeen irudi dialektala edo arbola genealogikoaren lehen itxura bertikala lausotu edo bestelakatu dukete. Bigarren aldiko beste ezaugarri berri batzuk —hasieran zen bezalako hizkuntza-taldeen zatiketa bertikala errespetatu gabe—, maileguz edo hedaturaz hartu-eman horizontalean talde batetik bestera iragan dirateke: bigarren garaiko edo bigarren mailako berrikuntzak dira hauek. Hizkuntzalaritza historikoak eginahala egin ohi du berrikuntza dialektalak eta post-dialektalak bereizten, lehen eta bigarren garaiko berrikuntzak bereizten.<sup>10</sup>

Jatorrizko hizkuntzaren zatiketaren ondotik, hasierako aldaketak baino geroagokoak diren beste berrikuntza batzuk dialektoen artetik edo isoglossen artetik iragazten baldin badira, Pulgram-ek *inconsistent partial similarities* deitzen dituenak izanen ditugu (1953: 70). Halaz, eremuen bilakabideen *sketch* sorta jarrai bat beharko genuke aldaketaren eta norabidearen berri jakiteko (71), oraingo bereko isoglosak ez baitira guztiak elkarrengana biltzen, ez dute sorta gotor eta baturik eratzten, antolatu gabe, kanpai itxuran eta elkarrengandik aldendurik daude; isoglossen itxura honek dialektotik dialektora ezaugarrien maileguak gertatu direla eta gertatzen ari direla adierazten du, baina ez dezakegu jakin zein norabidetan gertatu den, iragatearen norabide eta korronea ezabatu zaigu, ez dugu hizkuntzazko lekukotasun zaharrik edo bestelako datu historiko lagungaririk (Hall 1946: 279); cf. Lehmann ere (1992: 14).

Eta hain zuzen ere hauxe da euskararen egoera, guk dakigulako migrazioerik gabe eta harreman-etenik jasan gabe, elkarren ondoan izan dira euskal erkidegoak menderen mende; ondorioz, berrikuntza guneak aldatuz gero, dialektoen eraginak eta eremuak ere aldatuz joan dirateke. Euskara Batu Zaharra zatitzean gertatu lehen euskalki banaketa hura lausotu eta ilundu dukete ondoko aldietako ezaugarri berrien hedatze & bateratze etengabeek, zeinek ezaugarrien transmisio geografikoan historikoki norabide aldaketak ja-

<sup>10</sup> Eta berrikuntza pre-dialektalak ere bereizten dira; hizkuntza batua zen garaikoak, hura zatitzen hasi aitzinekoak, proto-hizkuntza osatzen zuten dialektoen *continuum*-eko partaide batzuetara bai eta beste batzuetara hedatu ez ziren berrikuntzak, ondarek hizkuntza horren ondoko aldietako mintzo batzuetara iragan zirenak. Baina nola bereizten dira pre-dialektal hauek, hizkuntza zatitzen ari den bitarteko azpitalde dialektaleko berrikuntzetarik, aurrehistoria eskusiboki partekatu hori bitarteko hizkuntza-multzoko edo azpitaldeko berrikuntza dialektaletarik? (Hock 1991: 579).

san baitituzte. Hock-ek dioen legez (1991: 447): “extensive and prolonged contact, as it is frequently found in areas long settled by speakers of the same language, may cause considerable difficulties for the historical linguist” eta honek guztiak bihurtzen du “next to impossible to classify dialects in terms of their genetic relationship”.

Egoera nahasgarri honek batetortze askotarikoak eratu ohi ditu dialektoen artean, isoglosen konbinazio askotarikoak; Hoenigswaldek dioen bezala, ezaugarri batean A, B, C eta D dialektok elkarrekin doaz E eta F-ren aurka, baina beste ezaugarri batean A eta B dialektok C eta D-ren aurka doaz, eta dialekto erlazioen arteko batetortzeak ez dira era baitezpada elkar-baztertzailuetan gertatzen, hizkuntza-ezaugarrien geografia-eremuak elkarrekin gurutzaturik baizik, eta beraz, hizkuntzaren bilakabide geografikoa ezin formula daiteke bifurkazio edo multifurkazio jarraien arabera (1990: 443). Maila bereko kide, ume edo dialekto ziratekeen erkidegoen artean bereizketa erlatiboki garden edo bat-batekorik ez baldin badago, osagai mailegatuen vs. ondarez jasoen artean egon beharko lukeen aldea lausotzen da, aldaketa bat gertatu den azalera geografikoa beste aldaketa bat gertatu den beste azalera geografiko batekin gurutzaturik. Hoenigswaldek lehenago ere idatzi duen bezala, A eta B hizkuntzek C hizkuntzaren aurka zinezko berrikuntza bat partekatzen baldin badute, hartara, deusek ez ditzake B eta C hizkuntzak A-ren aurka lotu; ordea, bigarren errealitate hori ere usu gertatzen da hizkuntzetan eta zuhaitz genealogikoak zenbait hizkuntza-erlazio irudikatzen tresna gisa izan dezakeen ezgaitasuna erakusten du (1966: 8).

Antoine Meilletek zioenez, hizkuntzen historia ez da hurrenkera kronologikoan antolatutako testuen jarraipen baten bitartez egiten, izan ere, kasurik hoberenean, hizkuntza idatzia arras urrun dago hizkuntza mintzatu bateko aldaketan jarraitasuna exaktuki biltzetik; cf. Chambon (2007: 57). Eta azpitaldeak antolatzen sorburuari begiratzen baldin bazaio eta ez testu historikoek islatzen duten banaketari, argi dago lana goitik beheiti egin behar dela. Mintzoez ezaugarri edo haustura berri eta definitzaileak aurkitu beharko dira eta ondoko garaietan horiei erantsi zaizkien ezaugarri berri post-dialektaletarik bereizi beharko dira, baina honetarako hizkuntza-ezaugarrien arteko kronologia erlatiboak aurkitzea gauza beharra da. Kochek aurkezten digunez eredu hau *top-down* da eta *sub-grouping* dakar, ez da *bottom-up super-grouping* (2004: 58); ereduaren oinarrian alde aurretik eratu den berreraiketa dago, goragoko maila inklusiboagoan kokaturik dagoen azpitalde bateko zenbait hizkuntza-ezaugarriren berreraiketa; ondotik, zuhaitzean beheitiago kokaturik dauden hizkuntza edo mintzoetarik bakoitzak jasan dituen balizko berrikuntzak zerrendatzen dira. Jarraian hizkuntza-talde batek partekatzen dituen berrikuntza sail bat identifikatzen da, zeinak kronologikoki hizkuntza horiek geroago jasan dituzten eta bereizarazi dituzten beste berrikuntza berankorrago batzuk baino lehen koka baitaitezke; goiko berrikuntza partekatu horiek berrikuntza komunak dira, batasun garaikoak, hizkuntza horiek ondoko aldaketa ez partekatu batzuen bitartez elkarrengandik bereizi aitzinekoak, on-



doko berrikuntzek hizkuntzok bereizarazi baitituzte. Ariketa honen ondorioz atera zaigun zuhaitz-diagramaren oinarrian berrikuntza partekatuen kronologia erlatiboa dago (58).

#### 4.2. Berrikuntzak / isoglosak

Hizkuntzen arteko azpitaldeak eratzeko berrikuntza partekatuei ematen zaie garrantzi gehien, baina gerta liteke sakontasun diakronikoaren gaiari arkaismoen bidez heltzea ere, hauek adierazgarri badira, ezaugarri zahar horien partekatzaileen artean halako hartu-eman sakoneko erkidego edo batasuna izan dela salatzen badigute; cf. Watkins (1966) eta Markey (1976). Arbola genealogikoan zatitzen eta autonomia biltzen lehena den hizkuntzen azpitaldea arkaismo gehien partekatzen duen hura izan daiteke, familiako gainerateko hizkuntzek ezaugarri horietan berrikuntzak partekatu badituzte, edo ezaugarri zaharren arrasto batzuk baizik gorde ez badituzte. Baldintza, noski, arkaismo horiek minoritarioak izatea da: “ce qui est significativ d’une appartenance dialectale, se sont uniquement les archaïsmes minoritaires” (Petit 2007: 28). Václav Blažek-ek hizkuntza indo-europarren zuhaitz genealogikoaren auziari arkaismoen bidez erantzun dio: hizkuntza tokarioaren A eta B aldakiak nahiz Anatolia zaharreko hizkuntzak ezagaturik, indo-europarren arbola genealogikoaren banaketa alderdi kronologikoan kokatzekotan, *anatoliar* / *ez anatoliar* dikotomia da denboran lehenbizikoa (82). Kronologian hitita vs. gainerateko hizkuntza indo-europarrak ezartzea ohikoa da, Edgar H. Sturtevantek 1942an formulatu zuen hau hipotesi indo-hititaren bidez. Ikuspegi honen arabera hititak ezaugarri zaharrak gorde zituen, gainerateko hizkuntza indo-europarrek galdu zituztenak (kontsonante laringalak; cf. Sturtevant 1962: 108-9)<sup>11</sup> edo gaineratekoek arrasto zenbait baizik ez gorderik (*r* / *n* deklinabidea);<sup>12</sup> halaber, hititak ez zituen beste hizkuntza indo-europarrek ondotik berriztatu ezaugarriak partekatu.

Edgar C. Polomé-k anatolieraren izaera arkaikoa alderdi fonikoko eta sintaxiko ezaugarrietan oinarritu du, zeinak ez baitira ondoko hizkuntza ez indo-europarrekiko hartu-emanetik sorturikako kutsu berria (1985: 681); badi-rudi, bestalde, indo-aryanak (indikoak) Ekialde Ertainera anatoliarrak baino milurte bat geroago heldu zirela (682). Polomé-ren arabera greziera eta indi-

<sup>11</sup> Adieraz bedi hititek eta luvitek hartu-emaña izan zutela kultura-hizkuntza semitiko baztuekin eta hizkuntzok kontsonante laringalen sail aberatsa zutela; bi hizkuntza anatoliarek kontsonante horiek gordetzearen alde eragin zukeen honek (Watkins 2001: 53).

<sup>12</sup> “That this type of declension was commoner in Primitive Indo-European than in any of the historical languages has long been recognized; but until the discovery of Hittite no one had found any evidence that a productive suffix with stem in *-r/n-* ever existed. In Hittite, however, the *r/n* declension characterizes several suffixes that are as productive as any in the language. There is no doubt that these suffixes are inherited, since traces of them survive in Indo-European” (Sturtevant 1962: 106-7).



koa hizkuntza-erkidego indo-erroparrearantz zatiketa garaiaren bitarteko bilakabide berrienak dira (682). Indo-europeraren zatiketaren auzian Francisco Villar-ek aholkatu du, sanskritismotik anatolismora jotze honetan gauzak kontu handiz egiteko eta gehiegikeriak saihesteko (1996: 304).

Karl Brugmann-ek 1884an adierazi legez, azpitaldeak finkatzeko tresna nagusia ez dira ezaugarri partekatuak, berrikuntza partekatuak baizik (Hoenigswald 1990: 443), nahiz hatsarre hau August Leskien-i aitortzen zaion: 1876an eratu zuen eta “Leskien-en hatsarrea” deritza; ikus Petit (2007: 22-8) hatsarrearen mugez. Azpitalde bat eratzeko behar diren ezaugarri berrien kopurua zenbatekoa behar duen ez ohi da zehaztu, ezta tasunek zein eratakoak behar duten izan ere: Brugmann-en arabera halabeharrentzen faktorea saihestu ahal izateko bezain ugaria izan behar du (Dyen 1978: 40).

Hizkuntzalaritza konparatibo edo historikoak isoglosak finkatzeko eta hizkuntzen azpitaldeak eratzeko ezaugarri berriak lehenesten ditu, baina zein irizpide edo baldintza darabiltza horretarako? Ludo Melis-ek dioskunez, dialektologia erromanikoan antzinako banaketa dialektalekin zerikusia duten gertakariak estatus pribilegiatua eduki dute (1989: 71). Jokaera klasikoa da azpitaldeak eraikitzeke protohizkuntzaren zatiketako lehen berrikuntza haiek baliatzea, berrikuntza zaharrenak. Esate batera, protogrezieratik K.a. v. mendea arte emeki-emeki gertatu zen zatiketa dialektalaren bilakabidearen berri, zaharrak diren berrikuntzek ematen digute, horiek baizik ez. Dialekto greziarren berrikuntzen antzinatasuna frogatu beharraz dihardute, esate batera, Warren C. Cowgill-ek (1966: 85) eta Rodríguez Adrados-ek (1998: 27).

Hona hizkuntzalaritza historikoan azpitaldeak eraikitzean berrikuntzak hautatzeko aintzat hartu ohi diren irizpide sorta bat:

- berrikuntza eskusibo zaharrak
- berrikuntza positiboak izan behar dute, esate batera, forma edo kategoria baten sorrera, ez du ezaugarri edo kategoria baten galera izan behar (berrikuntza negatiboa da hori), Leskien egokitzapen positiboez mintzatu zen hasieratik (1876); gerora forma edo kategoria bat beste batera aldatzea ere lanerako aintzat hartu da hizkuntzalaritza historikoan (Petit 2007: 22)
- elkarrekin gurutzatzen ez diren berrikuntzak, sail edo sorta bat osatzen dutenak, mintzoen talde bereizgarri bat osatzekotan geografia-eremu bertsuan agertu behar dutenak (Koch 2004: 25); eremuz hurbilak direnak, zeren eta hedaduraren arazoia eskualdeen arteko ondokotasunean eta erkidegoen arteko hartu-eman zuzenean oinarriturik baitago, ez da halabeharrentzen ondorioz gertatu<sup>13</sup>

<sup>13</sup> “The appeal to the hypothetical contiguity of the languages exhibiting a uniquely distributed common innovation serves to reduce the number of coincident innovations” (Dyen 1978: 42). “If innovations tend to cluster geographically in contiguous areas, they are less likely to be independent and more likely to be diffused” (Babel, Garrett, Houser & Toosarvandani 2013).

- gutziz arruntak eta ohikoak ez diren berrikuntzak, itxaron ez ditzakegunak, aldi berean han eta hemen agertuko ez zaizkigunak
- sailkapen genetikorako ez du balio hizkuntzek partekatzen duten berrikuntza kanpotik maileguz hartua bada, maileguek ez dute azpitalde genetikoak eratzeko balio (Bowern & Koch 2004: 10)
- dialektotik dialektora geroago mailegatu ez direnak
- ez dute bilakabide paraleloak edo berrikuntza beregainak izan behar.

Lanean baliatu beharreko berrikuntzez denaz bezainbatean, Aikhenvald-ek honako izangaiak hobesten ditu: aldaketa fonologikoen sailak, berrantolatze analogikoen ezohiko ereduak, eraikuntza morfologiko baten bilakabide partekatua eta bereziki berrikuntza lexiko eta morfologiko partekatua (2001: 168).

Eta zenbat berrikuntza behar dira azpitalde bat eratzeko? Bowern & Kochek diotenez (2004: 3-4), teorikoki eredu honetan aldaketa bakarra aski da mintzo-erkidegoak zatitzeko, hizkuntza-familia baten arbolean etena finkatzeko, baina badakigu ezaugarri desberdin bakar batek ez dituela bi dialekto edo bi hizkuntza aski desberdin bilakatzen, ez horiek bi hizkuntza edo dialektotzat hartzeko bezain desberdin bederen. Kontua da zatiketaren garaian hura lehena izan zela eta, gizataldeen hartu-emanen maiztasunaren edo etenaren arabera, lehen berrikuntza harengana elkartu direla gero ondoko beste hainbat berrikuntza ere, zein bere erkidego edo azpitaldean, baina lehen aldaketa hura da azpitaldeen arteko zatiketa eragin zuena.

Hizkuntzalaritza historikoan klasiko bilakatu da ezaugarri foniko batean gertatu berrikuntza zahar bat giltza izatea azpitaldeak eraikitzeko, baina ikerketak erakutsi du honelako sailkapen soilek ere arazo handiak eragiten dituztela: zatiketa foniko nagusi bati esleitu ohi zaion sakontasun kronologikoa eta irudikapen geografikoa ez dira beti ekuazio garbian gauzatzen. Hizkuntza indo-europarren eta hizkuntza zelten zatiketa klasikoak baliaturik hona bi adibide paradigmatico: XIX. mendetik honat, kontsonante guturalen emaitzaren arabera indo-europeraren barrenean ekialdeko hizkuntza berritzaileak eta mendebaleko gordetzailerik bereizi dira, XX. mende hasierako aurkikuntzek ekialdearen ekialdean hizkuntza gordetzailerik bazela erakutsi duten arte.<sup>14</sup> Halaz guztiz ere, zenbait hizkuntzalarik hizkuntza indo-europarrak ekialde-

<sup>14</sup> Eremu osoaren erdialdean dauden hizkuntza indo-irandarrek, eslaviarrek, baltikoez eta traziar-frigiarrak herriarrek belar ahoskabea txistukari bihurtu baitute, berritzaile hauek “*satəm* hizkuntzak” deitu ohi dira. Egoera zaharra gorde dutenak, berriz, “centum hizkuntzak” dira, saihetsetakoak: zeltak, germaniarrak, italoak, greziera eta venetia batetik, eta tokarioa ekialdeko alderdian; hitita ere gordetzailerik da. Tokarioa eta hitita aurkitu izanaren ondorioz banaketa-sistema honek garrantzia galdu du, baina funtsean berrikuntza batean oinarritzen den sailkapena da. Hizkuntza zenbaiten arazoak eragin ditu sail batera edo bestera sartze horretan: idatzi da albaniera tipologikoki ez dela ez *satəm* ezta *centum* ere; penintsula baltikoko ilirioa, berriz, hizkuntzalarik batzuentzat *centum* izan da eta beste hainbatentzat *centumen* osagaiak dituen *satəm* hizkuntza izan da (Hamp 1966: 107-108).

koen eta mendebalekoen artean bereizten jarraitu dute, zatiketa hau *centum* / *satəm* isoglosarekin xuxen egokitzen ez bada ere; cf. Petit ere, erakutsi baitu *centum* / *satəm* bereizketa beste isoglosa lerro batzuekiko kontraesanean dagoela (2007: 40). Beste ikertzaile batzuen ustez ez dago honelako aitzineko zatiketarik: ipar / hego zatiketa proposatu zuen J. van Schrijnen-ek XX. mendeko hirugarren hamarkadan eta Rodríguez Adrados-ek ere berriki ildo horri eutsi dio (Villar 1996: 528).

Hizkuntza zelten inguruko ikerketen hastapenatarik, zeltiko komunaren etena “goideliko” vs. “britoniko” zatiketaren arabera aurkeztu da, berrikuntza baten arabera: talde britonikoan (galesean, britainieran eta kornubieran) eta galo kontinentalean (baina hizkuntza honetan badira salbuespen batzuk)  $k^w$  kontsonante ezpain-belar ahoskabeak  $p$  eman duenez, hizkuntza berritzailleen taldea “ $p$  zelta taldea” izenez ezagutu da. Egoera zaharrari atxikiago diren hizkuntza goidelikoek, berriz, Man uharteko, Irlandako eta Eskoziako gaelikoak, “ $q$  zelta taldea” izena hartu dute. Berrikuntza baten ondorio den isoglosa honi ere garrantzia eman zaio luzaz, baina zelta kontinentalaz berri gehiago agertu ondoan, ezaugarri honen botere sailkatzailea bakandu da: galoa bezala kontinentalak den zeltiberikoak  $*k^w$ -ri eutsi zion. Eremu zeltaren banaketa dialektal goiztiarra oinarritzeko isoglosa hau luzaz baliatu da, baina etenaren antzinatasunaren aurkako argudioak daude (Gorrochategui 1991: 12-3). Egun berrikuntza honetaz landa ezaugarri gehiago aintzat hartzen dira: kasuen berrikuntza edo sudurkari ozenen emaitza, esaterako, zeinak ez baitira beti xuxen ezkontzen  $*k^w > p$  bilakabidearen emaitza sailkatzailearekin. Ezagun du, datuak sakonago eta hobeki ezagutu izanetik, hizkuntza zelten sailkapena konplexuago bilakatu dela.

Berrikuntza partekatuez aritzean alderdi fonikoa garrantzizkoa dela adierazteak ez dakar aldaketa morfemiko-semantikoek fonikoek baino garrantzi gutiago dutenik, baina egia da tasun morfemiko-semantikoak fonikoak baino zailago direla “zaharrago” / “berriago” dikotomiara ekartzan; Hoenigswald-ek dioenez:

the reconstruction of protolanguages and subancestors by such instruments as the comparative method is primarily concerned with the distribution of phonological contrast and homonymy among the morphs. On morphemic matters —inflection, derivation, syntax, semantics— algorithms of a comparable kind are not really available (1990: 445).

Nabarmena da filiazio lanetan harreman genetikoa bermatzerakoan halabeharren faktorea saihesteko, berdintasun edo egokitzapen fonikoak baino, adierazle sendoagoak direla morfologian aurki daitezkeen irregulartasun partekatuen, flexio-hizkuntzetan bereziki; eman dezagun, *cognate verbs* egoikiago dira *cognate nouns* baino (Koch 2004: 38), gramatika den alderdi sistematiko horretako kide baitira aditzak. Wolfgang Hock-ek uste du (2000) berrikuntza morfologiko komunak direla Leskien hatsarreari hobekien egokitzen zaizkionak; cf. Petit (2004: 33). Ordea, morfologian usu zail iza-

ten da ezaugarrien artean zer den zaharrago eta zer berriago bereiztea. Euskara bezalako hizkuntza eranskariaren kasuan, Joseba A. Lakarraren arabera gehienbat banaketa geografikoa da morfologian zaharra dena eta berria dena bereizteko irizpide nagusia (2011: 195). Bestalde, aintzat hartu behar da denbora iragan arau morfologian aldaketa tipologiko sakonak gerta daitezkeela; cf. Campbell (2011: 448):

In older language families, the morphology has changed much, resulting in different typological profiles for related languages, as seen in branches of Algie, Indo-European, Niger-Congo, Uralic, and Uto-Aztecan.

Konparatibismoan sintaxia ez ohi da erabili azterketetan, egokitzapen sintaktikoak ez dira analisisan baliatzen, hizkuntzen arteko harreman bidezko eraginen menpekoea da sintaxia (Petit 2004: 21). Aldaketa sintaktikoak perpaus nagusietan gertatu ohi dira lehenik, menpekoek gehiago eusten diote egoera zaharrari (Lehmann 1990: 372).

Beste irizpide nagusi bat lexikoa ikerketatik kanpo uztea da: berreraiketarako ez da baliatzen, morfologikoki berrantola daitekeelako batetik, eta bestetik denboran zehar item lexiko edo hitzak gal daitezkeelako (Winter 1990: 18). Mailegaketak genetikoki kide ez diren baina elkarren ondoan dauden bi hizkuntzaren arteko oreka edo konbergentzia lexikoa eragin dezake, iraganeko egoera genetikoa urruntasuna ekarriz, horregatik, kidetasunaren aldeko argudioak gramatikako azpisistemetan eta berrikuntza foniko partekatuetan bilatzea aholkatu ohi du konparatibismoak, aditzak nekezago mailegatzen direlako hitzak baino; cf. Babel, Garrett, Houser & Toosarvandani (2013). Hizkuntzetan oinarri-oinarrizko edo gune-guneko lexikoan ahaidetasun hitzak, zenbakiak, gorputz-atalak, oinarritzko jarduerak adierazten dituzten aditzak... sartzen dira eta hizkuntzalaritza historikoan esan ohi da mailegatzen zailenak hauexek direla, mailegatze *ratio* apalenekoak direla, baina hizkuntzalariek erakutsi dutenez, munduan badira eskualde batzuk oinarri-oinarrizko lexikoa ere hizkuntzatik hizkuntzara mailegatzen dutenak: Australia, Amazonia edo Ginea Berria.

## 5. Euskalkien iragana aztergai

Euskal dialektuez dihardugunean, batak eta besteak duten trinkotasunagatik saihetsetako bi gune nagusiak bereizten ditugu, baina multzo dialektal zahartzat hartze hori beren ezaugarri berrien antzinatasunaren arabera aztertu beharko litzateke. Ekialdeko Euskal Herrian ezaugarri berezien aldetik Zuberoa-Erronkariko euskara da nortasun gehien duena. Darabiltzaten berrikuntzak garrantzizkoak dira sailkapen jardunerako, baina beren arkaisismo bateratuen kopuru hazian oinarriturik, proposatu da aspaldi zaharrean Zuberoa eta Erronkari ibarrak izan zirela euskara orokorretik edo Euskara Batu Zaharretik bereizi ziren lehen erkidegoa; ondoko ikerketek erakutsiko dute

hipotesi honen indarra zenbaterainokoa den.<sup>15</sup> Bestetik mendebaleko mintzoa dugu: Bizkaian eta Araban ageri da eta ezaugarri batzuetan bederen, Gipuzkoako eta Nafarroako mendebalean ere gardentasunez erakusten du bere izaera. Arabako euskararen kokagunean kronologiak garrantzia du. XIX. mende bukaeran eta XX. mendean Bizkaiko mintzoarekin batean ageri da Arabakoa, baina adostasuna dago Gasteizek iraganean hizkuntzaren aldetik garrantzia izan zuela aitortzean; etorkizuneko ikerketek hiri honen eraginarene daten auzia hobeki zehaztu beharko dute. Bi multzo nagusien artean erdiguneko euskara zaharra dei genezakeena dugu eta ezaugarrien aldetik ez dago garbi nola deskribatu eta definitu beharko litzatekeen; eman dezagun, Gipuzkoako Beterriko Erdi Aroko euskara ezagutzea ere interes beteko gaia da, baina ez dago bertako orduko testurik: garai zaharreko Gipuzkoako euskararen auzia irekirik eta aztergai dugu. Non eta ez ditugun ezagutzen ditugun erdiguneko hizkuntza-ezaugarrien zertzelada historikoak interpretatzen, ez dugu erdietsiko erdiguneko Euskal Herriko Erdi Aroko euskalkiez zertxobait ezagutzea.

Lapurdiko eta Nafarroa Behereko mintzoen arteko eten dialektal gardetik ez da sumatu XXI. mende hasierako dialektologiako ikerketetan eta ez da ezaugarri sortarik aurkitu mendebaleko eta ekialdeko bi euskara baxenabartar justifika litzakeenik, nahiz Bonaparte printzeak bi horiek proposatzen zituen. Hondarreko urteetako dialektologiako ikerketek nafar-lapurtera euskalki bartzat aurkeztu dute, baina aztertu behar da ea historikoki ere gauzak honela izan ote ziren: XVI. mendeko Baxenabarreko euskararen badira ezaugarri berri batzuk garai hartako Lapurdin falta direnak, baina hauetarik batzuk Zubeoroarekin partekatzen ditu: izenordain indartuen sailean elkarrekin doaz, *-kila* partekatzen dute soziatiboan, *ehor & nehor* ibiltzen dute polaritate negatiborik gabeko perpausetan —Baigorri *nohait* ageri da testuetan—, *naiz > niz*, *haiz > hiz*, *gira*, *zira* eta *nau > nu* erako monoptongazioetan, *nintzan* ‘nintzen’ (Etxepare) egiten dute biek, zuketa ere bi herrialdeetan ageri da, xuketa Baxenabarrereri atxikiago badago ere, aditza datiborik gabe agertzeko aukera partekatu dute, XIX. mendean gertakaria Lapurdinat inguraturik, *ukhan* ibili dute biek perifrasiari, *-a* galdera morfema perpausian, *elgar* aldaera, Zubeoroan *algar* dena. Berezko berrikuntzok ditu Nafarroa Behereak: Nor Nori adizkietan *ai > au* gertatu izana, Etxeparek *çayt & çauçu* bi erak darabil-tza, hirugarren pertsonan *zako* ‘zaio’ra iritsi da, nahiz Etxeparek *zaika* darabilen, *deramat* erako trinko berriak... Eta badira beste berrikuntza batzuk XVII. mendeko Lapurdin, orduko Baxenabarren falta direnak, baina ondo-

<sup>15</sup> Honexetaz dihardugu 2011n idatzi “Ekialdeko euskararen iraganaz” artikuluan. 2008ko abenduan IKER UMR 5478-k Baionan antolatu mintegian Blanca Urgellek eta Joseba A. Lakarrak “Hausturak nonahi, noiznahi, zenbatnahi: gogoetak euskal dialektologia diakronikoaz” hitzaldian antzeko zerbait iradoki zutela uste dugu, baina ordukoa ez dugu gogoan: banatu zuten eskuorrian Euskara Batu Zaharra delatik A1 (gainerateko beste euskal mintzo guztiak) eta A2 (ekialdekoa) abiatzen dira.

tik Nafarroa Behereko XVIII. mendeko idazkietan agertzen hasi zirenak; aitor dugu kasu honetan arazo nagusia Baxenabarreko XVII. mendeko testurik eza dela. Dena den, denbora iragan arau Lapurdin baino geroago Baxenabarraren agertu berrikuntzok ez dira espezifikokoak, euskara orokorrarenak baizik, ekialdeko bidea motelago hartu dutenak eta Ipar Euskal Herrian lehenik Lapurdiko idazkietan ikusi ditugunak; erdiguneko Euskal Herrian berriztatu ziren itxura dute, gerora emeki-emeki ekialderat jo dutenak.

Eragile historikoen inguruko arazoak gertatzen dira dialektologian: X. mendeko idazki zatietan ageri den euskarak iltzaturik dakar dialektalizazioaren eragina eta egoera batuagoaren garaia urruna ez dela iradokitzen badigu ere, badakigu orduko euskara ez zela hizkuntza guztiz batua; batasun haren balizko garaia Mitxelenak V-VI. mendeetan kokatzea proposatu zuen, historialariek hizkuntza-batasun haren gizarteko eragile garden edo erabatekorik sumatu ez badute ere. Gizartearen baitako eragile eta gorabehera historikoak ez ditugu xuxen eta nahi bezainbat ezagutzen eta makurrago dena, horiek hizkuntzaren zatiketan eduki duten eragina interpretatzean ez gabiltza nahi bezain trebe; dialektologia historikoan galderok ohikoak bilakatu dira; cf. Veiga, Vilasó & González (2006: 309):

- Zein neurritan jarraitzen dituzte egungo dialektoek Erdi Arokoak?
- Egungo banaketa dialektalak eta antzinako zatiketa historiko edo politiko-administratiboak paraleloki doaz?
- Zein izan dira hizkuntza-hedaduraren guneak?
- Zein neurritan baldintzatu dute dialektoen sorrera naturako oztopoek eta gizakiak historian zehar eraiki & baliatu dituen komunikabideek?

Euskal Herrian lan guti egin da dialektoei historikoki begiratu eta ondorioak ateratzeko. Oxel Uribe-Etxebarriak Debagoieneko euskararen iragana aztertzen dihardu eta aurkeztu duen tesi egitasmoan dioenez (2010-11), ez dakusa alde handirik orain eskualdean ageri den banaketa geografikoarekiko, “garai zaharretan ere” hiru eremuen arteko aldeak ikusten direla dio: Leintz ibarra / Oñati / Antzuola-Bergara ingurua. Ordea, Gontzal Aldaik berriki idatzi duenez, euskalkien oraingo definizio maila eta hauek garai batean zeukaten ez dira berdinak: ezaugarriek dagokienez, euskalkitik euskalkira aspal-dian mugak ez zeuden orain bezain argi eta euskararen eskualde “bitartekari” gehiago zeudela diosku (2012: 93-4):

En el euskera antiguo y arcaico los dialectos (tanto hablados como, sobre todo, literarios o escritos) que hemos conocido desde el tiempo de Bonaparte estaban lejos de haberse consolidado en los términos en los que los conocemos. La diferencia dialectal era en general menor a la de la época moderna. Pero, sobre todo, al no haberse fijado todavía el modelo unificador de cada dialecto, lo que era menor (es decir, menos clara y más gradual) era la diferenciación entre un dialecto y su vecino (...). Así encontramos en la época antigua muchas zonas “intermedias” del euskera.

Egungo gure begientzat ezezaguna eta ustegabekoa da zenbait aldiz euskal testu zahar horietako polimorfismoa, hizkuntza-ezaugarri zenbaitek egun ez duen hedadura edo agerpen geografikoa duelako orduko testuetan. Garai bateko euskal testu zaharretan ageri den polimorfismo horretan, bi aldaera lehiakide edo gehiago batera agertu ohi dira, usu lehen testuetarik. Beriain izarreibartarrak Iruñerriko euskarari idazten duela dio: “yo escriuo el que se habla en Pamplona, Cabeça deste Reyno, y Obispado de Nauarra, que es el que se habla en la mayor parte del, donde se habla bascuence, y el que mejor se entiende en todas las partes” (1621, *Al lector* zatian). Haren lanean \**edin* aditzeko *-adi-*, *-edi-* eta *-idi-* ageri dira: *badadi* (1626: 125) / *dedin* (1621: 10r) / *ezpadidi* (1626: 153), *ezpalidi* (1621: 70v) eta *eztidila* (1621: 44r). Haren sorterri Uterga Izarreibar da eta han, Estellerriko Gesalutzen legez, *-gi-* erako partizipioak baliatzen ziren; Izarreibarren *iruki* ‘eduki’-z landa, *irugi* & *urigi* ‘eduki’, *xagi* ‘jaiki’ edo *itxigi* ‘izeki’ egiten ziren. *-idi-* ezaugarria Izarreibarren agertzeak adierazten ote du, mendebaleko euskara zaharreko zenbait ezaugarriren kokagunea hegoaldeetik zabala zela eta sartaldekotzat jotzen ditugun hainbat tasan Nafarroa hegoaldeko erdigunean ere ibiltzen zirela? Ez jakin, interpretazio zaileko iraganeko kontuak dira, testurik gabeko iraganekoak.<sup>16</sup>

Polimorfismoarena nonahiko gertakaria da, ordea. Hona Galiziako berri (Echenique & Sánchez Méndez 2005: 444-5):

Mientras en Portugal se realizó esta labor tomando como base la lengua meridional de Lisboa, en Galicia la ausencia de una cancellería real dejó en manos de cada uno de los escribanos la creación de esa norma. Por eso, una característica de los textos gallegos de esta época es la falta de homogeneidad respecto de las soluciones adoptadas y el abundante polimorfismo en el que aparecían conviviendo variantes geográficas, sociales y diacrónicas.

Aldaik dakarren adierazpena ukatzeko batera asmorik ez dugu, zenbait testutan berak dioena gertatzen baita, baina aspaldiko testuek egia horretarako paraleloa den beste errealitate bat ere eskaintzen digute eta horietan ez da sentitzen egungo ikuspegitik dialekto nahasketatzat joenezakeen egoera lauso hori, eskualde jakin horretan gerora ezagutu ditugun testuetako euskararekin koherentea den egoera bat baizik, betiere, denbora iraganari aitortu behar zaion aldaketan saila aintzat harturik. Balio bezate adibidetzat honako idazle edo testuok: Etxepare Garazin, Lazarraga Araban, Materre, Axular, Harizmendi, Argaiñaratz edo Xurio Lapurdin, *Viva Jesus* edo Kapanaga Bizkaian, Belapeire Zuberoan, Beriain Nafarroa Garaian, Azpeitiko 1622ko gu-

<sup>16</sup> Mende bete geroago Estellerriko Francisco Elizalde *dadila* (1735: 44) aldaera dakar eta 1744 inguruko hego-nafarrerazko bertsoetan ere —Ondarrak Izarreibarkoak izan daitezkeela dioskun batzuetan (1993: 542)— *assi nadien* dago. Beriainen 1621eko *-idi-* aldaera horiek Iruñerrikoak edo Izarreibarkoak izan zitezkeelako aukerari zirrikitu bat irekirik ere, 1735 edo 1744rako mende bete baino gehiago joan da eta *-edi-*, *-idi-*, *-adi-* hirukoiztasun hori bateratzea jo balu ere, bateratzea 1735 edo 1744 baino lehenagokoa beharko lukeenez, 1735 edo 1744ko adibideek ez digute deus frogatzen ahal.



tunak, Otxoa Arinen dotrina edo Britainiako kantua Gipuzkoan...<sup>17</sup> Jakina, oro har dihardugu, bai baitakigu hauen arteko idazle bakoitzak bere ñabardurak dituela. Aldaik dioen errealtatearen arabekoak dira, aldiz, Lapurdi-Gipuzkoa bitarteko 1595-98 arteko gutun saila (Floristán Imízcoz 1993), Portalen 1610eko olerkia (Aldai 2012), 1619ko Sevillako bertsoak (Ulbarri 2011), 1759 baino lehen idatzi Barrutiaren antzerkia (Lakarra 1981).

Hizkuntzalaritza konparatzaileak kronologia erlatiboa darabil eta ondorio logiko bat du honek hizkuntza-geografian; azpifamilia edo azpitalde ttikien berrikuntzak goitiago dauden bitarteko taldeenak edo bitarteko adabegietakoak baino berankorragoak badira (Hoenigswald 1992: 31), teorian azpieskalkien ezaugarriek euskalkien ezaugarrien ondokoak behar dute izan, baina euskalkien iraganaz egun dakigun gutia jakinik kasu guztietan baieztata ote daiteke hau euskarari buruz? Oraingo bederen eta kronologia erlatiboa baliatu gabe, euskalkien zuhaitz genealogikoa ez dugu honelako baieztape-nak egin ahal izateko bezain ongi eraiki edo antolatu. Oraingo gure erronka nagusia euskararentzat bitarteko aldiak aurkitzea da, bitarteko multzo edo azpitaldeak eraikitzea: egungo euskalkien iragana argitzeko eta bide batez Euskara Batu Zaharrera iristeko bidea ematen diguten bitarteko geruzak aurkituz, tarteko adabegien berri emanez, Erdi Aroko azpitalde edo euskalkiak eraikiz. Lan hori bi eratara egin daiteke: goitik beheiti eta behetik goiti.

Euskal Herriak ez du geografia-hedadura handia eta euskalkiak elkarrengandik hurbil egon dira, elkar ukituz, menderen mendeko hartu-emanen: mintzotik mintzora hizkuntza-ezaugarrien hedadura zeharka gertatu da eta ondorioz erkidegoetako jendeen hartu-emanaren bidez, anitz berrikuntza eskualde batetik bestera kutsaduraz hedatu dira. Euskararen herrian ez dago itsasoaz harateko uharte urrunik, ehundaka kilometro dituen basorik, jenderik bizi ez den istila sail neurrigaberik, urte jakin batean sorlekutik bazter urrunetara jo duen migrazioerik, ez dirudi gizatalde-aldaketa handirik izan denik... eta honela ez daiteke itxaron dialekto sorta gotor, dibergente, arras espezifiko eta iragazkaitzak menderen mende finkatu izana, honelakorik ez da Euskal Herrian eta hori ez izanak euskal dialektoen arteko etengabeko hartu-eman eta elkarrengandik ekarri ditu. Euskal erkidegoek luzaz eta aspalditik gune batean iraun dute eta ez dute aldaketa demografiko sakon eta bat-batekorik izan. Euskal testuak berankorak dira eta gure egoera filologikoa ere hobetu behar da. Bestalde, euskaldunok ez dugu batasun administratiborik izan eta erreinu iraunkor edo estatu politiko bateratzaile iraunkorrik eduki ez

---

<sup>17</sup> “Respecto al tipo de lengua en el que está compuesto el cantar (...) no dudamos en identificar la lengua del Cantar de Breña como guipuzcoano, a pesar de que somos conscientes de la dificultad que ello entraña, dado que al contrario del labortano clásico o del vizcaíno antiguo, el guipuzcoano no parece presentar una personalidad definida y estructurada hasta que Larramendi, tomando como base la variedad de Beterri, lo tipificara en su gramática casi a mediados del siglo XVIII. Así, muchos de los rasgos que se presentan aquí [Bretainiako kantua-zen azterketan] como occidentales pueden ser tan guipuzcoanos como vizcaínos” (*Contr.*, 81).



dugunez, buru rola joka lezakeen hiririk ere ez dugu izan, ezta eredu estandar edo literario bakar bat ere; honela zail da hainbat eta hainbat ezaugarriren eta berrikuntzaren data zehatzaz argitasuna eskaintzea. Euskararen historian eragingune sozio-ekonomiko edo foko nagusiez ez dugu nahi bezainbat argibide ere.

Orografiak zenbait eskualde menditsutan eten dialektal handixko zenbait eragin badu ere, zatiketa administratibo gardenek (Iberia / Galia edo Ipar / Hego Euskal Herria) ez dute itxuraz berandu arte hizkuntza-emaizta edo ondorio gardenik utzi; jauzi politiko-administratibo hau usu ez da aski muga izan hizkuntza-ezaugarriek bera gainditu edo iragan dezaten, alderdi bateko eta bestekoak elkarri hurbil bizi izan baitira, aldi lanetarako batera eta bestera joanez muga zeharkatu dute, alde batekoak bestekoarekin ezkondu dira, itsaso berean egin dute arrantzan... Ez dugu adierazi nahi hartu-eman hauen maiztasuna eta ugaritasuna alderdi bateko eta besteko hizkuntza-desberdintasuna sortzen ez uzterainokoa izan denik, baina guztizko etenik ere ez da izan.

Pulgram-ek badu aspaldiko galdera baliagarri bat: *Why is common-Indo-European not necessarily equivalent with proto-Indo-European?* (1953: 69). Joseba A. Lakarraren oraintsuko saio batean (2011), Aitzineuskara Modernotik Euskara Batu Zaharrera bidean edo Euskara Batu Zaharraren garaian gertatu ahal izan diren berrikuntza batzuk proposatu dira fonologia eta morfologian; saioaren balioaz ez dago zalantzarik.

## 6. Lapurdiko eta Nafarroa Garaiko euskara zaharraz

### 6.1. Oharrak eremu lektalez

Euskal Herriko erdigunean dago Nafarroa Garaia eta hango eta hemengo ezaugarriek ukitzen eta zatitzen dute, alderdi batetik nahiz bestetik, saihetsetan batez ere. Euskal Herriko saihetsetako herrialde diren Bizkaian eta Zuberoan hizkuntza-batasun maila handiagoa dago Nafarroa Garaian baino. Honenbeste hedadura duen Nafarroa Garaian nabarmena da zatiketa dialektala eta aldiz, Lapurdik zati laburragoa harrapatzen du. Lapurdik badu alderdi on bat: xviiian literatura landu aberatsa garatu zuen; Lapurdiko euskara hobeki ezagutzeak badu *handicap* bat: literatura sendoa du, baina honek idatzizko tradizio bateratzailearen mamua haizatzen du, Koldo Ulibarrik liburu hone-tan ohartarazten gaituen bezala. Iruñe inguruan hizkuntza-marra batek ezker/eskuin zatitzen du Nafarroa Garaia, ekialdea eta mendebala bereizten ditu (Camino 2003: 31), baina lerro bereizle horren antzintasuna ez dirudi hainbestekoa denik ere; cf. Orreaga Ibarra ere, goitik beheiti doan marraz (1995: 693-4) eta ikus orain Zuazo ere (2012: 64). Hego-nafarrera deitzen dugun azpieuskalkia aurkeztu genuen 2003an, baina Bonapartek zioenaren aurka mintzo honi euskalki estatusik aitortu gabe, nafarreraren barrenean sarturik: Aezkoa alderditik Estellerriraino kokatzen genuen azpieuskalki hau eta gure

ezagutzaren arabera, bera definitzen duten ezaugarri espezifiko berri gehienak franko hurbil koka daitezke denboran; honekin ez dugu esan nahi bertako ezaugarri guztiak hain berriak direnik, baina gehienek berri itxura dute.

Gai honek Iruñea hiriburuaren hizkuntza-eraginaz mintzatzera garamatza: abiatu ote da bertatik ezker-eskuin eta goi-behe hedatu datekeen hizkuntza-eraginik? Eta noiztik hori, zenbat mendez iraun du, noiz arte? Iruñeko erresumaren garaia x. mende hasiera da, Iruñea *civitas* erromatarrean, apezpikuaren eta aristokraziaren kokagune den hiria: *milites pampilonenses*; ondotik hartuko du, XII. mendean, Nafarroako erreinuaren izena. Garai hartatik honat bederen, teorian erdigune horrek hizkuntza-eragina ukan duela proposatu beharko genuke, hirian euskararen garrantzia ahultzten hasi zen arte, bederen. Nolanahi ere den, Iruñea ez da hain hiri handia izan, hizkuntza aldetik esleitzen diogun balizko eragin hori ez dakigu xuxen zenbaterainokoa izan zen; erregearen gortea Erriberrin bizi izan zen usu, ez Iruñean. Demografiaren bezainbatean, nafar gehienak ibarretan bizi ziren, ez hiriburuan; esate batera, XVI. mendean 2.000 biztanle inguru zituen Iruñeak, XVIII. mendean hasieran 8.000 eta 1783an 15.000. Madozen arabera 1848an 15.745 biztanle zeuden bertan. Baina honetan guztian erlatiboa izan ohi da errealitatea eta ikusi behar da ea ba ote zegoen Nafarroa euskaldunean hiriburuari demolin-guistikoki edo sozio-ekonomikoki aurre egin ziezaiokeen beste gune bat, eta erantzuna ezezkoa dela dirudi. Baina gibelera jo behar dugu; ezaguna denez, Euskara Batu Zaharraren sorreraren garaia proposatzeko, Iruñeko erresuma ez zeukan hain urrun Koldo Mitxelenaen pentsamenduak:

consolidación del nuevo orden, cuya culminación podemos poner en el establecimiento del reino de Navarra, nuestra mayor realización política (1981: 313)

influencias llegadas desde Pamplona u otros centros situados fuera de su territorio (*ibid.*).

Beraz, Mitxelena proposatzen duen Euskara Batu Zaharraren sorrera garaia (v-vi. mendeak) eta x. mendeko Iruñeko erresuma hain urrun ez badaude eta honetatik ondorioztatzen bada aldi goiztiarretik Iruñetik hizkuntza-eragina hedatu zela, ulertu beharko dugu badirela ezaugarri batzuk aspalditik Euskal Herriko bazter anitzetara Iruñetik hedatu direnak —eman dezagun x. mendetik honat—; garai hura aski zaharra denez, ulertu beharko da orduko ezaugarri berriek geografia-hedadura ere halakoa hartu dutela, zabalak, nahiz beharbada, Bizkaira eta Araba guztiraino eta Zuberoa-Erronkari alderdi horretaraino heldu ez, baina Gipuzkoan, Lapurdin, Baxenabarren eta Nafarroa Garaian egon beharko luke halako ezaugarri sorta zahar bat, hedadura handikoa, beharbada Iruñe ingurutik aspaldi hedaturik. Egin dezakegun galdera nagusia da, Iruñetik Euskal Herri zabalera hedatu ziren ezaugarriak eta hiriburu honetatik beretik Nafarroara baizik hedatu ez zirenak, batzuk eta besteak kronologikoki nola bereizi, bi ezaugarri sortak aurrehistorikoak baldin badira, hau da, testurik ez zen garaiko berrikuntzak. Ezaugarri sail bat

bestetik kronologikoki bereizteko ez dugu tresnarik: ez baditugu ezaugarri foniko batzuk baliatzen ahal kronologia erlatiboak eraikitzeko, hizkuntza-ezaugarrien geografia-hedaduran oinarrituz egin daitekeen interpretazioa baikik, nola jokatu?

Besterik ezean har dezagun aski zaharra den ezaugarri berri bat, Euskal Herri guztira hedatu ez dena baina Nafarroan hedadura zabala eta aspaldikoa duena, instrumentaleko *-s* apikaria, hain zuzen ere; Nafarroako Foru Nagusian ditugu *Gayces berme, ones berme* esaldiak, txistukari apikaria dutenak (*TAV*, 55); testua ez dakigu xuxen 1237ko ediziotik ala XIV. mendeko eskuizkributik bildu den, baina nolana ere den, aski berrikuntza zaharra da. Amenduxen olerkian ere apikaria dago eta Beriainek apikaria nahiz lepokaria, biak dakartza. Nafarroa gehianean ibiltzen den berrikuntza da eta nafarreraren ezaugarritzat jotzen dugu; Sakanan, Nafarroako erdigune guztian eta hego-nafarreraren barrenean ibiltzen da, Aezkoaraino heltzen da, baina Zaraitzu-Erronkariak kanpo gelditzen dira. Ipar-mendebalean Larraun gehianean ibiltzen da, baina ez ibar honen ipar-mendebalean, Araitz-Betelun edo Leitza-Areson, nahiz baden *partes* Leitzako 1626ko idazki batean (Satrustegi 1987: 46); hutsune gehiago ere badu: Iruñe ondoko Txulapain eta Basaburu Txikia. Eta hain zaharra den ezaugarri bat ez da Baztanen, Bidasoaldean eta Bortzirietan ere ibiltzen, nafarrera definitzen duten ezaugarri batzuk —baina guztiak ez— ohiz ibar horietara heltzen badira ere. Beraz, galdera da ea Behe Erdi Aroan Iruñea ote den Bidasoaldera eta Baztana heltzen diren berrikuntzen abia gunea, ala Nafarroako ipar-ekialdeko ibarrok beste dinamika geolektal baten menpe ote zeuden. Beste ezaugarri bat ere bada Nafarroa Garaia gehienera hedatu dena baina gure bi eskualdeotara heldu ez dena: *eduki* aditzaren pluralean *-zki* egitea, hain zuzen ere: *dauzkit, dauzki, dauzkigu...* saila, baina ezaugarri honetan aintzat hartu behar dugu XVI. mendean Lapurdin eta Baxenabarren *dadutzat, dadutza, dadutzagu* erakoak ditugula eta *-tza* hau pluralgile zaharra dela euskaraz, horregatik, Nafarroa Garaiko berrikuntzak berria izateko arriskua du: zinez garamatza urrun denboran?

Nafarroa Garaian aurkitzen dugun orok ez du arestian aipatu hedadura nafar zabal hori, bada beste hedadura mota bat Nafarroa Garaiko ipar-ekialdea eta Lapurdi alderdi hori lotzen dituena, berrikuntzetan ezagun duena; eta aurkeztuko ditugu Nafarroa Garaia eta Baxenabarre lotzen dituzten ezaugarri berriak ere, baina hauetan Zuberua ere partaide da; cf. §§ 6.4.1.6.1 eta 6.4.1.6.2.

Nafarroa Garaiko ipar-ekialdea eta Lapurdi elkarren ondoan daude eta beren artean halako batasun bat aipa dezakegu hizkuntza-ezaugarri batzuen aldetik; zenbait tasunek ez dute Iruñetik abiatu datekeen beste ezaugarrien sailaren hedadura bera, hertsia goa baikik. Inoiz Lapurditik Nafarroa Garaiko erdiguneraino ere heltzen dira ezaugarriok, Ultzamara, ondoko Odieta edo Ezkabartera, eta inoiz Iruñeriraino, Eguesibarreraino. Badakigu, bestalde, zail dela tasun berritzaile guztientzat mapa bera irudikatzea, ezaugarri bakoitzaren hedadurak bere ñabarduratxoak eduki ohi dituela. Nolanahi ere den,

ezaugarri bat Lapurditik Iruñerrira iristen baldin bada, ez da nafar hiriburuko euskararen edo euskaltasunaren alde mintzatzen, Lapurditik etorri den berrikuntzaren garai horretan hizkuntza-eragin euskaldun bakaneko hiriburutzat aurkezten digu Iruñea.

Elizaren administrazioak ere batu ditu Nafarroa Garaiko ipar-ekialdea eta Lapurdi. Baxenabarreko Albret leinuak kalbisnismora jo zuela argudiatu-rik, Gaztelak XVI. mendean nahi izan zuen Nafarroa Garaiko Baztan, Bertizara, Malerreka, Bortzirriak eta Gipuzkoako ipar-ekialdea (Errenteria, Lezo, Pasaia, Irun) Baionako elizbarrutitik atera eta Iruñekora ekartzea, baina 1567 arte Baionakoaren barrenean egon ziren (Mugica 1914: 225).<sup>18</sup> Aitor dezagun Baionako elizbarrutia ez dela betikoa, 980 urtekoa dela eta Akizeren menpe egotetik —IV. mendekoa omen da Akizeko lehen gotzaina— Baionako elizbarrutia edukitzera iragan zirela Ipar Euskal Herriko jendeak XI. mendean, eta Nafarroako ipar-ekialdea Baionakoari esleitu zitzaiola. Oloroeko elizbarrutiak mende hartan berean Zuberora bereganatu zuen.

Eta hizkuntzaz Jean Saroihandik intuitiboki iradoki zuena ere gogoan har daiteke:<sup>19</sup>

El dialecto de Sara está estrechamente emparentado con el de las aldeas de la frontera española, no solamente de Zugarramurdi y Urdax, que están vueltas hacia Francia, sino de Vera o Elizondo, y podría ser considerado como una variedad del alto navarro de España. Puesto que el resto del antiguo país del Labort pertenece lingüísticamente al bajo navarro, resulta que no existe, hablando propiamente, dialecto labortano (1925: 524).

Beraz, bereziki jakin beharko genukeena honakoa da:

- a) ea bi abiagune desberdin egon ote ziren, bata Iruñean eta bestea Lapurdin, baina Lapurdiko ezaugarri berriak bertatik Nafarroa Garaiko ekialdera eta batzuetan Baxenabarrera heldurik eta
- b) ea abiagune bataren garaia bestearena baino zaharragoa ote den, eman dezagun Iruñekoa zaharragoa Lapurdikoa baino, ala alderantziz, Lapurdiko berrikuntzak lehenik gertatu ote ziren Iruñekoak baino, ala abiagune bateko eta besteko ezaugarri berriak garai bere-tsuari abiatu eta hedatu ote ziren kanporat eta ea zein izan diren bate-tik eta bestetik hedatu diren ezaugarrien geografia-hedadurak, eta ea Baxenabarrek zein jokoera duen honetan guztian.

<sup>18</sup> Eta 1567 ondotik ere izan zen hartu-eman: “existen pruebas en el archivo del castillo de Urtubia que demuestran claramente la continuidad de relaciones con Bayona. Se trata de un contrato de arrendamiento de los diezmos y otras rentas que el obispo de Bayona poseía en Cinco Villas y los valles de Baztán, San Esteban de Lerín y Bertiz” (Uranzu 1955: 326).

<sup>19</sup> Blanca Urgellek eta Joseba A. Lakarrak 2008an Baionan eman zuten “Hausturak no-nahi, noiznahi, zenbatnahi: gogoetak euskal dialektologia diakronikoaz” hitzaldiko eskuorrian erdialdeko euskaratik Nafarroako eta Lapurdiko mintzoak abiatu zirela proposatzen da.

Interes betekoa da jakin ahal izatea aspaldiko garaian zein hartu-eman izan zuten Lapurdiko eta Nafarroa Garaiko euskarak, egin baitaiteke hirugarren galdera bat ere:

- c) euskara zatitzen eta emeki euskalkiak agertzen hasi ziren garaian, be-tiere Mitxelena-ren arabera Goi Erdi Arotik honat, sasoin dialektal hartan Lapurdi eta Nafarroa Garaia hizkuntzaz baterago ote zeuden? Eta aldi haren ondotik euskara garai postdialektalean sartzen ari zela-rik, Nafarroa Garaiko eta Lapurdiko euskal mintzok aski batera edo azpitalde berean zenbat denboraz jarraitu zuten, gerora emeki-emeki elkarrengandik urrunduz joan baino lehen?

Gai honi halako erantzun sendoa emateko testu zaharrak beharko ge-nituzke, Erdi Arokoak edo, baina horiek izan ezean, egin dezakegun saioa da bi herrialdeotako idazki historiko zaharrenetako euskarari begiratzea eta ikustea zer aurkitzen dugun. Bide honetatik joz gero, eta nafarrerak eta la-purterak inoiz batasun dialektaleko maila gorago bat izan zutela defendatu ahal izateko, teorikoki honako ezaugarriak beharko genituzke: Lapurdin eta Nafarroa Garaian baizik garatu ez diren berrikuntza espezifikoko batzuk aur-kitzea eta tasun hauek zaharrak izatea, euskara zatitzen hasi zen garai harta-tsukoak, ez baitihardugu nafarrerak eta lapurterak aro garaikidean izan duten batasunaz, euskalkien sorrera garaian elkarrekin egin zuketan balizko bidez baizik, elkarrekin, baina beste mintzo batzuetarik bereiz. Baina honelako da-tuak aurkitzea ez da aise. Eta bide horretan gairi abiaturik gero ohiko ara-zoa aurkitzen dugu: bi eskualdek berrikuntza partekatu eskusibo berak izateak adierazten ote du, espeziazio bidez arbaso komun baten zatiketaren bi lehen emaitzak direla eta beren antzekotasuna elkarrekin egondako garaia-ren bitarteko berrikuntzetan datzala, ondarez bilduak izanik, eta ez ondoko es-kualdeekiko harremanaren bidezko kutsaduran, ezaugarriak eskualde batetik bestera hedatu izanean? Dixon-ek eta Dench-ek ez dute gaia baikortasunez ikusten (2001).<sup>20</sup>

<sup>20</sup> Dixonek diosku: “Suppose that a certain change develops in languages A, B and C. This might be taken as evidence that they are genetically related, with the change attributed to a common proto-language. In fact, the change might have developed in just one of A, B, and C, and then diffused into the others; such a shared change would provide no evidence of close genetic connection (e.g. subgrouping) for A, B, and C (...). The ‘parallel development’ explanation for some kinds of similarity between languages is not always paid attention to (...). As a consequence, similarities of this kind may —mistakenly— be taken to be markers of close genetic relationships” (Aikhenvald & Dixon 2001: 4). Eta Dench-ek: “of course, making the argument for an innovation shared by virtue of a period of common development is never easy. I take it for granted that a statement of shared inheritance as explanation for a shared feature should only be made once all other possible explanations for the shared feature have been exhausted. These other possibilities will include accidental similarity in form, borrowing, and genetic drift”. Elkarrekiko harremana galdu eta zatiketaz geroztik, sanskritoan eta grezieran Hermann Grassmann-en legea gauzatu zen, hasperen bikoitzaren disimilazioa, jitoan, *drift* bidez, hizkuntza bakoitzean era beregainean. Bide eszeptikoari heltzen dio Dench-ek: “We should

Bidean abiatu ere ez dugu fruitu handirik lortu. Testuak arakaturik zazpi berrikuntza eskusibo sumatu ditugu Nafarroa Garaian eta Lapurdin, baina hauen artean bi baizik ez dira fonikoak eta beren arteko batek sakontasun kronologikorik ez du, euskaran azentuera arras zatiturik egon den garaiko berrikuntza behar baitu izan; eta beste berrikuntza fonikoa ez da sistematikoa, bi hitzek jasan monoptongazioa da. Beste bost tasun bateratzaileak ezaugarri morfologikoak dira eta neke da hauek baliaturik kronologia erlatiboak finkatzea. Berrikuntza hauek arazoak aurkezten dituzte gaiari ikuspegi genetikotik so egiteko; ez dirudi oro har ezaugarri bateratzaile berriok hain zaharrak direnik, eta ez dira Nafarroa guztira hedatu, batasuna Nafarroa Garaiko ipar-ekialdearen eta Lapurdiren artekoa da gehiago, Nafarroa Garaian eta Lapurdiren artekoa baino; Nafarroako Bortzirietan, Bidasoaldean eta Baztanen ibiltzen dira eta inoiz erdialdera, Ultzama alderdi horretara ere hedatu dira, zein nola. Testuak agertu orduko, hala Nafarroa Garaiak nola Lapurdik zeinek bere berezko berrikuntzak dituzte XVI-XVII. mendeetan, historiaurrean garatuak; garai historikoan gertatu berrikuntza guti batzuen berri ere emanen dugu llabur saio honetan. Ezaugarri sorta zabal bat aurkeztuko dugu Nafarroa Garaiko eta Lapurdiko dinamika lektala nondik nora ibili den jakiteko.

Nafarroako zoko zenbait iraganeko ezaugarri hedatuagoen gordeleku izan dela ere erakusten digute datuek; zaharra da *-tza* atzizkia aditzean plurala adierazteko; Lapurdiko eta Baxenabarreko testurik zaharrenetan dakusagu, baina Baxenabarreko testuetan bederen, XVIIItik honat ez da gehiago ageri. Sakanako Etxarri-Aranatzen *-tza* pluralgilea dugu: *dootzat* ‘dizkiot’, *dootzak* ‘dizkiok’, *dootzabie* ‘dizkiote’... Gipuzkoan ere osagarri pluraletan bada *\*eradun* Nor Nori Nork-en, baina orainean ez da emankorra, *fase sparita*-k azalduko luke; Ipar Euskal Herri guztian bizirik dago eta Nafarroa Garaian ere izan da; *\*eradun* honen bizkar gainean irau du *-tza* pluralgileak Nafarroako Sakanan, aspaldiko garaian euskal geografian gandi hedatuago zegoela salatuz, aspaldikoa izan daitekeen batasun garai hura iradokirik, hizkuntza-batasun gehiagoko garai hura. Ondokoak dira *\*-i-* aditzarekin *zki* edo *it* pluralgilea darabilten tripersonalen sistemak Nafarroan.

Hurranen azpiatalek erakutsiko digute zein alde dagoen herrialde batetik bestera lehen testuak ageri direnean, hau da, ingelesez *divergence* deitzen diren horiek, guk “hautu desberdinak” dei ditzakegunak. Berrikuntzei so egitean aurrehistorikoak eta testuen garaikoak bereiziko ditugu, elkarrekin egin dituztenak —Lapurdiko eta Nafarroako ipar-ekialdeko berezko berrikuntzak— eta bereiz egin dituztenak, eskualde zabalekoak eta eskusiboagoak

---

leave open the possibility that all questions may turn out to be undecidable. It may not be possible to show conclusively for any particular innovation that it results from genetic inheritance rather than that it is motivated by contact with another language. If enough such cases occur, then the suspicion we might attach to any putative inherited innovation will mount and we should become increasingly sceptical of any suggested genetic classification” (2001: 113-4).

direnak. Bereiz egin dituztenen artean badira nafarrerarenak baizik ez direnak, nafarreraren hegoaldeko atalarenak baizik ez direnak eta lapurterarenak baizik ez direnak, baina ez ditugu ahantziko Lapurdik Baxenabarrerekin batean egin dituenak, ezta Nafarroa Garaiak Lapurdi eta Baxenabarrerekin batean partekatzen dituen ezaugarri berriak ere; eta badira Nafarroak Euskal Herriko erdigunearekin egin berrikuntzak ere. Eginahala eginen dugu ezaugarrien kronologiaz zertxobait aipatzeko, baina alderdi gehienak morfologiari dagozkionez ez da zeregin erraza gertatuko.

Aztergai edo ezaugarriak Nafarroa Garaiko eta Lapurdiko idazki zaharrak irakurri arau hautatu ditugu, adierazgarri iruditu zaizkigunak, intuizio edo ezagutza inplizituaren arabera. Hautatu ditugunak ehun inguru dira, lau-rogeita hamabost, baina ziur gara diakronistei ezaugarri sobera berriak irudituko zaizkiela eta hautatu ez dugun ezaugarri bat baino gehiago ere egoki izan zitekeela. Testuei dagokienez, ohikoak baliatu ditugu: Lapurdin, Leizarraga —aurkezten dituen arazoez jakitun—, Materre, Ziburuko Etxeberri, Axular, Harizmendi, Argaiñaratz eta Xurio [laburturik Leiz, Mat, Zib Etx, Ax, Hariz, Arg eta Xur]; xumeagoetan, Urruñatik Hondarribira 1680an idatzitako gutunak (Sarasola 1983) eta 1844-1853 urteen bitartean Urruña edo Ziburutik Ternua hegoaldean ziren marinelei idatzitako (Egaña 1998) aipa daitezke. Nafarroa Garaian ezkon-zin eta gainerateko XVI. gizaldiko lekukotasun zaharrak, Iruñeko olerki sarituak (1609-1610), Beriainen bi liburuak, 1729ko predikua, Elizalderen 1735eko *dotrina*, 1744 inguruko *Misioetara Deya* (Ondarra 1993) eta Lapurdiko auzo diren Nafarroako ibarretako euskararen ezagutza berankorra aipatuko ditugu. Baxenabarrerako ohiko testu kanoniko zaharrak —Etxepare eta Bertran Etxauzen 1584ko gutuna— eta XVIII. mendeko testu erlijioso luzeak. Hona corpusaren berri xeheki.<sup>21</sup>

<sup>21</sup> G. Aresti, 1972, “Flexiones verbales empleadas por Leizarraga de Briscous, en sus traducciones vascas de 1571”, *FLV* 11, 157-194. P. d’Argaiñaratz, 1978 [1665], *Devoten brevariarioa*, Hordago, Donostia. K. Artola, 2001, “Olaizko euskal eskuizkribuak”, *FLV* 88, 485-519. P. Axular, 1643, *Guero*; ez dugu edizio jatorrik erabili. J. Beriain, 1980 [1621], *Tratado de como se ha de oyr missa & Tracacenda nola ençvn vearden Meza*, Hordago, Donostia. 1626, *Dotrina christioarena euscaras*, Iruñea. M. Chourio, 1978 [1720]; 1788ko edizioaren arabera], *Jesu-Christoren imitacionea*, Hordago, Donostia. M. Egaña, 1998, “1844-1853 lapurteraz idatzitako gutunak”, in *Antoine d’Abbadie 1897-1997. Congrès International (Hendaye 1997)*, Eusko Ikaskuntza & Euskaltzaindia, Bilbo, 493-502. F. Elizalde, 1735, *Apezendaco dotrina christiana uscaras*, Alfonso Burguete, Iruñea. A. M. Etxaide, 1984, *Erizkizundi Irukoitza* [EI], Euskaltzaindia, Bilbo. 1989, *El euskera en Navarra: encuestas lingüísticas (1965-1967)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia. P. Etxaniz, 1999, “Deikazteluko sermoia”, *FLV* 82, 483-499. I. Etxeberri, 1981 [1669], *Manual devotioenezcoa*, I. zatia, P. Altunaren edizioa, Mensajero, Bilbo. B. Etxepare, 1980 [1545], *Linguae vasconum primitiae*, P. Altunaren edizioa, Mensajero, Bilbo. J. M. Floristán, 1993, “Conflictos fronterizos, espionaje y vascuence a finales del siglo XVI: 20 documentos inéditos”, *FLV* 63, 177-219. I. Gaminde, 1985, *Aditza ipar goi nafarreraz*, UEU, Iruñea. 1986, “Esteribarreko aditzak”, *FLV* 48, 183-203. C. Harizmendi, 1978 [1658], *L’office de la vierge Marie en basque labourdin*, Hordago, Donostia. P. Iñigo, 1981, “Bortzirietako erakusleez”, *Euskera* 26/1, 43-46. N. Iriarte & M. Lakar, 2002, *Bortzirietako ahozko tradizioa* bilduma argitaragabea. E. Materre, 2008 [1623], *Dotrina Christiana*.



## 6.2. Lapurdi eta Nafarroa Garaiko dibergentzia edo hautuak

6.2.1. Arestian adierazi dugu Petiten kezka (2007: 26): hizkuntzalaritza historikoan filiazioak egitean berdintasun berriztatuei garrantzia ematea no-nahi onesten den araua da, baina ez da garbi gelditzen alderatzearen ondoko sailkapen erabakietan edo azpitaldeak finkatzean, mintzoen arteko desberdintasunei, dibergentziei, hautu ez partekatuei zein garrantzi eman behar zaien. Aurkeztuko ditugun hautuek ez dute guztiek hedadura bera eta ohi bezala, zalantza izaten da zerbait haututzat edo berrikuntzatzat jo behar denean; honetan denbora iraganak garrantzia du, hautuen ikuspegia antzinako egoerari baitagokio gehienbat: bi ezaugarriren artean zaharragoa zein den ezezaguna denean: ezagutza diakronikoan sakonduz gero, litekeena da artean haututzat ikusi den zerbait berrikuntzatzat ikusia izatera iragatea.

6.2.2. Nafarroa Garaian eta Ipar Euskal Herri guztian ditugu *\*iron* aditzaren aldaerak, baina ekialdean ibiltzen da indar gehienez; Nafarroan 1609ko olerkiek, Beriainek, 1729ko predikuak eta Pirinioen ondoko ibarretako idazkiek dakarte, galduz doala dirudien erabileran. Lapurdiko testuek ere ez dute erakusten gogotik erabili denik: Axularrek ez dakar, baina Leizarragak, Etxeberri Ziburukoak eta Harizmendik bai. Ordea, Etxepareren lanetan eta Zuberoan erruz ibiltzen da; cf. Padilla (2013). Aski aditz defektiboa da, zaharra izateko itxura du.

6.2.3. Adizki triperitsonaletan *\*eradun* eta *\*-i-* erroak ibiltzen dira Nafarroa Garaian eta Ipar Euskal Herrian eta Euskal Herriko erdialde guztian ere bada *\*-i-*; halaber, Gipuzkoan adizki triperitsonaletako pluralean ageri da *\*eradun*. Nafarroan osorik dago Beorburuko 1536ko edo Olatzagutiko 1548ko ezkon-zinetako *derauçut*, baina galduz eta soilduz joan ziren gero aldaerok. Beriainek *ematen drauan* ‘dian’ dakar eta 1609ko olerkietan *eman draue* ‘die’ dago. Lapurdin *derau-* egiturak diptongo eta guzti iraun zuen (Mat, Ax, Hariz), Baxenabarren Etxeparek dakarren bezala; *derau-* > *darau-* lekukotasuna Bertran Etxaux baxenabartarraren 1584ko gutunean dugu: *darauçut*, *daraudala*, *daracodala*; Lapurdin *darau-* > *daro-* monoptongazioa gauzatu zen: *darocuçu* (Zib Etx), *darotaçu* & *cenerotan* (Hariz), *daroztegun* (Arg), *darotzubegouan*, *darocouten* (Urruñako 1680ko gutunak), *darozquigutçu* (Xur). XIX. mendeko Lapurdiko lekukotasunetan ere berdin jarraitu du: *darozquiât*, *darosquitzu* egiturak daude Urruñako 1844ko gutun batean

---

*Bigarren impressionean debocinozco othoitx eta oracino batçuez berreturic*, Labayru, Bilbo. K. Mitxelena, 1964, *Textos arcaicos vascos* [TAV], Minotauro, Madril. F. Ondarra, 1981, “Primer sermón en vascuence navarro (1729)”, *FLV* 38, 147-173. 1982, “Textos en vascuence navarro de Baztán, Nuin y Urdazubi”, *FLV* 40, 387-401. 1993, “Hemezortzigarren mendeko bertsoak”, *FLV* 64, 531-553. R.M. Pagola, I. Iribar & J.J. Iribar, 1999, *Bonaparte ondareko eskuizkribuak. Ekialdeko behe-nafarrera*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo. I. Sarasola, 1983, “Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos” [Contr.], *ASJU* 17, 69-212. J.M. Satrustegi, 1987, *Euskal testu zaharrak (I)*, Euskaltzaindia, Iruñea.



(494), baina *r*-ren galera hasia da orduko: *dausquitçugu* (495), *dausquisut* (497), *dausut* (497).

6.2.4. Izenordain indartuetan oro har ez dago alde handirik Nafarroa Garaitik Lapurdira. Zail da izenordainen sistemen artean bereizketa gardenik egitea, aldaketak leku guztietan garai berean gertatu ez direlako eta sistema bakoitzaren barrenean ere aldakortasuna izan delako. Esate baterako, autore batek berak bi aldaera izan ditzake; Etxeparek *zuhaurk* & *zuhaurorrek* darabiltza, eta Leizarragak *geuror* & *geurok* (biak abs.). Etxeberri Ziburukoak *herori* darabil (abs.), baina ergatiboan *heronek*;<sup>22</sup> bestalde, diptongoak soildu daitezke eta erakusleen hondar kontsonantea galdu: Leizarragak *neuror* du baina Axularrek *neror* eta Beriainen *neurau* aldaeran diptongoa soildu ez bada ere, erakuslearen *-r* falta da; *neurau* honen kide da Estellerriko Eraulgo 1564ko *zerau* eta ez dezagun atzendu Lazarragak ere *neurau* duela. Orobat, sistema bakoitzaren barrenean berrikuntzak agertuz joan dira, Beriainen *geuren* analogikoa lekuko, gerora hego-nafarreran *gauren* aldaera nagusi bilakatu dena; eta gainera, Beriainek *geuren* nahiz *geren* (1621: 17v) dakartza monoptongaturik, Materrerren *gere* (275) edo Xurioren *nere* (218) eta *cere* (216) aldaeren antzera.<sup>23</sup>

Baxenabarreko sistema Zuberoakotik hurbil da. Etxeparek *nihaur*, *nihaurk*, *neure* / *hiaurk* & *haurorrek*, *heure* / *guhaurk* / *zuhaur*, *zuhaurk* & *zuhaurorrek* dakartza; ez dago Zuberoakotik urrun, baina hartan pluraletan *i* analogikoa dago: *gihaur*, *zihaur*, *zihauereiek* (Belapeire). Lapurdi eta Nafarroa Garaiko sistemak hurbilsko daude, baina ñabardura kronologikoak egin daitezke, ea lehen pertsonan abiagunea *ni* + *haur* edo *neur* + *hau(r)* den, ergatiboan *neurk*, *zeurk* era zaharrak gorde diren, ala bigarren aldiko eraikuntza luzeagoak diren, beste erakusle bat gehiago erantsirik; ikus gaiaz eta kronologiaz Martínez-Areta (2013: 306-12). Hona idazleak eta beren aldaera batzuk.<sup>24</sup>

<sup>22</sup> XVII, XVIII eta XIXan Lapurdin *neroni* & *nerori* erakoak daude eta Xuriok *neronek* & *nerorrek*, bi paradigmak darabiltza; XIXan absolutiboan *nerorri* erakoak agertu ziren.

<sup>23</sup> Behin baizik ez dakar Beriainek: *gueren becatuac* (1621: 17v); *Tratado*-an hogeita bat aldiz dakar *gueuren* eta dotrinan ere beste hainbestetan; 1729ko predikuak *geure* dakar, baina Elizalde 1735ean *gueuren* (5) nahiz *gueren* (87). Aresoko Pater nosterrean ere *guere* dago.

<sup>24</sup> Beriain: *neurau*, *neure* / *geurok*, *geurek*, *geuren* & *geren* / *zeurori*, *zeure*. 1729ko predikua: *neure* / *geure* / *zeure* / *zeuren*. Elizalde: *ceurorrec*. XVIII. mendeko hego nafarrerazko bertso batzuk (Ondarra 1993): *neuronec* / *ceurorrec*. Leizarraga: *neuror*, *neurorrek*, *neure* & *neurorren* / *euror*, *eurorrek*, *eure* & *eurorren* / *geuror* & *geurok* (abs. eta erg.), *geure* / *zeuror* (abs. eta erg.), *zeuron*. Materre: *neure* / *geurok*, *geure* & *gere*, *geheroki* 'guhaurekin' / *zerori*, *zeurk* (cf. Lazarragaren *neurk* & *zeurk* eta Tartasen *neurk*), *zeure*. Axular: *neror*, *neurk*, *neroni* (dat.) / *geurok* / *zerori* (abs.), *zeurk* (cf. Lazarragaren *zeurk*). Ziburuko Etxeberri: *neure* / *herori* (abs.), *heronek*, *heure* / *geure* / *zeronek*, *zeure*. Harizmendi: / / / / *zeror*. Argaiñaratz: *neror*, *nerorentzat* / / / *zerori*, *zerork*. Xurio: *neronek* & *nerorrek* / *gerorrek* / *zeroni*, *zeronek* & *zerorrek*. Urruñako 1680ko gutunetan *gueronec* ageri da eta XIX. mendeko itsasaldeko gutunetan ere antzera daude gauzak: Urruñan *zeorrek* ageri da 1845ean (496) eta Ziburun *neronek* 1853an (498); nabarmena da Gipuzkoako Beterriko egungo sistema bera dela. Egungo Beskoi-

6.2.5. Destinatioan *-(r)etako & -rendako* erakoak erabiltzea —Zuberoan *-rentako*—, Nafarroako, Baxenabarreko eta Zuberoako hautu partekatutzat ja daiteke, eta gogoan har bedi Euskal Herriko mendebalean ere badela atzizki hau. Atzizkiez esan liteke, testuak zenbatenaz berriago, *-retako & -rendako*-ren agerpena hainbatenaz nabarmenago dela Nafarroa Beherean<sup>25</sup> eta esate batera, Aezkoan *-retako & -rendako* ibiltzen da, baina aldi bakan guztizko arkaismo itxuran *-rentzat* ageri da hiztunen ahoan, baina ia inoiz ere ez. Beriainen lanean ere *-(r)etako & -rendako* egiten da, eta prolatiboa da *-tzat*, Utergako 1547ko ezkon-zinean bezala; 1729ko predikuan ere *-rendako* da nagusi destinatioan, nahiz adibide batean *-(r)entzat* dakarren: *irur dañu horrosotan erorcen da estuena eguiten ongui Jaingoicarentzat guebec* (Ondarra 1981: 172); prolatiboa *-tako* egiten da idazki honetan. Baztanen *-retako & -rendako* ibiltzen da, baina Bortzirietan *-(r)entzat*; Lapurdin *-(r)entzat* ibili ohi da destinatioan eta prolatiboa ere halaxe dakarte Materrek —*Iaincotçat (...)* *eduqui behar duguna* (102-3)— edo Harizmendik: *mundutic ditutçu, princetçat bidalduco* (15).

6.2.6. Nafarroa Garaiaeren hegoaldean *\*erazan* oinarria ibiltzen zen perpaus triperpersonal ez asertiboetan, eskualde horretatik kanpo ez da inon ageri, ezta Ipar Euskal Herrian ere, nahiz ez dakigun iraganean nola zen. Gaurgero Beriainek badakar: *Cerengatic nai du dei draçogun Jaungoicoari Aita?* (1626: 128r); *Porventura naztugularic becururic eraguineraci draçaquegute?* ‘diezagukete’ (1626: 173r).<sup>26</sup>

6.2.7. Beste kasu batzuetan, garai berritik begiratzten duenarentzat desberdintasun bat dago dialektoen artean, baina diakronistak horri garai lauso zenbaitetan agertu den berrikuntzari bezala so egiten dio. Eman ditzagun lau adibide: a) ‘-(r)i dagokionez’ ideia adierazten du Beriainen *fedeas den bezanbates* (1621, 27r) egiturak edo Etxalarko 1749ko idazkikoak: *guizontasunas bezanbatean* (Satrustegi 1987: 79). Lapurdin Leizarragatik honat ibili da: *ontassunez denaz beçanbatean* (Mat, 88) eta XIX. mendeko itsasaldeko gutunetan dirau: *nitas denas becinbatian* (497). Baxenabarren eta Zuberoan ere ezaguna izan da. b) Hego-nafarreran eta Pirinioetan bezala, bokalez bukatu 6, 7, 8, 9, 11... zenbakietan atzizki banatzailea *-ra* da Nafarroa Garaiko ekialdean, Bortziriak, Malerreka eta Baztan barne; Lapurdin, Baxenabarren

---

tzen bi sail ditugu, Lapurdi aldekoa eta ekialderago jotzen duena: *nihoone & nihoor / hihoone & hihoor / guhoone & guhoor / zuhoone & zuhoor / zihooone & zihoor* (Duhau 1993: 49).

<sup>25</sup> Etxeparek nagusiki *-retako & -rendako* darabil, pertsona izenordainekin eta erakusleekin bereziki: *çuyendaco eguin ditut lurra eta çeruyac* (64); *neuretaco eztaçagut çu nolaco amaric* (112); *enetaco ohoyñ cira* (182); Etxeparek guti baliatzen du *-ren* atzizkia adiera destinatioan: *amoretan plazer baten mila dira dolore* (86); *-(r)entzat* bakan darabil; hona bi adibide: *ororençat bera baita leyal* (92); *bercerentzat gueldicen da ene çucenbidia* (136). Leizarragak bi atzizkiak zerabiltzan.

<sup>26</sup> Patxi Salaberri Zaratiegik ezaugarria Ameskoaraino hel zitekeela postulatzten du, Artatzako idazkiko *ezzarogula* lekuko (2004: 546): *etzarogula* ‘ez diezaiogula’ dakusa, *\*derazogun > \*dezarogun > etzarogula* metatesiaren bitartez.

eta Zuberoan ere halaxe da; beharko du erlazio diakroniko eta fonologiko bat egon *-ra* eta *-na* aldaeren artean. c) Kausazko perpausak era idurian egiten dira Euskal Herri gehienez, eta baita Nafarroa eta Lapurdin ere: *cerengatic Mezan bayçaude* (Beriain 1621: 31r). Lapurdiko adibidea Materrek ematen digu: *ceren partale gerthatcen baicara* (33); besterik da pentsatzea egitura hori zaharra dela. Ikusten denez, hautuek arazo kronologikoak eta geografikoak sortzen dituzte sailkapen gardenak eratu nahi dituenarentzat; hautuen hedadura geografikoaren gibelean aspaldiko berrikuntzen norabide lausoak ezkuta daitezke.

### 6.3. Ezaugarri zaharrak

Hautu minoritario eta adierazgarri batzuen kasu berezietan izan ezik, ezaugarri zahar gordeek informazio guti ematen digute dialektoek iraganean elkarrekin eduki dituzten erlazioez, horregatik, atal hau laburpen antzera dakargu. Esate batera, bi eskualdeetan ageri dira artikulatu eginkizuna duten erakusleak, moduzko *-ro* atzizkia oraindik emankor, *l-* erako *luen*, *liola* adizki laguntzaile trinkoak, *\*edun*-en trinkoak —*euzue* edo *begirauzu*—, *egin*-en trinkoak, *izan* & *\*edun* aditz trinkoak perpaus ez-aseritiboetan, moduzko *-te* eta *-ke* morfemak, *zarate* ‘zarete’ aldaera, burua hasieran duten erlatibozko perpausak, ukapen perpausen hurrenkera zaharra...<sup>27</sup> Mintzo bakoitzean ezaugarri zahar baten erabilera desberdin egin da ere: Nafarroan oro har *-ki* aldaera gorde da soziatiboan, *-n* alferra erantsi gabe (Beriain, Elizalde, hegonafrerra, Sakana, Ultzama...), baina Nafarroa Garaian ez bezala, gramatikalizatu zen *kide* hitzaren *e* horri eutsi zitzaion XVII. mendeko Lapurdiko itsasaldean, nahiz *n* erantsiz berriztatu zuten: *-kien* aldaera baliatzen zen (Zib Etx, Arg, Xur). Gerora Lapurdin *-kin* gelditu da eta horixe egiten da ondoko Bidasoalde guztian eta Baztanen ere.

Jarraian ezaugarri zahar zenbait dakartzagu, Nafarroan eta Lapurdin desberdin gorde direnak. Eta gerta liteke Lapurdiko testuetan ageri zaizkigun ezaugarri zahar zenbait Nafarroa Garaiko idazkietan ez agertzea edo guk aurkitu ez izana; hona sorta bat: *batzu* aldaera, *bitzen* ‘bizten’ & *egotzen* ‘egozten’ erako aditz izenak, *\*edin* & *\*ezan* aditzen balio asertiboa, *-kidi-* erroko adizkiak, *al-bait-* aditz aurritzia, *aillitsa* erako botiboak... Berebat, Nafarroa Garaian ez bezala, hirugarren pertsona singularreko datiboari dagokion *ka* morfema gorde-

<sup>27</sup> Leizarragarena da *leguearen hautsle aicenor* (269v) eta Beriainek *zaldionen* ‘de su caballo’ dakar eta 1729ko predikuan *neure buruau & batau eta verceau* daude / Iruñeko 1609ko olerkietan *goçoro* dago eta Beriainek *ongui, eta videro* (1626: 109r) dakar eta Axularrek *maitaro / zarate* Lapurdin (Zib Etx, 356; Hariz, 44; Arg, 4) vs. *zarete* (Leiz, Zib Etx, Ax, Arg); Xuriok, berriaz, *çaretin* (411) eta *baçaite* ‘bazarete’ & *eçaite* ‘ez zarete’ (404) bilakatuagoak ditu; Nafarroa Garaian aldatu gabe iraun du: *zarate* dakarte Beriainek eta 1729ko predikuak eta gerora ere *za(r)ate* ibili da / Deikazteluko predikuak *nasnue* ‘nahi ez nuen’ dakar (Etxaniz 1999: 496).

tzen zen Lapurdin lehen testuetan eta gerora ere iraun du, Gipuzkoako Beterrin legez: *zaizka* ‘zaizkio’ (Leiz); cf. Etxepareren *çaica* ‘zaio’ (8). Etxeparek darabilen (*h*)arren kontzesiboa, Lapurdin eta Bizkaian ezaguna dena, ez da erdialdeko autore zaharren lanetan ageri, ezta Nafarroa Garaian ere.

Hurranen hiru ezaugarri zaharrok Lapurdik eta Nafarroa Garaiak partekatzen dituzte; hauen arteko ezaugarri anitz euskararen historian euskalki guztietan egon behar izan dutenez, beren gaitasun sailkatzailea hutsaren hurrengoa da.<sup>28</sup>

## 6.4. Berrikuntzak

Lehenik Lapurdik eta Nafarroa Garaiak zeinek bere bidetik egin berrikuntzak aurkeztuko ditugu; bi herrialdeok elkarrekin hizkuntza hartu-emanik izan baldin badute, hau ez da aski indartsua izan eskualde bakoitzaren bezko berrikuntzak saihesteko edo eskualde bakoitzak auzokoekin egin berrikuntzen bidea behaztopatzeko. Hona Lapurdi eta Nafarroa Garaiko berrikuntza dibergenteen sail bat:

### 6.4.1. *Lapurdi eta Nafarroa Garaia berrikuntzetan bereiz*

#### 6.4.1.1. *Lapurdik Ipar Euskal Herriarekin berrizaturik*

6.4.1.1.1. Zaharra ez dirudien epentesia ageri da adizkia eta haren atzizkiko *e* elkartzean: Baxenabarren Etxeparek *naindeyela* dakar eta 1786ko Lanefvilleren katiximak *daitekeien*; Lapurdin Leizarragak ez dakar epentesia

<sup>28</sup> a) Lapurdin eta Baxenabarren *-tza* pluralgilea ageri da lehen testuetarik eta horien ordain *zki* dago Nafarroa Garaiko lehen testuetan, baina aldi zaharragoaren isla dirudite Etxarri Aranazko adizki triperpersonalok, oinarria \**eradun* dutenak: *dootzat* ‘dizkiot’, *dootzak* ‘dizkiok’, *dootzabie* ‘dizkiote’. Beriainek *dacazquierna* (1621: 69r) darabil pluralean eta 1729ko predikua *dacazquit* (169); aldiz, Etxeparek *daduçala* (32) eta *dacacela* (50) ditu eta Leizarragak *dadutzanac* ‘dauzkanak’ (432r) eta *drautzat* ‘dizkiot’ (276v); ondotik Materrek *dagotçanac* ‘daudenak’ (12), *çaitçanac* ‘zaizkionak’ (12) dakartza eta Argaiñaratzek *içatu ciotçateanean* ‘zizkiotenean’ (72). Baxenabarreko testuetan bederen, xviiiik honat ez da gehiago *-tza* pluralgilea ageri. b) Testu zahar batzuetan *baize* era duen eta Bizkaian *baxen* egiten den *baizen* ibiltzen zen Lapurdin: *eztut eçagutu vkan Legueaz baizen* (Leiz, 275v); baita (Zib Etx, Ax, Arg, Xur, Haraneder) ere. Nafarroan ohiz *baizik* ibiltzen da, esaterako Zufiako 1552ko ezkon-zinean, baina aspaldian bada *baize(n)* ere: *ez verçe emazeric eguïteco y vayçen* (Uterga 1547); cf. *vayce* eta *bayzi* aldaerak Zufiako 1552ko ezkon-zinean. c) Moduzko perpausetan “partizipioa + -z” ibiltzen da egun bi eskualdeotan, Axular lekuko: *batean behar da ihes eginez eta apartatuz garaitu, eta bertzean defendatuz, kontra eginez, eta borrokatuz* (xlii at.). Ordea, testu zaharretan dugu “-te + mugatzailea + -z” egitura ere: *honrratu, eta ceruizatu baytuçu egun Meza ençuteas, eta oficioac ençuteas* (Beriain 1621: 113r). Lapurdin Materrek *ceure odol preciatuaren saihetsetic issurteaz* dakar (208). Zuberoan dirau egitura honek, baina mugatzailerik gabe.

hau, baina Materrek bai: *çatequeyela*; Axularrena da *naitekeien* eta Xuriorrena *dakharqueien*.

6.4.1.1.2. Lapurdin mugagabeen jokatzeko da *bat* mugatzaile zehaztugabea (Leiz, Zib Etx, Ax, Xur) eta Baxenabarre-Zuberoetan ere berdin; Nafarroa Garaiko Beriainen lanean edo 1729ko predikuan, berriz, mugatuan, Bidasoaldean edo Baztanen bezala; ez du berrikuntza hain zaharra izan behar.

6.4.1.1.3. Lehen pertsona pluraleko datibo morfema *-ku* da Lapurdin: Materrek *zaiku* dakar eta triperersonaletan Ziburuko Etxeberri *darokuk*; Baxenabarren *zauku* darabil Etxeparek eta Zuberoan ere *-ku* dago: *çaicu* eta *dericu* darabiltza Belapeirek.

6.4.1.1.4. Aditz laguntzailea + aditz nagusia hurrenkera dakar Lapurdin Materrek XVIIIan: *ditçagun declara* (8).

6.4.1.1.5. Aditzekin alineazioan berrikuntzak izan dira Lapurdin eta Baxenabarren; Etxeparerena da *hura hala nahi valiz elgarrequi guinate* (144). Lapurdin Materrek *ioan nahi duenac* dakar (124), baina Xuriok *salbatu nahi naiz, Iauna* (96), Harizmendik *han sarcecotz behar çara, escu-bihotcez çahu* (11) eta Argaiñaratzek *hautaz behar gara bestitu arimetan* (33). Beriainek ez darabil honelako aldaketarik: *çeñetan nai içandu baiçuen ill* (1626: 98v); *joan bear dut Meza ençutera* (27r).

Gutziz berriak eta historikoak dira hurren aldaketak:

6.4.1.1.6. Ez dakigu zenbateraino errotu den Lapurdiko mintzoan, baina Baxenabarren ohi bezala autore lapurtar zenbaitengan *-xe* atzizki indargarriari *-t* erantsi zaion adibidexko batzuk aurkitu ditugu: Xuriok *hementchet* (469) darabil eta adibide bera dakarte Leonce Goihetxe urruñarrak 1852ko alegietan eta Piarres Lartzabal antzerkilari azkaindarrak XX. mendean. Nolanahi ere den, atzo goizeko berrikuntza da.

6.4.1.1.7. Ipar Euskal Herri gehienarekin berriztatu du Lapurdik aditz ez-assertiboetan analogiaz *-ki* > *-k*: *educ beca* (Hariz, 5), *iduc agun* (Arg, 19), *etçaçula iduc* (Xur, 46), *etçaçula... iharduc* (Xur, 72), *ebac atçu* (83). Ez da berrikuntza zaharra.

#### 6.4.1.2. Lapurdiko berrikuntzak

Lehen testuen garaian gaurgero Lapurdik berezko berrikuntzak ageri ditu, baina oro har ez dirudi zaharrak direnik:

6.4.1.2.1. XIX. mendea arte iraun du Lapurdin *haina* izenordain anaforikoak: erabiltzailetan Leizarraga, Ziburuko Etxeberri edo Axular aipa ditzaugu. Baxenabarre eta Nafarroa Garaian ezezaguna izan da.

6.4.1.2.2. Euskal geografian arras hedaturik egon da aditzak xedezkoetan *-tzat* hartzea eta joera honekin lotu behar dugu Lapurdiko Harizmendiren *gathocintçat* (30); ordea, “aditz izena + *-ko*” egiturak edo *-ko* duen adizlagunak *-tzat* atzizkia biltzen dute Lapurdin xedezkoak eraikitzeke, egitura hau ez da Lapurditik kanpo baliatu; Baxenabarren Etxeparek ez dakar honelako-

rik, baina lehen idazkietan lapurtar gehienek baliatu zuten: Leiz —*hartacotzat* (62r), *bidecotzat* (71r), *vkaitecotzát* (363v)— (+ Mat, Zib Etx, Ax, Hariz, Arg). Kasu atzizkiak eratzen eta orekatzen ari ziren garaikoa dirudi, ez du zaharra izan behar. Ez dakigu gerora lapurtarren ahozko mintzoan sendo iraun duen eta noiz arte; Xuriok ez dakar adibiderik, *-kotz* darabil: *hortacotz* (vij), *bethicotz* (vijj), *bicitce spiritualecotz* (27). Euskal Herriko ekialdean hedadura zabala du *-kotz*-ek, Zuberoa, Baxenabarre eta Nafarroa Garaiko erdigune-ekialdea barne: *artacotz* dakar Iruñe ondoko Ezkabarteko 1750eko agindu batek (Satrustegi 1987: 81).

6.4.1.2.3. Latinez *-tione(m)* bukaera duten mailegu zenbaiten atzizkia *-zino* da Lapurdiko testu zaharretan —*debozino, orazino*—, Bizkaian bezala; ordea, eskuin, Baxenabarren Etxeparez geroztik *-zione* ibili da, eta Nafarroa Garaian ere aspalditik nagusitu da *-zione*, Baztan eta Bidasoaldea barne; dena den, Beriainek *-zio* darabil.

6.4.1.2.4. Materrek *\*ezan*-en pluraletan *ditza-* eran dakartza guztiak: *ditçagun* (48) & *ditçan* (265), eta Leizarragak ere bai; aldiz, *detçala* (314) & *etçac* (48) era dakar Ziburuko Etxeberrik; cf. Argaiñaratz: *betça* (7). Ez dugu Etxeparegan *\*ezan*-en pluralik aurkitu; Zuberoan ere *detza-* egiten da, baina ez da ageri XVIII. mende bukaera arte, Belapeirek edo Maisterrek *ditza-* eskema ibiltzen zuten.

6.4.1.2.5. Zehargalderan *-(e)n + z* berrikuntza zegoen Lapurdin (Mat, Zib Etx, Ax, Pouy): *ea Saraco Euscara denz Euscal-herrico hoherena* (Mat, Evscaldvnei); *erradaçu lehenbivicoric, ea Guiristino çarenz* (Mat, 36); geroago atzizki gabe dakar Xuriok: *ikhusteco ea baden esparantçaric corregituco garela* (100) eta baita XIX. mendeko Urruñako gutun batek ere: *galdegin içan tu iya erreçibitu guintuen* (495). Erabilera orokorra *-nez* da eta XVIII-XIXetan hala agertzen hasi zen Lapurdiko testuetan; Leizarragak ere *-nez* ibili zuen. Etxeparek Baxenabarren *-nez* dakar eta Hegoaldean Zaraitzu-Erronkarietan *-nez* ibili da, baina Aezkoaraz gero ez da ibiltzen.

Hurranen hiru ezaugarriek arras berriak dirudite:

6.4.1.2.6. Lapurdin *behar bidean* ‘beharrean’ egitura ageri da, bertako idazle gehienak lekuko; Materrereña da *auisatu behar bidean* (32) eta Axularrereña *egotzi behar bidean* (242); 1680ko Urruñako gutun batekoa da *zuec reprenitu bear bidean authorisa ahal dezazuequella* (*Contr.*, 133); ez dago era hau Nafarroa Garaian eta Baxenabarren ere ia ez da ageri; *OEH*-k hiru lan edo idazle dakartza, guztiak berrikoak: Alfonsa Rodriguezen 1782ko itzulpena, Arbelbide Zarokoa eta Eztrenzubiko Mañex Etxamendi, biak XIX-XX-koak; haezaz landa Baxenabarren ez da batere egitura arrunta.

6.4.1.2.7. Guztiz berria dirudi etorkizuneko aditz nagusietan Lapurdiko itsasaldean bederen gertatu zen disimilazioak: *isaren* ‘izanen’ dakar Urruñako 1680ko gutun batek eta Ziburun apez zegoen Aranbillaga sortzez Ahetzekoak ere honelakoak dakartza 1684ko *Jesu Christoren Imitationea* lanean: *egoren, emaren, joaren...* Xuriok *içaren* dakar, baina adibide bakarra da (414).



6.4.1.2.8. Ez dakigu noiz sorturik, *izan* aditzaren orainean itsasaldean *-e* eragin du berranalisiak:<sup>29</sup> *gare* (Zib Etx), *zare* (Arg, Xur); cf. 1680an Urruñatik Hondarribira igorri gutunak: *gare & guare & esquare* nahiz *gara* (*Contr.*, 132-6). Ez dugu Leizarragarengan aurkitu —baina ikus Arestik zer dioen (1972: 157)— eta Sarako euskaran idazten duela zioen Materrek ere ez dakar; Axularrengan adibide bat baizik ez dugu aurkitu: *mundu haur bideaz-koen ostatua da, iragaitzaz gare hemen* (1954: 165).

#### 6.4.1.3. Nafarroa Garaiko berrikuntzak

Lehen testuen garaian gaurgero Nafarroak berezko berrikuntzak ageri ditu, baina salbuespenak salbuespen, oro har ez dirudite arraz zaharrak:

6.4.1.3.1. Nahiz XVII. mendean instrumentaleko atzizkia Nafarroan apikari egiten den, ez da adibide guztietan honela, bai baita *-z* ere: 1609ko olerki batean *nigarres* eta *eguinez* dugu; dena den, gogoan izan dezagun aldaera apikaria XIII edo XIV. mendetik lekukotzen dela. Uitzin ere 1506ko ezkon-zin batean *dudanas* eta *duquedanas* adibideak ageri dira (*FLV* 59, 1992, 57).

6.4.1.3.2. Bigarren pertsona singularrean *y-* morfema du adizkien hasierak: hedadura handiko ezaugarria da, Nafarroa Garaiko erdigune guztian, Baztanen —baina Baztangoizan ez—, Bidasoa-Bortziririak alderdian —Gipuzkoako ipar-ekialderaino gainera—, eta Pirinioetan ibiltzen da, Erronkariraino. Bestaldean Sakanaraino heltzen da, Arakilen indar handiagoa badu ere Burundan eta Etxarri-Ergoienerri aldean baino; ipar-mendebaleko ibar batzuetan ere ibiltzen da, baina ez da Leitza-Areso alderdira, Larraungo ipar-mendebalera edo Araitz-Betelura heltzen (Apalauza 2012: 349).

6.4.1.3.3. Adierazi dugu badela zaharra dirudien sistema bat Nafarroa Garaiko aditz triperersonaletan, *\*eradun*-ekin pluralgilea *tza* duena, Etxarri-Aranatzen iraun duena; orain aurkeztuko ditugun beste bi sistemak ondokoak dira. Testuen kronologiak eta saihetsetako eskualdeek salatzen digutenez, triperersonalen *\*-i-* sailean pluralgileak *zki* izatetik *it* izatera jo du Nafarroa Garaiko erdigunean: *it*-en irudia trinkoa eta batua da, *zki* han eta hemen barreiaturik ageri da, kristal hautsien eran. Saihetsetan Baztanen eta Aezkoan *zki* dago, *\*eradun*-en bitartez, nahiz Baztanen datiboa hirugarren pertsona denean *it* egiten den; ipar-ekialdean Bortzirietan gordetzailerak dira mendian bakarturik dagoen Arantza eta Ipar Euskal Herri ondoko Etxalar, *zki* dute, baina *it* dago beste hiru herrietan. Hego-nafarreran Oltzan, Goñerrian eta Izarbearren bi morfemak ditugu Bonaparteren datuetan, baina XVIIIko Estellerriko kristau ikasbide xumeetan ez dago *zki* baizik eta Deikazteluko predikuak ere halaxe dakar: *zizquire* ‘zizkidan’ (Etxaniz 1999: 496); XVIIIan Goñerriko bi idazleatarik Juan Martin Iberok *zki* dakar eta Martin Jo-

<sup>29</sup> Ikus orain Borja Ariztimuñoren lana euskal aditz jokatuaz (2013: 419).

seph Markotegik biak; XVIII-XIXan Joakin Lizarragak *it* darabil Eguesibarren eta hori dakarte bertako Bonaparteren datuek ere. Ordea, testu zaharragoetan ez da *it* ageri: *zki* dakarte Beriainek —*dizquio* (1621: 46r)—, Estellerriko Elizaldek edo 1729ko predikuak. Geografian Sakana erdialdetik eskuin erdigunean *it* egiten da egun Erroibarraino, baina ibar honetan bada *zki* ere; erdiguneko Imotzen, Basaburuan edo Ituren & Zubieta alderdian ere biak ibiltzen dira; Ultzaman, Anuen eta Esteribarren *it* baizik ez dago, Bertizaranan bezala. Datuen arabera ez dirudi berrikuntza zaharra.

6.4.1.3.4. XVII. mendean gauzaturik dago berranalisia *joan* aditzeko singularreko aldaeretan: *noaye*, *ohaye*, *doayela* nahiz *baliaye* ‘balihoa’ (27v) & *biaye consideratus* ‘bihoa’ (122r) dakartza Beriainek eta iraganean *cioayenean* (1621: 12r), baina ez dirudi gertakari zaharra, 1609ko olerkietan *doaque* & *doan* soilak ditugu. Baxenabarre eta Lapurdin ez da honelakorik: *noha*, *oha*, *doha* dakartza Etxeparek eta *oha* Leizarragak (116r) eta Materrek (242); hasperenik gabe *doa* darabil Ziburuko Etxeberrik (304).

6.4.1.3.5. *zki* pluralgileak kutsaturik edo, *eduki* aditzak osagarri plurala duenean *-i* egiten da Nafarroa Garaian pertsona guztietan: *dauzkit*, *dauzki*, *dauzkigu*... Beriainek *baytauzqui* (1621: 10v) dakar eta Goñerriko Urdozko 1687ko prediku antzeko batek *badauzqui*; 1729ko predikuan ere *dauzqui* dago. Nafarroan Aezkoa eta Zaraitzuraino iritsi da pluraleko *-zki* saila, baina Zaraitzun *dauzka*-rekin batean egiten da eta Erronkarin ez zegoen berrikuntzarik: *dazka* era egiten zen. Mendebalean Sakana erdialdean ez dago *-zki*, baina Arakilen bai eta Nafarroako erdigune guztia hartzen du, Larraungo hego-ekialdea barne; Nafarroako ipar-ekialdean ez da Bortzirietara heldu: ez dira bertan *eduki*-ren aldaera trinkoak ia erabiltzen, baina *dauzka* dago Arantzan eta Nora Iriartek eta Maite Lakarrek ez dute lekukotasunetan *dauzka* & *dauzkat* baizik bildu; gainerateko Bidasoaldean *dauzki* era egiten da: Sunbillan, Legasan, Oitzen, Donamarian edo Urrotzen. Baztanen ere ez da egiten, *dauzke* nagusi da Baztangoizan eta Basaburuan; herri bakar batean, Arraiozen *dauzki* dakar Iñaki Gamindek (1985).<sup>30</sup>

Aditzaren erroko *d* igurzkarriak gehiago iraun zuen Lapurdin Nafarroa Garaian baino, nahiz 1609ko Iruñeko olerki batek *çeducan* dakarren, *-d-* eta guzti. Lapurdiko orduko ohitura *dadutza* erako pluralgilea da eta bokal arteko *d* horri luzaz eutsi zaio Ipar Euskal Herrian: Etxeparek *daducat* (200) darabil eta *dadu-* osorik dago Lapurdin luzaz (Ax, Hariz), baina Xuriok *daoca* (378) & *daozca* (493) dakartza eta baita *baitaroca* ‘baitauka’ (263) eta *daducana* (459) aldaerak ere.

6.4.1.3.6. Mailegu berrien bukaeran *-on* dago Nafarroa Garaian Beriainen garaitik bederen: *millonac* (1626: 124v), baina argi denez ez da ezauzgarri zaharra. Baztanen eta Bortzirietan ere *-on* egiten da, baina Bortzirie-

<sup>30</sup> Paskual Rekaldek dioskunez “ez litzateke harritzekoa halakoak izatea Arraioz Orozko mintzoaren eta Baztango mintzoaren artean mugan dagoelakoz”.



tan *-oi*-rekin batera, eta Ipar Euskal Herrian bezala, mailegu zahar batzuetan *-oin* egiten da Baztanen: *arratoñe, arrazoñe, matoñe, pozoñe, sasoñe...*

Hurranen ezaugarria ez da munta handikoa, baina aipagarri da:

6.4.1.3.7. Gertakari suprasegmentalen eta fonetika sintaktikoaren ondorioa dira sinkopak, aferesiak eta apokopeak; aurkezten dugun gertakaria ez da hitzetan gertatzen, aditz laguntzaileetan baizik, eta ez dakigu xuxen morfologiarekin zein lotura eduki lezakeen: izaera enklitikoarekin duke lotura. Nafarroa Garaiko erdiguneko ibarretan apokopea gertatu da *\*ezan*-en adizki batzuetan: Beriainenak dira *bales* ‘baleza’, *bez* ‘beza’ eta *biz* ‘bitza’; mende baten buruan *balitz* ‘balitza’ nahiz *baleza* dakartza Elizalde Estellerrian, baina 1744 inguruko bertso batzuetan *balez* dago (542). Elkanoko Joakin Lizarragak *bez* darabil, Gesalatz, Izarbeibar, Oltza eta Goñerriko idazkietan legez; gerora Larraunen ere ezagunak ditugu *bez* erakoak eta Ultzaman ere *bez* dakar Ibarrek (1995: 495), Erroibarren bezala. 1872an Bonapartek *banez* dakar Aezkoan eta *baneza* Zaraitzu-Erronkarietan; aldiz, Aezkoa eta Erronkarin *beza* dakar; Zaraitzuko daturik ez dago printzearen bilduman. Baztango testuetan *beza, baleza & baneza* ageri dira eta egun ere honelaxe egiten dira beroriketan jardunez gero. Bidasoaldeko Bertizaranan *beza* dakar Narbarteko elizan agertu kristau ikasbide batek: *comunica beza* (*ASJU* 23/3, 1989: 720).

#### 6.4.1.4. Nafarroa Garaiko hegoaldeko berrikuntzak

6.4.1.4.1. Mailegu eta euskal hitz zenbaitetan metatesia gertaturik *-oi* bukaerak *-io* eman du: *arrazio* (1621: 12r) & *arracio* (56r) dakartza Beriainek eta *arratio* ‘arratoia’, *matio* ‘matoia’, *montio* ‘montoia’, *sario* ‘sarioa’ aldaerak ere aipagarri dira, guztiak XX. mende bukaeran Aezkoan bilduak.

6.4.1.4.2. Txistukari sabaiaurrekoak ordezkatu du *\*j*- hitz eta aditzetan Erronkaritik Arakileraino, Iruñe hegoaldeko ibarrak barne: Gesalatz, Izarbeibar, Eslaba alderdia, Goñerria, Olloibar, Oltza, (baita Txulapain eta Ezkabarte ere, beharbada), Eguesibar, Erroibar, Artzibar, Aezkoa, Zaraitzu eta Erronkari. Beriainek, Elizalde eta 1729ko predikuak <j> dakarte, baina 1729koan *xaquin* idatzi zen sistematikoki eta behin *xan* dakar, nahiz orduko grafia horiek fonikoki interpretatzea ez den aise; Deikazteluko predikuak ere badakar: *saquitea* “xakitea” (496).

6.4.1.4.3. *eu* > *au* bilakabideak eragin *au* > *eu* hiperzuzenketaren bidez ala asimilazioz *au* > *eu* palatalizaturik, lehen mailako erakusle pluralean (*g)ebek* dago hego-nafarreran, berri itxura duen hitz hasierako *g-* eta guzti: *euec*<sup>31</sup> & *guben* dakartza 1729ko predikuak (170-2) eta Estellerrian Elizal-

<sup>31</sup> Baina interpretazioa *ebek* da, *u* hori kontsonantikoa baita; cf. *erreuelacios* (Ondarra 1981: 171).

dek ere *ebec* dakar (9, 11, 61...); behin *obec* (60).<sup>32</sup> Hedadura hartu zuen *ebek* erakusleak: Txulapaingo Nabatzen eta 1828ko Ezkabarteko dotrinan ageri da, azken honetan *hoc*-ekin batean eta hego-nafarrera trinko batzen du: Gesalatz, Izarbeibar, Elortzibar, Goñerria, Olloibar, Erroibar, Eguesibar, Artzibar eta Aezkoan ageri da.<sup>33</sup> Euskaraz lehen mailako erakusle pluralak ageri duen itxura-aniztasunak gertakariaren berritasuna iradokitzen du; cf. Etxaide (1984: 276-7).

6.4.1.4.4. Hurranen bilakabide hau ez da hego-nafarrera guztian gertatu. Erakusle eta adizlagun frankotan hitz hasieran *g-* garatu da hego-nafarreraren eskuineko erdi guztian, Eguesibartik Aezkoaraino: *gau, gori, gura, gebek, goiek, gaiek, ge(me)n, gor, gan, gola, gala...*; aldiz, Zaraitzun eta Erronkarin *k-* zegoen: *kau(r), kori, kura, kuek, koriek, kurak & kaiek, kemen & ken, kor, kan, kola, kala...* Ez dakigu sorreran *oek > ogek > goek* metatesia gertaturik —Berriainen *ohec* gogoan— eta analogiaz paradigma guztira hedaturik sortu ote diren; ekialderago desberdinxe proposatu beharrak lausotzen du planteamendua, *okek > koek* ‘hauek’ metatesia beharko bailitzateke, non eta ez dugun proposatzen Zaraitzu-Erronkarietan berrikuntza hau bera ondotik *g- > k-* tinkatu dela; beharbada izen morfologiako euskal fenomeno orokorrago batek azaldu beharko ditu aldaerok. Jo dezagun datuetara: xv. mendekoa izan daitekeen Pater Noster txiki batean *çure gomendatu gura* ageri da (TAV, 58-9), baina gaineratekoan, 1729ko predikua arte ez dago *g-* Nafarroa Garaiko testuetan: Iruñeko olerkiek, Beriainek edo Elizalde ez dakarte eta ekialdera, Burgiko 1596 urteko sorgin auzian ere ez da *k-* ageri: *aren semeaz* (Contr., 106); Erronkariko 1612ko gutunetan ere ez omen da ageri.

6.4.1.4.5. Pluraleko lehen pertsonako izenordain indartuaren genitiboan *geuren* sortu da analogiaz, Beriain eta Elizalde lekuko, baina *eu > au* aldaketa fonikoaren bitartez *gauren* bilakatu da aldaera nagusia hego-nafarreran, Estellerritik Aezkoaraino;<sup>34</sup> Lapurdin *geure* zaharra ibili da.

6.4.1.4.6. Nafarroako hegoalde euskaldunean iraganeko adizkien aldaeretan *-n > -Ø* gertatu da; baliteke berranalisiaren bidez *zela, zuela, ginduela* erako aditzetan hiztunek *ze + -la, zue + -la, gindue + -la* ulertu izana; xvii. mendeko lekukotasunetako adizkietan aldaera *-n*-dunak eta gabeak ageri dira, baina 1729ko predikuan eta Elizalderen 1735eko dotrinan adizki guztiak *-n* gabeak dira, ez dirudi hain berrikuntza zaharra. Gamiz idazleak ere *cio, za* erakoak dakartza (Aldai 2012: 108).

6.4.1.4.7. Goñerritik Aezkoaraino bitarte alokutibo maskulinoko ohiko *k* morfemaren ordain *t* ibiltzen da; Erroibaren *k* nahiz *t*, biak ageri dira; Arakilen ere bi herritan egiten zen *t*, Urritzolan eta Ihabarren. Hona Aezkoako adibideak: *xeota* ‘zegoan’, *xeitxeidata* ‘zitzaidaan’.

<sup>32</sup> Bada *obec* Ondarrak argitaratu xviii. mendeko bertso batzuetan ere (1993: 540).

<sup>33</sup> Zaraitzura ere hedatu da; guk 1982.ean Espartzan bildu genuen. Herri berean Etxaidek *kebek* dakar (1989: 326) eta Koldo Artolak ere *ebek* bildu du Espartzan.

<sup>34</sup> Deikazteluko predikua *naure* dakar (496).

6.4.1.4.8. Iraganeko ahaleko adizkietan *-eza-* gabeko *zuke(a)* ‘zezakeen’ erako adizkiak ditugu; hona Eguesibarko ale batzuk Bonapartek Elkanoko seme Jose Javier Larraintzarri XIX. mendeko seigarren hamarkadan bilduak: *nuke* ‘nezakeen’, *zuke* ‘zezakeen’, *ginduke* ‘genezakeen’, *zukete* ‘zezaketen’. Goñerritik Aezkoaraino erabili dira honelakoak eta Deikazteluko predikua ere badakar: *in zuquea* (495).

Esan liteke arestiko berrikuntza gehienek ez dutela itxura zaharrik.

#### 6.4.1.5. *Nafarroara heldu erdialdeko berrikuntzak*

Honako berrikuntzek ez dute Nafarroa Garaian garatu diren eiterik, bertara Euskal Herriko erdigunetik heldu dira. Lehen ezaugarrian Baztan eta Nafarroako ekialdeko beste hiru herri dira Lapurdirekin doazen bakarrak, ez baitute berriztatu. Hondarreko hiru tasunetan ezagun du Nafarroa Garaia bi zati eginik dagoela eta ekialdeak Lapurdi eta Ipar Euskal Herriarekin gorde duela eta ez direla berrikuntza zaharrak.

6.4.1.5.1. Lapurdi-Baxenabarren iraun dute *\*-ani* zaharretik datozen *artzain* & *arrain* erako aldaerek; Zuberoan *-añ*. Euskal Herriko erdigunean legez Nafarroan *-ain* > *-ai* soildu da, Bidasoaldea, Bortzirriak eta ibar honetako Bera eta Etxalar barne: salbuespena dira erronkariarren *-āi* sudurkaria eta Urdazubi-Zugarramurdi, Luzaide eta Baztango *-ain*, baina Ultzaman legez, Baztango Basaburua eskualdean bada *-ai* ere Almandozen (Etxaide 1989).

6.4.1.5.2. Nafarroa Garaiko mendebalak berrikuntza egin du ablatibo pluralaren atzizkian eta *-etatik* eskuin lerratuz joan da: aldaera hori darabil Estellerriko Elizalde; Beriainek berriz, *-etatik* usuago dakar *-etarik* baino eta Nafarroko ekialdean *-etarik* ibiltzen da, 1729ko predikua edo Baztan ibarra barne. Ipar Euskal Herri guztian eta Bizkaiko eskualde batzuetan legez, Lapurdin *-etarik* dugu testu zaharretan, Materre lekuko. Egun Bortzirietan erdialdeko Euskal Herrian ibiltzen den *-etatik* dago, baina Etxalarko 1749ko predikuan *-etarik* nagusi da, nahiz *-etatik*-en adibide bat ere baden: *pensamentu gastuetaric, hiletaric & yletaric / itz gastuetatic* (Satrustegi 1987: 78-9).<sup>35</sup>

6.4.1.5.3. *-ite* erako aditz-izena ibiltzen zen Lapurdin, gerora Xuriok *-ite* & *-te* bi erak baditu ere. Nafarroa Garaian *-te* da baliatuen: 1609ko Iruñeko olerki batean *ematen* dago eta egungo egunean Baztanen *-te* dago. Ordea, iraganean Nafarroa Garaian gauzak bestela ziren: Txulapaingo 1536ko Beorburuko ezkon-zinak *yçaiteco* dakar eta Bakedanoko 1550ekoak *emayten*; Bidasoaldean *-ite* > *-tte* palatalizaziopean gorde da, hain zuzen ere, 1749an Etxalarko testuak *emaiteco* dakar (Satrustegi 1987: 79).

<sup>35</sup> Juan Bautista Sanzberro herriko apezak idatzia da, baina ez dakigu gehiago jaun honetaz. Nils M. Holmerrek *óintik* ‘oinetatik’ dakar Arantzan (1964: 53) eta 2002ko bilduman ere sinkopagatik honelako adibide ez gardenak ditugu: *bi ixkintik lotu / sagarrek dentik biltzen tzunin / denak japonese zer oitit* erakoak ditugu, baina bilduma honetako *denetatik*, *bostatikan* edo *amabitatik* adibideek erakusten dute egun Bortzirietan ziur aski *-etatik* dagoela.

6.4.1.5.4. Egun mendebalean nahiz Gipuzkoa eta Nafarroa Garaiko eskualde batzuetan \**edun*-en iraganeko pluralgilea ez da erroaren ezkerreko *it*, errotik eskuin kokatzen den *z* baizik; cf. Ariztimuño (2013: 420). Nafarroa Garaiko alderdi batzuetarik Lapurdi eta Ipar Euskal Herri guztira aldea dago honetan: Lapurdin *it* dago eta *cinituen* erakoak ditugu (Mat, 275), baina Beriainek *z* morfema dakar: *cinducela* (1621: 57r) ‘zenituela’, Elizaldek *guinduzan* ‘gintuen’ (23) eta Sunbillako ebasgo baten auzian *guinduçen* ‘genituen’ ageri da 1597an; horrela dirau orain ere Burunda, Arakilgo Irañeta, Larraun, Araitz, Leitza, Imotz, Atetz, Basaburu Handia, Ultzama eta Odieta-tako Gaskuen; iritsi, Erroibar eta Aezkoaraino heldu da, baina ez hego-nafarrera gehienera. Izan ere *it* edo horren *t* atala ibiltzen da Nafarroa Garaiko ekialdeko eskualdeetan eta saihets zenbaitetan: Arbizu edo Uharte-Arakil bezalako saihetsetan gorde da, Aranon eta Goizuetan, Iruñerri ondoko Odieta-Txulapainen eta oro har Nafarroa Garaiko ekialdean: Bortzirietan, Bertizarana, Malerreka, Basaburu Txikia, Anue, Baztan, Esteribar eta Luzaiden eta baita hego-nafarreran ere; bilakabide fonikoek desitxuraturik, baina *it* zegoen Erronkarin ere, Baxenabarren eta Zuberoan legez.

#### 6.4.1.6. *Nafarroako eta Nafarroa Behereko berrikuntzak*

Aitor bedi bi kasuetan Nafarroak eta Baxenabarrek Zuberoa ere bidaide izan dutela eta berrikuntza arras berriak diruditela.

6.4.1.6.1. Ez dakigu xuxen gauzak nola izan diren, baina xviiian oraino *duçue* dakar Beriainek, palatalizaziorik gabe; Baxenabarren Etxeparek epentesia dakar morfeman xvi. mende erdian: *çuyec vqhen vaytuçuye* (66); gerora *-zie* eman du, Zuberoan legez. Nafarroa Garaiko 1729ko predikuan *zue* > *zie* berrikuntza dago: *ziec* ‘zuek’, *nicienas* ‘nizuenaz’, *diciet* ‘dizuet’, *ducien* ‘duzuen’, *zacie* ‘ezazue’, *zazquicie* ‘itzazue’; ez luke, beraz, itxura zaharrik. Nafarroako erdigune-ekialdean ibili da: Ergoienean, Oltzan, Atetzen, Txulapainen, Ezkabarten, Odietan, Ultzaman, Anuen, Joakin Lizarragaren lanean, Esteribarren, Erroibarren, Aezkoan eta Zaraitzun ezaguna da eta Erronkarin *zue* > *zie* > *zei* metatesia gertatu zen. Aldiz, Lapurdiren orbitapeko mintzoe-tan ez da honelako palatalizaziorik, ez Baztanen, ez Malerrekan, ez Bertizaranan ezta Bortzirietan ere.<sup>36</sup>

6.4.1.6.2. Denborazko perpausetan *-nean* dakarte Beriainek Nafarroa Garaian eta Lapurdiko testuek, eta Baxenabarren Etxeparek *-nian*, baina ond-tik *-larik* agertuko da Nafarroa Garaian eta Baxenabarren; gertakari berria

<sup>36</sup> Egiiazki, Baztanen *zue* & *ze* dugu, baina aipa bedi *zue* > *ze* hori Baztanez gain arras he-daturik dagoela hegoaldean: Gesalatz, Izarbeibar, Goñerri, Elortzibar eta Eguesibarren ibili da eta Deikazteluko predikuak ere badakar: *zaze* (496). Gipuzkoako Hondarribia ere salbues-pena da: *zue* > *zie* > *zia* garapena dago bertan eta Txomin Sagarzazuk dioenez (2005: 76), [sja] usuago entzuten da bertan [sje] baino; Hondarribikoak dira *zue* eta *zute* ere.

da. Bidasoaldean, berriz, *-larik + -an > -likan* dago eta Baztanen *-larik*; aldiz, Lapurdin *-nean* ibiltzen jarraitu dute, nahiz *-larik* ere baden Xaretan edo Beskoitzen, eta zuberotarrek ere *-nean* ibiltzen dute nagusiki, baina badarabilte *-larik* ere eta Erronkarin *-nian* egiten zen, baina *-larik* ez zen ezezaguna.

#### 6.4.2. *Lapurdi eta Nafarroa Garaia berrikuntzen partekatzaile*

##### 6.4.2.1. *Berrikuntza ez eskusiboak Nafarroan eta Lapurdin*

Jarraian dakartzagun ezaugarriok gehienak aldaera zaharragoekin txandaketan ageri dira, ez dirudite antzina egindako berrikuntzak.

6.4.2.1.1. Erakusleen pluraleko lehen mailan aspaldiko testuetarik honat Nafarroan dagoen egoeraren aitzineko aldia dakar Lapurdik, monoptongatu gabeko *hauk*; haren kume *ok* ‘hauek’ aldaera dago Nafarroa Garaian eta Gipuzkoa hegoaldean; eta Baxenabarren hasperena: *hok*. Beriainek XVII. mendean nagusiki *ohec* egiten du Iruñerrian, baina behin *ohoc* (1621: 73r); Etxalarko 1749ko predikuan ere *hoc* dago (79). Lehen mailako erakusle pluralean zatiketa handia dakar *EI-k* (276-7); berrikuntzen ugaritasunak beren beran-kortasuna iradokitzen du.

6.4.2.1.2. Moduzko egituretan edo ablatiboan, korronte orokor batek *-rikan* & *-tikan* erakoak eragin ditu Euskal Herriko erdigune zabalean, inesibo alferra dutenak. Beriainek *criaturican* (1621: 93v) du —baita *emanica* (58r) ere— eta Goñerriko Urdozko 1687ko predikuak *ysilican* (Satrustegi 1987: 53); 1729ko predikuak *vaicican* (169); Etxeparek, berriz, *biderican* (214) dakar eta baditu *ixilica* eta *cerutica* ere; gerora Baxenabarren perpaus kontzesiboetan ibili da *-rikan*. Lapurdin ere ibili zen, Etxeberri Ziburukoaren *no-lacoricican* (21), *handirican* (330), *sarthuagatican* (354) edo Argaiñaritzen *deusican* (6), *mundutican* (6) nahiz *delarican* (6) lekuko.

6.4.2.1.3. Instrumentalaren atzizkia erakusleari edo izenordainari lotzean *-zaz* aldaera zaharra gordetzen da bi eskualdeetan, baina bietan berriztatu da *-taz*-era gerora: Beriainena da *ayhesas* (1621: 7v), baina *aietas* dago 1729ko predikuan (168); Lapurdin *cerçaz* (7r) dakar Leizarragak, *hetçaz* (314) Ziburuko Etxeberrik, *hartaz* Axularrek, baina *hitaz* Argaiñaratzek (15), *nitaz* (vj) Xuriok eta *goutas* & *hartas* Urruñako 1680ko gutunek (*Contr.*, 132-3). Etxeparek ere *-zaz* dakar: *harçaz* (12), baina Baxenabarreko idazkietan geroago *-taz* ageri da; 1740 urte inguruko Suarez d’Aulanen katiximan *gutaz* (22), *hotaz* (72), *çointaz* (93), *certaz* (98) aldaerak ditugu; 1786an Laneufvillek Akizeren barrutiko baxenabartarrentzat argitararazi katiximan bietarik dago: *çoinças* (21) / *hetaz* & *hotaz* (bi hauek 1740ko manamenduaren pasarteetan).

6.4.2.1.4. Jabego genitiboarekin eratu deklinazio konplexuetan ez da *-n-rik* ageri Nafarroa Behereko idazki zaharretan; bizidunen kasuko *hone-gana* (96) edo *çuyeganic* ‘zuenganik’ (64) dakartza Etxeparek; aldiz, *heen-ganicaco* dago 1740 inguruan Suarez d’Aulanek eginarazi katiximan (77)

eta Bazkazaneko 1762ko predikuek lehia erakusten dute: *harenganic* (169), *batenganic* (209) / *haregana* (209). Cazenave itzultzaile baxenabartarraren XIX. mendeko *hain ganik* eta *zien ganat* adibideak, San Mateoren ebanjelioan ageri direnak (Pagola, Iribar & Iribar, 1999: 484-5), sistema berriagoari dagozkio. Zuberoan Maisterrek *haregana* (342), *heganat* (20) erakoak dakartza XVIII. mendearen erditsuan. Lapurdin bestela dira aferak, lehen idazkietarik ageri da *n*; Leizarragak badarabil *n* hori: *harengana* (66, 114v), *harenganic* (106v) eta berdin baliatzen du Ziburuko Etxeberrik ere: *haren gana darauntsagu nola uhiñac costara* (156). Nafarroa Garaian berritzaile dira Beriain —*arenganic* (1621: 7r), *ceñenganic* (16v), *onenganic* (29v)— eta Elizalde: *arrencanic* (49).

6.4.2.1.5. Aditz-izenaren inesiboan berrikuntza izan da Euskal Herriko erdigunean gaindi, Nafarroa Garaia eta Lapurdi barne; Beriainenak dira *ercicen*, *jancicen* & *jarricen*, 1729ko predikukoa *erdechicen* ‘lortzen’ eta Elizalderenak *asicea* & *onesicea*. Lapurdin ere bada: *arazitzen* (Mat, 104), *sarraracitceco* (Zib Etx, 72) & *etsitzen* (296).

6.4.2.1.6. Aditz izenetan hala Lapurdin nola Nafarroa Garaian lehen tes-tuen garaian ezaugarri zaharretik berrira bidean zebiltzan; Beriainenak dira *ecarcen* (1621: 9v), *yxurcen* (1621: 9r) aldaera berriak nahiz *erortera* (1626: 84r); Elizaldek *erorzera* (5), *imincen* (80) berriak dakartza; Lapurdin Materrenenak dira *erabiltea* (188), *eçarten* (liburuko lehen orrietan), *ibilteco* (186) nahiz *erortcera* (84) eta *ibiltzea* (170).

6.4.2.1.7. XVIIIan bi eskualdeetan partizipio analogikoak ageri dira; Beriainek *yzandu*, *egondu*, *ybildu*, *yduquitu* dakartza eta Lapurdin *atheratu*, *egotu*, *izatu* ditugu, baina Materre batek ez dakar *izan* & *egon* baizik; Baxenabarren agerpen bakana du: *atheratu* ageri da, baina bertan ez ziren “egotu” edo “izatu” gauzatu, baina *botatu* ‘jaurtiki’ bai, Lapurdiko testu berriagoe-tan bezala; Nafarroa Garaiko hegoaldean eta Aezkoan ere ezaguna da *botatu*. Baigorriin *iatzartu* ‘iratzarri, esnatu’ ibiltzen dute. Nafarroa Garaiko eta Ipar Euskal Herriko aldaera analogikoez ez dute forma bera, baina korrante orokor berak eramanak dirudite.

6.4.2.1.8. Hirugarren pertsona pluralaren datibo morfeman badirudi *-e* > *-ote* aldaketa gertatu dela, baina ezaugarriak hedadura du, Baxenabarreko mendebaleraino heltzen da egun, Bidarrai edo Aiherraraino. Nafarroan *drahuet* ‘diet’ (1621: 40r) dakar Beriainek \**eradun* oinarrian, baina \*-i- erro tripertsonalan, ordea, *dizquiotegun* ‘dizkiegun’ (92v), *dioteçula* ‘diezula’ (57v) edo *dizquiotezun* ‘dizkiezun’ (71r) dakartza eta Nor Nori sailean *zayotena* ‘zaiena’ (44r). Elizaldek *ezconduey ematen diote* ‘die’ *gracia* (78) darabil eta Nor Nori sailean *tocacen zaizquioteney* (60). Lapurdin balirudike *e* morfemak Nor Nori sailean iraun duela gehien: Materrek *eçayela* (Evs-caldvnei) edo *deraue* (128) dakartza, Axularrek *zeiena* eta Urruñako 1680ko gutun batek *zaie* (*Contr.*, 135); Argaiñaratzek *çaien* (57) dakar, baina baita *cioten* ‘zien’ (49) ere eta Xuriok *diotet* (38) & *baguiñote* ‘bagenie’; Nor Nori-n bi aukerak dakartza: *çaiela* (41), baina *çaioten* ‘zaien’ (61) eta *çaiçco-*



*tela* (72); Gipuzkoako Beterrin bederen badira *zayote* ‘zaie’ edo *diyotet* ‘diet’ erakoak.

6.4.2.1.9. Pluralgilea *izan* aditzera hedatu zen bere garaian; Etxeparek *guirade* adibidea dakar, Leizarragak *diradenac*, Ziburuko Etxeberriek *dirade*; ez dakigu geroztik Lapurdin indarrez iraun duen; Nafarroa Garaian *garadela* dakar Beriainek.

6.4.2.1.10. Iraganeko *izan*-en Nor Nori sailean berrikuntzak eta ezaugarri zaharrak batera ditugu bi herrialdeotan; Leizarragak *-za-* gabeko *çayon*, *çayen*, *çaiçcan* zaharrak darabiltza, Axularrek *zeikan* ‘zitzaion’ & *zeizkidan* ‘zitzaizkidan’, baina Materrek aldaera zaharrak eta berriak dakartza: *ceicanean* ‘zitzaionean’ (189) nahiz *ciçaitala* (“Evscauldvunei”); Harizmendirena da *ceican* ‘zitzaion’ (40). Berebat, Beriainek era berriak darabiltza: *ciçayo* (1621: 94r) nahiz *ciçaygula* (72v), erdiguneko Euskal Herrian legez, baina Nafarroa Garaian oraindik ere bizirik diraute \**edin*-eko iraganeko Nor Nori saileko *zekion* ‘zitzaion’ erako aldaerek: Sakanan —Burunda barne—, hegonafarreran —Aezkoan izan ezik— eta Imotz, Atetz, Ezkabarte, Odieta, Ultzama eta Anuen ditugu.

6.4.2.1.11. Trinkoen iraganen *-e-* > *-a-* aldaketa aipagarri da; Beriainek *nengon*, *zegolaric*, *cebillenean* & *ceuzquien* ditu eta 1609ko olerki batean *çeducan* dago; 1729ko predikuan *ceuca* dago eta 1735ean Elizalde sistema zaharreko *cego* (30), *baizeude* (39) eta *baceuca* (38) dakartza. Leizarragak ere nagusiki *-e-* dakar eta Materrerenak dira *zegoen* eta *zeuden* eta Harizmendirena *cegoen*; ordea, Argaiñaratzek *baiçagoen* (3) & *beguira çagocala* (25) nahiz *cegoen* (5) dauzka eta Xuriok *çagoen*. Ohar gaitezen dagoeneko xvian Etxeparek *çagoen* dakarrela. Gipuzkoan ere badira iraganeko aditz formak erroan *a* dutenak eta uler daitekeenez, baita Nafarroa Garaian ere: Ultzama, Baztan eta Bidasoaldeko eskualdeetan bederen *-a-* dago.

6.4.2.1.12. Bokal asimilazioaren hasikinak ditugu \**edun* adizkietan *e-u* → *i-u* norabidean Nafarroa Garai nahiz Lapurdin; Beriainena da *cinducela* ‘zenituela’ (1621: 94v) eta Lapurdin Materrek *cinituen* ‘zenituen’ dakar (275); Etxeberri Ziburukoak *guinduen* (360) & *guindue* (362) eta Axularrek *zinitueta* ‘zenitueta’; ordea, *e-u* egitura zaharrari dagozkio Beriainen *cenduenean* (1621: 87r), Materreren *cenduena* (195) & *cenduten* (301), Axularren *zenduen* eta Harizmendiren *guenduen* (69), guztiak osagarri singularra dutenak. Gipuzkoan ere entzuten da *e-u* > *i-u* hori adizkietan.

6.4.2.1.13. Monoftongazioa dago \**edin* aditzen hirugarren pertsonetan hala Nafarroa Garaian nola Lapurdin; 1729ko predikuan *eztaitezque* (172), *albaleitez* (172) edo *leiteque* (173) badira ere, Beriainek *ditecen* (1621: 76v), *diteque* (19r) vs. *gaitecen* (10r), *çaytecen* (71v) dakartza. Lapurdin Materre dugu: *baititezque* (60), *ditezin* (116) vs. *gaitecin* (49) & *çaiteci* (231); Xurionenak dira *baditezque* (65) vs. *gaitecen* (vij).

6.4.2.1.14. Erdiguneko Euskal Herrian legez, aditz trinkoen eta tripersonalen alokutiboetan *z-* dago Nafarroan eta Lapurdin —Bardoze eta Beskoitze eskualdean izan ezik—: Etxeberri Ziburukoarenak dira *ciabillac*, *ciagoztec* /



*cioat*, *ciotçaat*; Baxenabarren —eta Baztanen ere bai— *d-* dira horiek, Etxepareren *diagoc* (18) lekuko.

6.4.2.1.15. Berriagoak dira honako berrikuntzak, Lapurdiko itsasaldeko idazleek islatu ez zituztenak, baina idazleen garaian jende xeheagoaren gutunetan ageri direnak: Urruñatik Hondarribira 1680an idatzi gutunetan epentesia dago hiatusetan: *zuben* ‘zuen’ (izord. gen.), *darotzubegouan*, *juratubak*; ikus Hondarribian Roke Jazinto Salazar 1778an: *duben*, *zuben*, *zituben*, *niñubenian*, *bazubequiñ*, *zubeç*, *zuben*. Eta Lapurdiko itsasaldeko gutunetan (1844-53) *-uba* eta *-iya* epentesiak ditugu (Egaña 1998): *adituba*, *dousoubè* ‘duzue’, *houben* ‘huen’, *nuben*, *obligatuba*, *souben* ‘zuen’ (izord.) / *amodiyò*, *cheequiyago*, *eguiyasqui*, *gusiyes*, *seriyosqui*. Bortzirietako Etxalarren 1749ko otoitz batzuetan *santubac* & *santuvan* edo *zuben* ‘zuen’ (ad.) ditugu (79) eta Lesakako 1857ko predikuetan *famatuben titulubaq*, *badidazube*, *zeben* / *guciyeq*, *aldiyero*, *beressiyaren*... epentesiak ditugu (248-9). Gertakariok guztiz arruntak dira euskaran eta beregainki sor litezke han eta hemen, baina ezaugarri honetan bederen, Nafarroako Bidasoaldea, Lapurdiko itsasaldea eta Gipuzkoako ipar-ekialdea geografikoki loturik daude.

6.4.2.1.16. XIX. mendeko gutunetan adizki triperzonalak beharrez Nor Nork saila baliatzen da, Ziburuko 1847ko honetan bezala: *Jaincoac olaco seguida eman hau hire Yenden socorritçeco* (497); *gastigatuco nauc comoitattia duquenian* ‘jakineraziko didak ongi heldu zaianean’ (496); bestela jokatzen zuten ordura arteko autoreek, Xurio lekuko: *adituco dut Jainco launac ene bihotçaren barrenean erranen darotana* (181). Nafarroa Garaiko Bidasoaldean bada gertakari hau egun, *erran zattut* ‘esan dizut’ erakoak daude; aldiz, Gipuzkoako Beterrin *esan nau*, *eman naskitzu* ‘eman iezazkidazu’ erakoak ibiltzen dira, baina *dizut* egiten da beti triperzonaletan, ez “zaitut”. Nolanahi ere den, argi dago berrikuntza honen eskualdea murrizta dela eta ez dirudiela zaharra; itsasaldera, Lekeition ere egiten da *nau* triperzonal beharrez; cf. Zelaieta (2005: 291).

#### 6.4.2.2. *Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko berrikuntzak*

6.4.2.2.1. Zaharra dirudi eta nonahi ager daitekeen berrikuntza da, baina bereziki Ipar Euskal Herrian eta Bidasoa-Baztan alderdian ageri da *on* > *un* aldaketa.

6.4.2.2.2. Baztanen *x-* egiten da hainbat hitz hasieratan, Lapurdi eta Baxenabarren bezala: *xixtor*, *xoko*, *xori*... Ez dakigu Bortzirietan maila bera dagoen, baina erdialdeko euskararen aldean nabarmen maiztasun handiagoa du: *xe* & *xetu*, *xilko*, *xingar*, *xistor*, *xistu*, *xori*, *xulo*, *xuri*, *xurixua*, *xurruxta*... (Iriarte & Lakar 2002).

6.4.2.2.3. Gertakari suprasegmentalen eta fonetika sintaktikoaren ondorioa dira sinkopak, aferesiak eta apokopeak eta sailkapenari begira ez dira aise erabiltzeko modukoak; izan ere, eredu suprasegmentalak guztiz zatiturik

daude Euskal Herrian, dialektalizaturik, itxura aski berria dute; azentu eredu ondoriotz sinkopa ereduak ere bat baino gehiago dira. Egungo datuen arabera Nafarroa Garaian indar handia du sinkopak, baina Lapurdira ere hedatzen da eta Baxenabarren ere sinkopak ageri zaizkigu, Nafarroa Garaian bezainbat agerpen ez badute ere. Aferesia ere bada Nafarroa Garaian, Baxenabarren bezala; herrialde honetan Baigorri eta Amikuzen ageri da eta erdiguneragoko ibarretan ere aferesia dago Nafarroa Beherean. Juan Beriain nafarraren lanean nabarmena da sinkopa: *atra*, *bapedra*, *bedraci*, *braço*, *dramanean*, *maindre*, *obrenac*. Lapurdin gertakaria bakanagoa da: *abre* ‘aberea’ aldaera idazle anitzen lanean ageri da, baina Leizarragak sinkopa gogotik baliatzen du: *abrats*, *abrastu*, *abre*, *batre*, *bedratzi*, *noizdrano*, *oraindrano* eta Nor Nori Nork erako adizkietan *dera* -> *dra*-: *drautak* ‘didak’, *drauat* ‘diat’, *drauka* ‘dio’, *draukat* ‘diot’, *drautzat* ‘dizkiot’, *draue* ‘die’, *drauzuet* ‘dizuet’. Gerora ere, Beskoitze eta Bardoze alderdi horretan sinkopa indartsu agertu da (Duhau 1993: 18-9). Axularrek, Harizmendik eta Etxeparek ere badute ale zenbait: *batre* & *batere*, *andre* & *andere*. Dena den, gaia hobeki aztertzeko dago: esate batera, *aberastou* ageri zaigu Ziburun 1845eko gutun batean, sinkopatu gabe, eta bestalde, Lapurdiko itsasaldeko azentuera ezkerretik hasirik bigarren silaban kokatzen baldin bada —cf. § 6.4.2.3.1 eta Mitxelena (1972)—, *abrats*, *abrastu*, *abre*, *batre*, *bedratzi* erako Leizarragaren adibideek azalpena behar dute; beharbada Leizarraga beskoiztarrak eta itsasaldeko hitzunek ez zuten azentuera bera eta horregatik *aberastu* itsasaldean vs. Leizarragaren *abrastu*.

Gogoan izan bedi Nafarroa Garaian bi sinkopa eredu ditugula, Bidasoa alderdikoa eta Nafarroa hegoaldekoagoa: Mitxelenak Esteribarko Eugikoa 2] eta Bidasoaldekoa [2 alderatu zituen 1972an (119) eta Edu Zelaietak ere argitu du gaia (2008: 99): Bidasoaldeko *txokolte*, *abistu*, *deskanstu*, *abilna* ‘abilena, iaioena’, *apuntu*, *irauzi* ‘irabazi’, *illaute*, *eskautu* ‘eskapatu’, *kalauza* ‘kalabaza’, *arrautu* ‘harrapatu’, *eraun* ‘eraman’ ez dira Beriainen lanean ageri den eredu bera; denborari berea zor zaio, baina ereduak ez dira berdinak, Bidasoaldekoa ezkerretik hasten da. Bidasoaldeko sinkopa bertan eta Lapurdiko itsasaldean erabili izan den azentu ereduari baitezpada loturik ageri zaigu; ikus eredu honetaz § 6.4.2.3.1.

6.4.2.2.4. Ehunen aitzineko zenbaki handietan berrikuntza gertatu da Ipar Euskal Herrian eta Nafarroa Garaiko ekialdean, Erronkarin izan ezik. Esate batera, Axularrek bi eruedetarik dakar: *hirur hogoi*, *laur hogoi* & *lauretan hogoi*; Baxenabarren Alfonsa Rodriguezen itzulpenean *lauretan hogoi* dugu (1782); XVIII. mende bukaeratik hasten dira Ipar Euskal Herrian *hiruretan hogoi* erakoak agertzen. Nafarroa Garaian sistema zaharraren zantzuak ditugu: *yruroguey et amaui* dugu xv. mendeko gutun batean (*Contr.*, 76) eta Beriainen *lauroguey eta emereci* (1621: 42v) dakar; aldiz, Joseph de Elizalde Mexikotik 1699an igorri gutunean sistema berria dago: *milla eta seietaun eun eta lauretan oguei eta emerezi* (*Contr.*, 139). Elkanoko Lizarragak *irurogeitamar* darabil, baina egungo Aezkoan *iruetanogei*, *lauretanogei* erakoak ibiltzen dira.

6.4.2.2.5. Lapurdiko orduko testuetan *-ek* da ergatibo plurala eta Nafarroan Beriainek, 1729ko predikuak eta Elizaldeek ere *-ek* dakarte, baina XVIII. mendeko Gesalazko Mz. de Morentintarren idazkietan *-ak* dago. Datiboan *-ei* dugu Nafarroa Garaian eta Lapurdin, baina ekialdean *-er* sortu da, Etxepare lekuko. Beriainen lanean *-ei* da; ordea, *-egi* dago Goñerrian, Izarbeibarren eta Gesalätzen XVIII. mendean eta Elkanoko Lizarragaren lanean; honezaz landa, Goñerrian eta Gesalätzen singularrean ere bada *-gi*; mendiaz bestaldera Ergoienean ere *-gi* dago *aigi* ‘haiei’ eta *oigi* ‘horiei’ erakusleetan eta baita genitiboan ere: *aigen*, *aigena*.

6.4.2.2.6. Izenaren osagarrian *-(ta)ko* ageri da bi eskualdeotako testuetan: Beriainena da *eta adimentu gutitacoric* (1621: 16v) eta 1729ko predikukoa *abisu bat importacio handitacoa*; Deikazteluko predikuan: *guizon ein espiritu malignotacoa* (495-6) dago. Lapurdin, berriz, Materrean liburu sarreran P. de Gvilantena izenekoak *Euscaldun guztiençat probetchu handitacoa* dakar.

6.4.2.2.7. Aditz nagusia eta laguntzailea lotzean metatesia gertatu da: Etxeparerena da *ezarteyntu* (128), Axularrena *egiteintu* eta Harizmendirena *bidalceintu* (80). Nafarroa Garaian ere arrunta da jokabide hau; Zaraitzun bada eta hego-nafarreran ere bai: Aezkoan, Eguesibarren, Oltzan, Izarbeibarren eta Estellerian ageri zaigu; Arakilen ere bada eta goiti Bidasaldeko Bortzirietan.

6.4.2.2.8. Itxuraz analogia jasanik, aditzetako iraganeko trinkoek pluraleko lehen eta bigarren pertsonetan erroaren aitzinean *gin-*, *zen-* & *zin-* dute Lapurdin: *baiquineunden* (275v) dakar Leizarragak, Materrek *ceneundela* (197) eta Axularrenak dira *zenenbiltzanean* & *zeneunden*; Argaiñaratzena da *ciñaducan* (59) eta Xuriorena *ceiñabiltçala* ‘zenbiltzala’ (488). Singularrean, berriz, *ezpanengo* dakar Etxeparek eta *nengoen* darabilte Leizarragak, Axularrek, Pouvreaux eta Gazteluzarrek; aldiz, iraganean *cenaudela* ‘zeundela’ (186) dakar Etxeparek. Ez dakigu eredia lehenik pluralean gertatu ote zen eta bertatik gero singularrera iragan, baina Nafarroa Garaian eredia singular eta pluralean dago: *nind-*, *hind-*, *gind-*, *zind-*.<sup>37</sup>

6.4.2.2.9. \**ezan*-en pluraletan *it* pluralgilea beharrean *zki* ibili da; Leizarragak badakar berrikuntza: *ikusquique ficotzea eta arbore guciac* (150r); aldiz, Materrek *errecebi itçaçu* dakar *Iracvrcaileari* pasartean, baina gerora ere lekukotu da Lapurdin: *iKhusquitçu* (88) darabil Argaiñaratzek eta *harzquitçu* (270) Xuriok; gerora Lapurdiko barnekaldean ibili da. Baxenabarren ere erruz ibili da, nahiz Etxeparek —*diçagula* (48)— eta B. Etxauzek —*ygor*

<sup>37</sup> Esate batera, *giñauden* dugu Larraungo Oderitzen eta *nindabillén* bildu du Iruñe ondoan Koldo Artolak Ezkabarteko Anotzen (107). Basaburu Txikiko Beintza-Labaienen *niñagon*, *ziñauden*, *giñauden* bildu ditu Zelaietak (2008: 92); Aezkoan *nindeo*, *gindoude*, *zindoude*, *zindouzte* jokatzeko da, baina Hiriberrin *nengo* ere bada lehen pertsonan. Zuberoan Belapeirek ez dakar lehen eta bigarren pertsona singularreko adibiderik, baina Inxauspek *nindagon*, *hindáyon*, *gináunden*, *zinaundén*, *zinaundian* dakartza (1858: 451).

*yçaçu* (TAV, 155)— ez dakarten oraino, baina Garaziko XVIIIko testuetan eta XIX. mendekoetan (Donamartiri, Donapaleu, Baigorri) bada. Zuberoan ez da honelako berrikuntzarik gertatu, baina Nafarroan berritzatu da. Beriainek *itzaçu* (1621: 76v), *diçan* (76r), *dizagun* (45v) dakartza, baina 1729ko predikuan *escucha zazquicie* (171) eta *norc erran lezqui* (170) ditugu eta Elizaldek *dezazquigun* (7) & *erranzquizu* (29) darabiltza; berrikuntza Sakanatik Zaraitzuraino heltzen da.

6.4.2.2.10. Lapurdin XVIIIan afrikaturik daude bigarren pertsona singular eta pluraleko ergatibo eta datiboaren *-tzu* & *-tzue* morfemak. Leizarragak afrikaziorik ez badakar ere —*zaizu* vs. *zaizkizu*, *duzue* vs. *dituzue*—, Etxeparek Nor singularrean ere afrikaturik dakar: *irudi baçautzu* (6). Ziburuko Etxeberrik *ene othoitçac etçatçula arbuia* (64) dakar osagarria plurala denean, baina singularra denean afrikatu gabe: *visaia aldara etçaçula bercera* (62). Materreren jokabidea konplexua da: *baicaitutçu* (330) egiten du, baina igurzkari dakartza pluraleko *dituçuna* (263) eta *dituçuenac* (305), nahiz afrikaturik dakartzan singularrekoak: *esquer derautçut* (292) & *iduritzen ba-caitçue* (362-3); berebat, Harizmendik eta Axularrek singularrean *zaitzu* ibiltzen dute eta Sarako apezak pluralean *ditutzun* & *derauzkitzun* darabiltza; haren pluraleko *darabiltzatzun* adibideak analogiaren aukera edo balizko bide bat erakutsi lezake.

Lapurdiren orbitapeko Nafarroa Garaiko ibarretan ere bada hau, baina bereziki datiboan sumatzen da, ergatiboan ez; nolana ere den, leku jakinetan egiten da, ez du hedadura handirik. Singularreko *zaitzu* & *zaitzue* Bortzirietan Bidasoaz eskuineko Bera eta Etxalarren nahiz ezkerreko Igantzin ditugu, baina Sunbillan, Malerrekan eta Bertizaranan ez; Baztangoizan ere afrikatu hauek ditugu singularrean Elizondoraino, Amaiur, Azpilkueta eta Arizkun barne, baina Arraiozen edo Anizen ez; pluralean *-tzu*, *-tzue* izatea hedatuago dago, arestiko herriez landa, Lesaka, Arantza, Sunbilla, Ituren, Aniz edo Arraioz aipa daitezke. Ergatiboari dagokionez eskualde guztian *tuzu* & *tuzue* edo *ttuzu* & *ttuzue* daude, Baztango *tuze* ‘dituzue’ barne, hauetan ez dago afrikaziorik. Ez bedi ahantz pluraleko *zaizkitzu* & *zaizkitzu(t)e* era Gipuzkoako Beterrin ere ezaguna dela. Baxenabarreko sistema Lapurdikoaren iduria da, baina ibar guztietan ez da bat eta bera.<sup>38</sup> Zuberoan gauza jakina da *tz* morfema pluralgile gardena dela: *zaizü*, *zaizie* (sing.) vs. *zaitzü* ‘zaizkizu’ & *zaitzie* ‘zaizkizue’ eta Nor Nork-en ere berdin: *düzü* ‘duzu’ vs. *tützü* ‘dituzu’ eta *düzie* ‘duzue’ vs. *tützie* ‘dituzue’; are sail triperpsonalean ere: *deizüt* ‘dizut’ vs. *deizüt* ‘dizkizut’ eta *deiziet* ‘dizuet’ vs. *deiziet* ‘dizkizuet’.

<sup>38</sup> Adibideok erakusten dute aldakortasuna: Iholdi (Arberoa): *zautzu* / *zauzkitzu*, *zautzie* / *zauzkitzie* eta Nor Nork-en *duzu* / *tuzu*, *duzie* / *tuzie*. Jutsi (Oztibarre): *zauzu* / *zauzkitzu*, *zauzie* / *zauzkitzie* eta Nor Nork-en *duzu* / *tzu* & *ditutzu*, *duzie* / *tutzie*. Suhuskune (Garazi): *zauzu* / *zauzkitzu*, *duzu* / *tzu*; goiti Amikuzeko Zohotan, berriz: *zauzü* / *zautzü*, *zauzie* / *zautzie* eta Nor Nork-en *düzü* / *tützü*, *düzie* / *tützie*. Banka (Baigorri): *zauzu* / *zaizkizu*, *zauzi* / *zauzkizi* eta Nor Nork-en *duzu* / *tuzu*, *duzi* / *tuzi(i)*.

6.4.2.2.11. Bi eskualdeotan ordezkatu du *etorri* aditzaren sail trinkoa (*h*)eldu izan perifrasiak, baina lehen testuetan egoera zaharra dago: *ez jaquitic dator ambat calte* (1621: 125v) & *nondic zatoz* (113r) dakartza Berriainek XVIIan, baina *eldu baita* 1729ko predikuak (170).<sup>39</sup> Elizaldeki biak dakartza Estellerrian: *adina datorreneco* (64) nahiz *nor eldu den sacramentuan* (76). Lapurdin Ziburuko Etxeberri *arranoa dathorreño choriac dic cantatcen* (160) dakar eta Harizmendik *dathorren menderaino ez naiz escastuco* (81). Axularrek baditu *heldu*-ren perifrasiak: *handik heldu diren kalten...* (240) baina hona Xurioren bat: *dohatsu cerbitçaria (dio San Luc Evangelistac) jauna heldu denean atçarria edirenen duena* (84).

6.4.2.2.12. Ez dakigu berranalisiak eraginik ala analogiaz, *nabila*, *habila* & *yabila* eta *dabila* aldaerak ageri dira gure eskualdeotan *ibili* aditzaren singularreko oraineko trinkoetan; ez dirudi hain jokaera zaharra Nafarroa Garaian, izan ere, XVII. mende hasieran Iruñeko 1609ko olerkietan *dabil* & *dabilla* dakartza Ioan de Elizaldeki (*TAV*, 115-6), eta Berriainek 1621ean *badauil* (93r) darabil oraino; 1744 inguruko bertso batzuek ere *dabil* dakarte (Ondarra 1993: 541). Hedadura zabalekoa da ezaugarria, Ergoienetik Arakilen barrera, Nafarroako erdigune guztia, Txulapain barne, eta ekialde ia guztia harapatzen du Zaraitzuraino, baina Erronkarin *dabilenaren* dugu testuetan, aldaera zaharra. Goiti, Larraun, Araitz, Areso-Goizueta, Bortzirriak, Bidasoaldea eta Baztan berritzaile dira (Gaminde 1985); Lapurdin XVI. mendeko gertatu da berrikuntza, Leizarragaren *nabila*, *abila*, *dabila* lekuko, baina Garazin Etxeparek *dabil* (52) dakar, nahiz XVIII. mende bukaeran Alfonsa Rodriguezen itzulpenean *baithabila* dugun —baina *dabilen*-ekin batean— eta XIXan ere *dabila* & *dailen* bitasuna ageri da Baxenabarreko kristau ikasbideetan. Badakigu Zuberoaraino heldu dela; Belapeirek ez dakar aditz hau, baina Maisterrek XVIIIan eta Inxauspek XIXan aldaera berriak dakartzate.

6.4.2.1.13. Nafarroa Garaian —baina egun Leitza alderdi horretan *dot*-en salbuespena dago— eta Lapurdin, *\*edun* aditzaren *dut* erako aldaerak ibiltzen dira, Baxenabarre eta Zuberoan legez. Ezker, Araban ere ezaguna da *dut* emaitza: Zigoitian ibiltzen zen eta Aldaik dakarrenez Arabako erdigune, hego eta ekialdean: “debió de llegar como una innovación tardía al centro-sur-este de Álava” (2012: 107).

6.4.2.2.14. Berrikuntza berankorra da aditz nagusiari *-ki* atzizkia lotzea, Lapurdin Argaiñaratz arte ageri ez dena: *lurrac ioaqui lurrera* (63); egun Lapurdin, Baxenabarren eta Nafarroa Garai gehienean ibiltzen da. Nafarroan balio hanpatzailea arras hedaturik dago, baina erdiguneko eta ekialdeko nafarrek diosal egiteko ere ibiltzen dute. Baxenabarren eta Lapurdin aski arrunta da aditzean puntukaritasuna adierazteko eta balio hanpatzailea ere ematen du Lapurdiko barnekaldean; Bortzirietan balio puntukaria Bera eta Etxalarren

<sup>39</sup> *Bigarren punturaco veiar dugu aduertitu nola eldu baita eraicioaren bilcea eta amarrren primicien eguiteco dembora, anicec eguiten tustela becatu mortaleac eta andiac ez ongui eguiteas Javn Goicoaren zor gueben paguac* (Ondarra 1981: 170).

du, gainerateko hiru herrietan hanpatzeko eta diosal egiteko darabilte. Baztanen diosaltzat eta hanpatzailatzat ibiltzen dute, baina puntukaritzat Baztan-goizan, Zugarramurdin eta Urdazubin; ñabarduretarako cf. Iñigo, Salaberri & Zubiri (1995).

Ageri denez, hondarreko sail honetan ikusi ezaugarri gehienak aski berriak dira.

#### 6.4.2.3. *Nafarroa ipar-ekialdeko eta Lapurdiko berrikuntza eskusiboak*

Isidore Dyen-ek dioen legez, “the total weight of the coincident innovations of one subgrouping could be regarded as inversely proportional to the sum of the probabilities that these innovations were common” (1978: 49); ez da zertan esan bilatzen ditugun berrikuntzei so egiterakoan erne jarrazten gaituela honek.

6.4.2.3.1. Azentueran batasuna dago Lapurdiko itsasaldearen eta Nafarroa Garaiko ipar-ekialdearen artean; Bidasoaldean Bortzirietarik Basaburu Txikiko Beintza-Labaieneraino bederen, [2 azentua ibili da, hitzaren ezkerretik abiatu eta indarra harturik bigarren silaban kokatzen dena; Donibane-Lohizunen XVIII. mendearen bukaeran sortu Pierre Urte Kamino idazlearen testuetan ere azentuera hau ageri da, baldintza bat erantsirik, ordea: azentuak hondarreko hiru silaben barranean kokatu behar du. Koldo Mitxelenak (1972: 118) Bidasoaldeko azentueraren hurren urrats diakronikotzat jo zuen Urterena, ezaugarri hauek dituena: paradigmaticoa da, erroaren bigarren silaban kokatzen da eta ez ditu kasu atzizkia, definizio maila eta numeroa aintzat hartzen; hitz fonologikoak (hitza + atzizkia) lau silaba baino gehiago dituenean, litekeena da azentua azkenurreko silabatik ezkerreara ez lerratzea; honelako hitz luzeetan ezkerretik hasirik bigarren silaba ez da azentuduna. Nolanahi ere den, zaku berean sartzen ditu Mitxelenak Lapurdi itsasaldeko eta Nafarroako Bidasoaldeko azentuera. Azentuerek arras zatitzen dute Euskal Herria, ez dira gertakari zaharrak.

6.4.2.3.2. Aipagarri da *eu* diptongoa, gure eskualdean bi hitzetan monoptongaturik dagoena, beraz, emankortasun gutiko ezaugarria da, eta hedadura-eremu desberdina du aldaera bakoitzak, gainera; arazoa da hau biak fenomeno beratzat jo nahi dituenarentzat eta kronologikoki ere gaia ez dago argiago, testuak agertu aitzineko datuak falta ditugunez; nolahi ere den, biak ezker eta eskuin hedatu baitira, sorburua Lapurdiko iparraldean dutela dirudi. Leizarraga-Axularrek monoptongaturik dakartzate Lapurdin, baina Nafarroa Garaiko datu zaharrak ez dugu; Beriainek ez dakartza hitzok.<sup>40</sup> Aur-

<sup>40</sup> Gipuzkoan XVIIIan eta Pirinioetako Zaraitzun XX. gizaldiaren bukaeran *eutzi* aldaera dugu, Etxeparek legez; Zuberoan *eitzi* dago XVIII arte eta beharbada baita XIXan ere; *eitzi* dago Erronkarin XIX eta XXan; Nafarroa Garaian bada *iutzi* testuetan eta Bizkaian *etxi* XVI-XVIIIan eta Laudion XIXan. Hauen tankerakoa da *euskara* ere, \**enus-* oinarria baldin badu, bederen, Etxe-



kezten ditugun Nafarroako datuak XX. mende bukaerako *EAEL* eta *EHHA* atlasen emaitzei dagozkie: *uri* aldaerak Bidasoalde guztia —Donamaria barne—, Baztan, Zugarramurdi eta Lapurdi gehiena lotzen ditu: bertan, itsasaldea eta barreneko aldea dira *uri*-ren erabiltzaile —Mugerre, Beskoitze, Urketa, Uztaritze, Itsasu eta Bidarra barne, baina Arrangoitze, Hazparne-Makea eta Bardoze salbu—; Baxenabarren ez dago *uri*-rik, *euri* ibiltzen dute, baina Bidarra salbuespena da, *uri* esaten dute. Zuberotarren *ebi* aldaerak diptongoak iraun duela erakusten digu: Egiategik eta Inxauspek *euri* darabilte, *Charlemagne* pastoralean *ebri* dago eta Etxahunek *ebi* dakar. Aldiz, *uli* aldaerak hedadura handiagoa du: Lapurdi guztian eta Baxenabarren ibiltzen da eta Zuberoan ere *ü*- dago. Nafarroa Garaian ere zabal dabil, izan ere, Bidasoaldeaz eta Baztanez gain, erdigune guztia harrapatzen du: Luzaide, Erroibar, Artzibar —*auli*-rekin batean— Esteribar, Txulapain, Ultzama, Atetz, Imotz, Larraun eta Basaburua. Gainerateko saihetsetan falta da: Sakanan, Araitzen, Leitza-Ezkurra-Goizueta lerroan eta Aezkoa-Zaraitzuetan.

6.4.2.3.3. Lapurdin pluraleko erakusle genitiboa absolutiboko aldaeraren gainean eraiki da, Materreren adibideok lekuko: lehen mailan *hauk* (abs.), *hauken* (gen.), baina inesiboan *hautan* / bigarrean ez da gertatzen: *horiek* (abs.) / hirugarren mailan *heken* (gen.), baina *hei* (dat.). Materrek legez, Axularrek genitiboan *hauken* eta *heken* dakartza, baina esaterako, datiboan *hau* eta *hei* eta genitibo lokatiboan *hautan* eta *hetan*; Xuriok *haukien* eta *hekien* dakartza genitiboan (359), eta baita *heien* (441) ere; soziatiboan *hequiequiñ* (127) eta destinatiboan *hequientçat* (440) dakartza, nahiz datiboan *hei* (363, 440) eta inesiboan *hautan* (448) eta *hetan* (441) dituen. Aldiz, XIX. mendeko idazkietan zehar kasu gehiagotara iritsi da analogia Lapurdin, Nafarroan iritsi den mailara, hain zuzen ere: datibo, soziatibo, destinatibo, instrumental, inesibo edo ablatibora. Nolanahi ere den, ez dirudi analogiaren hedadura aurrehistorikoa denik; Leizarragaren 1571ko liburuan erakusleak ez dira analogikoak zehar kasuetan, balirudike beskoiztarrak idazten dituen aldaerak berrikuntza gertatu aitzinekoak direla: *hauk*, *hauai*, *hauen*, *hautarik* lehen mailan eta *haei*, *hayen*, *hekin*, *hetan*, *hetako*... hirugarrean; beharbada, zuberotar artean egonik ez zituen islatu nahi izan, zail da haren euskararen hainbat ezaugarri interpretatzea: Lapurdin analogia hau XVI. mende aldera gertatu zela uler liteke? Ez jakin.

Nafarroan ere bada gertakari hau, nahiz testuen aldetik gabezia gehiago dagoen Lapurdin baino. XVII. mende hasierako Beriainen Iruñerriko liburuetan ez dago analogiarik: *gauza ohoc* / *ohoc* / *ehoc* dira aldaera absolutiboak, eta inesiboan *ohetan* & *ayhetan*; ondoko garaian absolutiboan oinarritzen dira erakusleen zehar kasuak Nafarroa Garaiko Erdiko eta ipar-ekialdeko al-

---

pareren *heuscara* gogoan: Lapurdiko itsasaldean *eskara* dago, Ziburuko Etxeberri, Harizmendi edo Darreche 1720ko Ziburuko erretora lekuko, baina Materrek *euskara* dakar eta gainerateko Lapurdin *eskuara*, Baztanen legez. Bortzirietan *uskara* & *euskara* da, baina Etxalarren *uskara*, hego-nafarreraz edo Zuberoan bezala.



derdian, hau da, Imotz, Ultzama, ipar Esteribarko Iragi eta Eugi, Baztan, Bortzirriak alderdian gehi Gipuzkoako Irun-Hondarrribian; inesiboa *oketan* da Imotzen (Apalauza 2008: 94) nahiz Ultzaman (Ibarra 1995: 328); Ultzamaokoak dira *ok* & *okek* (abs. nahiz erg.), *oken* (gen.), *okendako* & *okentzat* (dest.), *oketako* (gen. lok.)...; Baztanen hirugarren mailan *eki*, *eken*, *ekena*, *ekendako* ditugu (Salaburu, Lakar (lag.), 2005: 68) eta Bruno Etxenikeren itzulpenetan lehen mailako *oken* (gen.); datiboan *oki* dago Baztango testuetan. Erakusleen bigarren mailan Irungo dotrina batean *oyeki* datiboa dugu. Hondarribia, Irun eta Bortzirietako eskualdean izen arruntean ere gertatzen da pluraleko jokabide analogiko hau; Hondarrribian datibo, genitibo eta destinatiboan: *katúakeri*, *katúaken* eta *katúakentzat* (Hualde & Sagarzazu 1991: 141). Holmerrek honelakoxeak bildu zituen Nafarroako Arantzan, Bortzirietan (1964); cf. Zelaieta ere (2008: 109). Ordea, Nafarroa Garaiko saihets gehienak berrikuntza hau gabe ageri zaizkigu: ipar-mendebalean, Areso-Leitza nahiz Arano-Goizueta alderdian, hego-mendebalean Sakana eskualdean, eskuineko saihtesean Aezkoan, eta oro har hego-nafarreran ez dira erakusleen aldaera analogikook ibili. Egiatzki, hedadura geografiko erdiguneko eta iparrekialdeko honek eta xvii. mende hasierako Beriainen liburueta leku-kotasun ez berriztatuek guztiz zailtzen dute Nafarroa Garaian berrikuntza zaharra delako interpretazioa. Erakusleen zehar kasu analogikoez Lapurdi eta Nafarroa Garaia geografiaren aldetik elkartzen dituzte, eten geografikorik gabe, eta berrikuntza eskusibotzat ere har liteke gure hau, baina Nafarroa Garaian ezaugarria ez da herrialdeko saihtesetara heltzen eta Baxenabarre-Zuberoetan ere falta da. Ez dakigu xuxen noizko berrikuntza den, baina ez dirudi zaharra.

6.4.2.3.4. Ñabardura geografiko-kronologiko anitzen beharra badu ere, *nior*, *nion*... izenordain zehaztugabeen saila ere aipagarri da. Nafarroa Garaian ekialdean iparrean eta erdialdean ibili da edo ibiltzen da, baina ekialdeko hegoaldean ez. Esate batera, erdialdean, Ezkabarte ibarreko Orrioko 1750eko gutunean *nior*, *nioiz* eta *niolataco* ditugu (Satrustegi 1987: 81) eta Ezkabarteko 1828ko dotrian *nior* (381); Iruñe ondoko Txulapaingo Nuin herriko 1826 inguruko testu batean ere *nior* dago (Ondarra 1982: 396). xx. mendean Ezkabarten *ñior* ‘inor’ bildu da eta Odietan *ñok* ‘inork’ (Artola 2001: 503); berebat, egun Ultzaman *nior* & *inor*, biak ageri dira (Ibarra, 1995: 325); Anuen eta Esteribar gehienean *iñor* dakar Etxaidek (1989), baina Eugin *nior* eta Erroibarren ere *nior*, *nion* sistema dago. Auritzen *nior* eta Luzaiden *neor* bildu dira (Etxaide 1989). Aezkoa-Zaraitzuetan *n-* gabeko *yor*, *yon* era egiten da, baina hegoalderago xix-xxetan Eguesibar eta Artzibarren *n-* sistema ibiltzen zen. Hego-nafarreran *ior* & *igor* era nagusi da Goñerrian edo Izarbarren; Gesalitzen *inior*, *iniolako* dugu Muzkiko testuetan, baina Elizalde *ior* & *yor*, *yon* zerabiltzan (1735), Beriainek bezala (1621); Sakanan *iyor* ibiltzen da, baina Arakil aldera jotzean *iñor* ageri da. Iparerago ekialdera joz gero Zugarramurdi-Urdazubin *n-* dago eta Baztanen ere bai; egun Baztangoizan dirau, nahiz bertan *i-* era ohikoagoa den, baina ira-

ganean badirudi ibarrean hedatuago zegoela, Elizondoko XIX. mendeko kati-xima lekuko, eta Bidasoaldean ere, Etxalar eta Narbarteko idazki zaharretan *n-* era ageri da (Zelaieta 2008: 179-80). Ezaguna denez, Ipar Euskal Herrian ere nagusi da *nehor*, *nehon* saila; Lapurdin *nehor* & *nihor*; saihetsean, *ihor* & *ihur* era dugu Zuberoan, esate batera Belapeireren lanean; badakigu ahoskatzean *ihūē* bezalakoetan hiru bokalak sudurkari egin ohi direla (FHV, 304). Baxenabarren Garaziko Etxeparek *ehor*, *ehon* saila baliatzen zuen, Zuberoaren aski antzera, baina egun *n-* aldaerak nagusi dira, *nihor* Amikuze eta Bardozen eta *nehor* gainerateko; lekua adierazteko, berriz, *nihun* egiten da; XIX. mendeko katiximetan ere *n-* dago. Pentsa ote daiteke, beraz, beharbada Baxenabarrera berrikuntza ezkerretik —Lapurdi alderdi horretatik— etorria dela?

6.4.2.3.5. Subjektua bigarren pertsona delarik, \**ezan* aditz tripersonaletan *d-* morfema analogiaz iragan da agintezko adizkietara eta berdin gertatu da \**erazan*-etik sortuetan Nafarroako hego alderdian: Leizarraga idazlea herri xehe lapurtarraren erabilerarekin leiala baldin bada, ez dirudi berrikuntza hain zaharra Lapurdin, Beskoitzekoak ez baitakar, baina XVII.aren hasieran Materrek bai: *barka diatçaguçu* (2) eta Etxeberri Ziburukoak eta Gazteluzarrek ere ibiltzen dute, baina Axularrek ez. Hiperzuzenketak ere badira: *çuri escaintçen darotçut, othoi guarda eçaçun* (Zib Etx, 54); *errecibi deçaçu* (Arg, 9). Xurioren 1788ko edizioan *dieçaguçue* (iv), *dietçagutçu* (73) edo *dieçadaçu* (vii) adizkiak ditugu; ezaugarri hau eskuin Baxenabarrera hedatuz joan zela dirudi, ez baita ageri XVIII. mendean erdia arte; Etxeparek ez darabil, ezta ekialdeko kutsu handia duen Lopezen 1782ko itzulpenak ere, baina 1740 inguruan Suarez d’Aulan-ek eginarazi katiximan *barca ditçaguçu* (8) ageri da eta XIX. mendeko katiximetan aldaera zaharrak eta berriak elkarren ondoan ditugu Baxenabarren; Zuberoan Maisterrek agintezkoetan aldaera zaharra darabil 1757an: *eracoux eçadaçu bide chuchena* (359); xedezkoetan darabil *d-*: *cer nahibeita gaiça eman diaçadaçun* (365); ehun urteren buruan bide beretik jokatu zuen Inxauspe gramatikalariak: agintezkoan *izadázü* vs. xedezko *dizadazúla* (1858: 92). Nafarroan XVIIan Beriainek *emandrazaguçu* (1621: 92r) dakar eta Estellerriko Elizaldek *dazaguzu* (5) & *dazquiguzu* (44); eskuin, Baztan eta Aezkoako XIX. mendeko testu berankorrek ere *d-* dakarte. Uharte-Arakilgo eta Araitz ibarreko Intzako testuek *barca dazquiguzu* dakarte XIXan, baina Amaia Apalauzak *d-* gabekoak bildu ditu XXI. mendean Basaburu Handian eta Intzako Azkaraten. XIX. gizaldiko Ultzamako testuan *zaguzu* & *txaguzu* aferesidunak daude, interpretazio zailkoak. Datuok ikusirik uste dugu uler litekeela Lapurdin eta Nafarroa Garaian XVIIan ageri den berrikuntza hau bat eta bera izan daitekeela, ez direla bi berrikuntza paralelo; dirudienez, ondotik Baxenabarrera ere hedatu zen, baina ez dugu interpretazio hau sendotu edo gehixeago findu lezakeen eskualde horretako XVII. mendeko testu jatorrik.

6.4.2.3.6. Lapurdin *-zi* dago *egon* eta *joan* aditzen pluraletan, baina ez da hedatu Baxenabarrera, goioan izanik, gainera, herrialde honetan aldaera pe-

rifrastikoak baliatu direla *joan*-en trinkoen ordainetan. Izatekoz ere, Lapurdi ondoko Baigorriin ageri da, adibide hau lekuko: *orai baguazi Yeusalemeat*, XIX. mendeko Ibarnegarairen katiximak dakar (1999: 40). Aditz trinko irangaitzetan Materrek *-zi* dakar: *dohazi*, *goazi*, *daudezinak* baina baita *zau- dena* ere eta hirugarren pertsona pluralean *-tza*: *dagotçanac* (12); *\*edin*-en ere *-zi* dakar: *gaitecin* ‘gaitezen’, *zaitenzi* ‘zaitetz’ —Harizmendik ere *çaiteci* & *biteci* darabiltza—; gisa berean, Axularrek ere *-zi* du, txandaketan izanik ere: *gaude* & *gaudezi*, *zaude* & *zaudezi* eta *daude* & *daudezi* / *datozi* / *goazi*, *zoazi* & *zohazi*, *doazi* & *dohazi*; baita *goazin* ere. Ordea, Urruñako 1680ko gutunetan *esgaudezela* dago (*Contr.*, 136), Leizarragak legez —*gaude* & *gaudez*, *daude* & *daudez*; *gatoz*, *datoz*; *goaz*, *doaz* & *doaza*— eta Xuriok ere honela dakar: *daudez* (67, 120) & erlatibozko *daudecenac* (182), agintezko *çaude* (182, 331), xedezko *çaudecen* (171) edo *çaudecela* (83) eta *gaudez* (153) nahiz *gaudecen* (182) & *baicaudez* (335) darabiltza eta baita *joan* aditzaren *badoaz* (41) edo *doaceiño* (67) eta xedezko *doacen* (291) eta *çoacen* (171) ere; agintezkoan *çoaz* (493, 494) & *çohaz* (225) eta pluralean *çoazte* (169).

Lapurdiko berrikuntzatik landa, eta hein batez Leizarragaren pare, Beriainek XVII. mende hasieran *daude* eta *bagoas* dakartza eta *\*edin*-en pluralean ere ez dakar *-zi*: *gayteçen* (1626: 173r). Aldiz, geroagoko datuek berrikuntza salatzen dute Nafarroa Garaian: *-zi* ageri da mendebaleko Burundan, uharte gisa, eta erdiguneko Imoztik hasirik eskuin Erroibarraino heltzen da, Basaburu gehiena, Atetz, Odieta, Txulapain, Ultzama, Baztan nahiz Bidasoalde guztia barne, baina berrikuntza hau ez da ageri Sakanako erdialdean edo Arakilen; hori bai, berrikuntza *joan* aditzean errotu da Nafarroan, *egon* aditzean ia ez da ageri *-zi*, non eta ez den muga ondoko herri zenbaitetan: Gamindek Bera, Etxalar, Igantzi edo Lesakan dakartza Bortzirietan (1985) eta Baztango Arizkunen Bozatekotzat eman zizkioten N’Diayeri *gautzi* eta *dautzi* (1970: 167); Edu Zelaietak Bortzirietan, Bidasoaldean, Baztangoizan eta Baztango Basaburuan bildu ditu *-zi* erakoak *egon*-en. Nafarroa Garaian *joan* aditzean baizik ez agertzeak pentsarazten digu agian Nafarroa Garaiko *joan*-eko *-zi* ez dela baitezpada pluralgileko morfematzat ulertu, baizik eta Lapurdin gertatu ez den *noa* → *noaie*, *doa* → *doaie* singular berranalizatu horien analogiaz, *i* epentetiko hori pluralera joan dela *goazi*, *zoazi*, *doazi* emaitzetan, baina ez dugu inolako frogarik ikuspegi honen alde. Singularraren analogiaz gertatu bada ez litzateke hura baino lehenagokoa; testu zaharretan aldaera zaharra bildu da 1576an Ultzaman: *oray ui sorgin goaz* (*Contr.*, 107) eta Beriainek ere egoera zaharra islatzen du: *çoas* (1621: 107v), *nora nay bagoas* (31r) eta atzizkia dutela *goazenean* (25v) eta *doacen* (76v); iraganeko aldaeretan ere bai: *ciacen* & *ciacela* (112v); Ondarrak argitaratu XVIII. mendeko bertso batzuetan bada: *doaci* & *zoaci* (1993). Ikusi batera Nafarroa Garaiko eta Lapurdiko *goazi*, *zoazi* eta *d(o)azi*-k ez dute eten geografikorik, baliteke berrikuntza bera izatea; bakoitza bere eskualdeko fenomeno beregaintzat hartzeak ez dakigu zer egiantzekotasun izanen lukeen; ezin esan, ordea.

6.4.2.3.7. \**ezan* aditzeko oraineko hurranen bilakabidea berankorra da Lapurdin: Xurlo arte ez da *-ke* morfema pleonastikorik sumatzen —*nola igurric deçaqueguque bada salbatuac içatea* (168); badu *badeçaçuque* ‘badezakezu’ (72) ere—, baina ondotik adibideak dakartzate Baratzartek, Duvoisinek edo Zaldubik; Nafarroako testuetan ez da ageri: Beriainek *deçaquegu* (1626: 100r) eta *deçaqueçula* (1621: 57v) dakartza eta Elizalde *dezaquegu* (27); baztandar batek dakar *dezakeguke* 1880ean, Damaso Legaz arizkundarrek, baina ibarreko oraingo datuetan ez da pleonasmu hau ageri (Salaburu & Lakar 2005: 105); Bidasoaldean *a(h)al*-en bidez egiten da orain eta ez dakigu iraganean pleonasmoa ba ote zen, baina ez da zertan pentsatu ez zegoela; gainerateko Bidasoaldean egun ez da ibiltzen (Gaminde 1985). Bestela arras hedaturik daude aldaera pleonastikook Nafarroan: Ergoienean, Arakilen, Araitzen, Leitzan, Larraunen, Imozko herri batzuetan, Basaburuan, Atetzen, Ultzaman, Txulapainen, Odietan, Anuen eta Ezkabarten ezaugarria ageri da; Esteribar eta Erroibarko datuak ez dira erabatekoak.<sup>41</sup>

Sail honetan ikusi ditugun bigarren eta laugarren berrikuntza ez dakigu noizkoak diren, baina nabarmena da gaineratekoak berriak direla eta zazpi-garrena berri-berria.

## 7. Azterketaren emaitza

Zail da arestiko datu guztiak baliatuz erabateko azterketa eta interpretazioa egitea: Leizarraga beskoiztarra XVI. mende bukaerako Lapurdiko euskararen ordezkari hartzen baldin badugu, gogoan izanik gainerateko idazle lapurtarrak XVII. gizaldikoak direla eta euskara berriagoa dakartela, ez dakigu xuxen historiaren aldetik zenbat denborako hiatusa alderatzen ari garen, Leizarraga arras gordetzaille baita. Bestalde, XVII. mendeko idazkiak Lapurdi itsasaldekoak dira eta Leizarraga, berriz, beskoiztarra, baina harena herri horretako euskararekin identifikatzea ez bide da egoki. Izanen da bai bertako euskaratik zerbait haren lanean, baina aitzinsolasean garbi dio *ahalic guehiena guciey adi eraciteari iarreiqui içan gaitzaitza, eta ez choil edocein leku iaquineco lenhoage bereciri*; ohar bedi gainera, Leizarragak itzulpenean laguntzaile zuberotarrak izan zituela (Intxausti 1995: 153). Materrek, berriz, Ziburun egonik ere, euskara Saran ikasi zuela diosku eta idazteko hangoa baliatu zuela.

Lapurdiko itsasaldeko egileen liburuetan XVIIan ageri den ezaugarri bat Leizarragak ez erabiltzeak adierazten ote du tasun hori Leizarraga ondoko

<sup>41</sup> Gamindek ibar horietan bildu ditu (1986: 190): Anueko Egozkuen *dezakeuke & dezakezuke* eta Esteribarko Eugi eta Erroibarko Mezkitzen *dezakeguke & dezakezuke*, baina Esteribarko Usetxin *zakeu & zakezu*. Ibarrek dioenez Eugi eta Mezkitzen ez dira pleonasmook ibiltzen (2000: 161); bestalde, Erroko testu zahar batean *zaquezu* dago (*FLV* 75, 1997: 280) eta Esteribarko Osteritzen ez da ageri *EI*-n.

edo XVII. mendeko berrikuntza dela? Ekuazio guztiak salbuespenik gabe beti honela egiten baldin baditugu, dialektala edo literarioa den ezaugarri bati dimentsio diakronikoa makur emateko arriskua dugu; ongi dakigu Beskoitzeko kalbinista idazle sen handikoa izan zela. Eta Nafarroa Garaian ere antzera gerta lekiguke: XVII. mendearen lehen laurdenean idatzi zuen Beriain izar-beibartarrak Iruñean, baina 1729ko predikuko euskararekin alderatzen dugunean ez dakigu xuxen, erkatzen ari garena mende beteko bilakaera den, ala bi idazkien arteko alde geolektala den. Zantzu guztiek predikua egilea Nafarroa Garaiko hegoaldekoa dela iradokitzen badute ere —1729ko predikuko ezaugarri anitzek Nafarroako ekialdean oihartzuna dute—, ez dakigu prediku hori nongoa den.

Hel diezaiogun orain ezaugarriez egin azterketari: hasteko dibergentzien edo hautuen gaia dugu, teorikoki aise trenkatzen ez dena. Erkidegoen arteko hizkuntza-harremanaren maiztasunari dagokionez, zer adierazten du zenbait hautu desberdin egin izanak eta beste batzuk batera egin izanak? Ez da aise erantzutea, denboran gaindi ezaugarrien hedadura gertatu ahal baita geografian zehar. Irakurritako testuetan ia ez dugu hautu desberdinik aurkitu Lapurdi eta Nafarroa Garaiaren artean. Nafarroak eta Lapurdik zenbait hautu partekatzen dituzte, eta batzuk zaharrak, baina azterketak erakusten du oro har hautuen kokagunea ez dela kasu guztietan gainjartzen, hedadura desberdinak daudela: a) Nafarroa Garaia Ipar Euskal Herriarekin, b) Nafarroa Garaia Ipar eta Hego Euskal Herriarekin, c) Nafarroa Garaia Lapurdirekin eta Hego Euskal Herriko zati batekin; eta beste hautu batean, berriz d) Nafarroa Garaia Baxenabarrerekin eta mendebaleko alderdi batekin, baina Bortziriak Lapurdirekin doazelarik eta Baztan, berriz, Nafarroa eta Baxenabarrerekin... Interpretazio zaileko konbinazio ugari dira.

Erdialdeko Euskal Herriko mintzoez baitihardugu, berrikuntzei dagokionez itxaron zitekeenez emaitzak ez dira erabatekoak, irudi lektalak ez du alderdi bakar bat. Gure datuen arabera anitz berriztatu dute Nafarroa Garaiak eta Lapurdik ondoko mintzoekin batera, hamasei ezaugarritan gertatu zaigu hedadura handiko berrikuntzan partaide izatea, Nafarroak eta Lapurdik erdiguneko Euskal Herriarekin batera berriztatu izana. Ipar Euskal Herriarekin ere kasik beste hainbestetan berriztatu dute Nafarroak eta Lapurdik, hamalau tasunetan. Nafarroa Garaia eta Lapurdi hizkuntzaz hala erdialdeko Euskal Herriari nola Ipar Euskal Herriari, bi alderdiei loturik ibili dira historikoki.

Aldiz, saioko gure lehen galderari dagokionez, bakanago berriztatu du Nafarroa Garaiak Lapurdirekin, zazpi ezaugarritan, eta argi dago Nafarroa Garaiko alderdi bat dela —eta ez guztia— Lapurdirekin berrikuntza egin duena, ipar-ekialdea, Bidasoaldea eta Baztan, hain zuzen ere; Edu Zelaietaren 2008ko ikerlaneko ikuspegiaren balioa bermatzen du honek; inoiz berrikuntzok Basaburu Txikira edo Ultzama alderdira ere heldu dira, baina aldi bakan, egia esan; ezaugarriak Lapurditik abiatuak izatera, eta zinez hala dirudi, berrikuntzen garaian Iruñeko euskarak hedatzeko indar ahula zukeela adieraziko luke honek eta ondorioz, ez luke arras garai zaharrekoa izan

beharko. Hau esatean ez dugu adierazi nahi Bortziriek erdialdeko euskararekin edo Gipuzkoakoarekin loturarik ez dutenik, edo Baztanek Belate-Ultzama bitarte edo Esteribarren bidez Nafarroa Garaiarekin loturarik izan ez duenik, edo Oronoz-Mugairi Bertizarana edo Malerrekara begira egon ez denik.

Nolanahi ere den, emaitza honetan kopurua garrantzizkoa bada ere, ezaugarrien izaeraren sendotasun estruktural-gramatikala eta bereziki beren kronologia dira aintzat hartu beharrak; Lapurdik eta Nafarroa Garaiko ipar-ekialdeak partekatzen dituzten ezaugarri guztiek ez dute egiturazko sendotasun bera eta bestalde, tasun gehienek itxura berria dute. Interesgarri da Lapurdik eta ipar-ekialdeko Nafarroak partekatzen dituzten berrikuntzak, Nafarroako erdigunean arras hedatu diren eta nafarrera definitzen duten ezaugarriekin diakronikoki alderatzea, baina arlo honetan geografia-hedadurak ez luke gauza handirik argituko, bi eskualdeetan berrikuntzak aski hedatu baitira; ezin argudia daiteke, beraz, hedadura desberdintasunagatik ezaugarri sail bat bestea baino zaharragoa dela, eta badakigu sail bakoitzaren barreneko berrikuntzak ere, guztiak ez direla zein bere eskualdean leku berberetara hedatu, horregatik, erantzun konplexua dute 6.1 azpiataleko b-n eta c-n egin ditugun galderak; diakroniaren baitako arrazoi berezituak beharko lukete gaia argitu. Ez da aise erabakitzea sail batekoak ala besteak diren zaharrago, bi sailtako berrikuntza gehienek aski berriak dirudite, eta bestalde, ezin pentsatuko dugu sail bakoitzeko berrikuntza guztiak garaikide direnik ere; eta euskalkien iraganaz dakiguna hain guti izanik, uka ote daiteke sail bateko eta beste berrikuntzak aldi beretsuan garatu izanaren aukera?

Lapurdi eta Nafarroa Garaia batera ez doazen ezaugarriak aurkeztu dira § 6.4.1-n, baina argi ibili behar dugu: Nafarroa Garaia erdiguneko Euskal Herriarekin batera doan lau ezaugarriren arabera (§ 6.4.1.5), ezagun du bi Nafarroa Garai ditugula, erdigunetik ezkerreara begira dagoena —berriztatu duena— eta bestetik erdigunetik eskuinera so dagoena, Ipar Euskal Herriarekin batera iraganeko ezaugarriak gorde dituen. Kasu hauetan guztietan, erdiguneko berrikuntzak ez dira Baztan, Bortziriak eta Nafarroa ekialdeko beste mintzo batzuetara iritsi. Ezaugarriok, gainera, berriak dira, Gipuzkoa, Tolosa eta Iruñea bitarteko hartu-emanari dagozkio: Arturo Campionek zioen bezala, nafarrerari bere ezaugarriak leundu dizkion gertakaria da; esate batera, ekialdeko *genituen* zaharretik mendebaleko *ginduzen* berrira aldaketa egon behar izan du Nafarroako erdigune eta mendebaleko ibarretan; gaiaren funtsa Apalauzaren oraintsuko azterketa sendoak dakar (2012). Mendebalera ezin ahantzi Ameskoa, Lana, Burunda alderdi horretara Euskal Herriko mendebaleko hizkuntza-ezaugarri anitz heldu zirela; honek ere eragin du Nafarroa Garaiko euskararen halako kolore aniztasuna gerta dadin.

Bada errealitate gehiago ere: Nafarroa Garaiak Baxenabarrerekin batera egin berrikuntzak aipa daitezke eta hauetan Lapurdi ez da partaide, erdialderago begira dago. Eta bada dimentsio geografiko handiagoko bigarren errealitate bat: Lapurdik Ipar Euskal Herri orokorrarekin berriztatu duen zazpi ezaugarri aurkeztu ditugu, eta hauek Lapurdi eta Nafarroa Garaia arteko



lotura eteten dute. Beste kasu batzuetan ere bereiz gelditu dira Nafarroa Garaia eta Lapurdi: bereziki Lapurdik bere gisa berriztatu duen zortzi tasunetan eta Nafarroa Garaiko euskara bere aldetik berriztatu den zazpi tasunetan, baina oro har, bi ezaugarri sorta hauek ez dira antzinakoak, eta beraz, euskal egoera dialektal zaharrago hura ez dago hain urrun. Nafarroa Garaiko hegoaldean ere zortzi berrikuntza berezko sortu dira, baina horiek Lapurditik urrun daude, herrialde honekiko hartu-eman zuzenik gabe eta ez dute nafarreraren definitzen, haren hegoaldeko alderdia baizik. Oro har Nafarroa Garaiko hegoaldeko ezaugarri berritzaile hauek ere berankorrek direla esan daiteke, Estellerritik Aezkoaraino doazen ezaugarri horiek funtsatzen duten hego-nafarrera azpieuskalkiak ez dirudi hain errealitate zaharra, ezker-eskuin doazen isoglosok ez dira zaharrak.

Eta bestalde, ohar gaitezen Lapurdik eta Nafarroa Garaiak zeinek bere aldetik dituzten berrikuntza eskusibook ere ez dutela kasu guztietan elkar baztertzen, ez doazela beti elkarren aurka, aldi batzuetan berrikuntza ez baita Nafarroa Garai guztikoa, eskualde batzuetakoa baizik. Nafarroa Garaiko berezko berrikuntzek errealitate garden bat erakusten dute: zazpi ezaugarri horietarik hiruzpalautan, Nafarroa Garai gehieneko ezaugarri berria ez da Bortzirietara edo Baztana iritsi: beste dinamika lektal batean iraun dute hauek, beste grabitazio indar linguistiko baten barrenean, Lapurditik hurbil, eta dirudienez luzaz, baita Elizaren kudeaketaren bidez ere. Nafarreraren berrikuntza batzuk bildurik ere, Baztan-Bidasoaldeko euskaldunek ez dituzte nafarreraren berrikuntza guztiak bildu, batzuk bai eta beste batzuk ez. Hartara, mailaz mailako irakurketa behar da errealitate konplexu hau aztertzeko, baina auziaren funtsa ezaugarri hauen guztien alderdi diakronikoan datza. Nabarmena da hautuek ez dituztela Nafarroa Garaia eta Lapurdi bereizten: erakusleetan, izenordain indartuetan, morfologiako kasu atzizki batzuetan, *\*iron* zaharrea edo aditz sistemako beste ezaugarri batzuetan ez dago batetik bestera alde handirik. Berrikuntzak ere elkarrekin franko egin dituzte, hamalau gure datuetan, eta orokorragoko hamalau hauezaz gain, eskusiboki beste zazpi ondu dituzte Baztan-Bidasoalde horretan; halaz ere, oro har berrikuntzok itxura berria dute.

Ez dakigu iragan zaharrea gauzak nola ziren: nolakoa zen Nafarroa Garaiko, Baxenabarreko eta Lapurdiko euskara Behe Erdi Aroan? Ez dirudi hizkuntza-egoera hura hain urrun dagoenik ere, eta uste dugu ez dela baztertzen ahal iraganean Lapurdi eta Nafarroa Garaia hizkuntzaz aski hurbil izateko aukera, baina garai dialektaleko beren berezko berrikuntza zahar haiek aurkitu arte hau ez litzateke hipotesi bat baizik. Badakigu gerora anitz ezaugarri berri erdiguneko Euskal Herriatik Nafarroa Garaia mendebalera etorri direla, baina ez Nafarroako erdialde guztira ezta ekialdera ere. Ekialdean badakigu Zuberoak eta Erronkarik beren artean hartu-eman hertsia izan zutela; beharbada hauek dira Euskara Batu Zaharretik bereizten lehenak. Ekialde haren ondoan, Baxenabarrek Zuberoarekin edo ekialdearekin hainbat berrikuntza egin duela ere badakigu, Lapurditik bereiz, eta inoiz baita bere-berezko berrikuntzak sorturik ere. Kasu bakan batzuetan Baxenabarrek eta Na-



farroa Garaiak berrikuntza bera egin dute, Zuberoarekin batera, Lapurditik bereiz. Xehekiago aztertu beharko dira honek guztiak hartzen duen puzzle antza, saio honetako hizkuntza-ezaugarri batzuk eta baita hemen agertu ez diren beste batzuk ere. Ez da ezina iraganean Lapurdi eta Nafarroa Garaia hizkuntzaz aski batera ibili izana, orain baino hurbilago bederen bai, baina Baxenabarreko euskararen iraganeko berri ere beharko luke azterketa edo puzzle honek.

Baliatu ditugun hainbat eta hainbat datu post-dialektalak dira, dialektotoak lehen garaian —garai dialektalean— zatitu ondoko aldaketak: berrikuntza post-dialektal hauen hedadurak berankorra behar du izan, eta inoiz gardenago egon zen egitura, zatiketa edo eskema bat estaltzen digu, baina egoera zaharrago hark ez du horren urrun egon behar ere; ez dirudi. Esperimentu honen bitartez aukera bat zabalik utzi nahi izan dugu: etorkizuneko ikerketa gehiagok eta hain beharrak ditugun diakroniaren erakutsiek saio honetan aurkeztu den ikuspegiaren aldeko ala aurkako datu gehiago ekarriko dute; itxaron dezagun, halaz ere, Hocken “next to impossible to classify dialects in terms of their genetic relationship” delako adierazpen hori ez egia bilakatzea.

## 8. Bibliografia

- Aikhenvald, A.Y., 2001, “Areal diffusion, genetic inheritance, and problems of sub-grouping: a North Arawak case study”, in Aikhenvald & Dixon (arg.), 167-194.
- & R.M.W. Dixon (arg.), 2001, *Areal diffusion and genetic inheritance. Problems in Comparative Linguistics*, Oxford University Press, New York.
- & —, 2001, “Introduction”, in Aikhenvald & Dixon (arg.), 1-26.
- Aldai, G., 2012, “Sobre el origen de Martín Portal, autor de la poesía premiada en Pamplona en 1610”, *FLV* 114, 93-117.
- Apalauza, A., 2012, *Nafarroako ipar-mendebaleko hizkeren egitura geolinguistikoa*, Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia, Iruñea-Bilbo.
- Ariztimuño, B., 2013, “Finite verbal morphology”, in M. Martínez-Areta (arg.), *Basque and Proto-Basque*, Peter Lang, Frankfurt am Main, 359-427.
- Babel, M., A. Garrett, M.J. Houser & M. Toosarvandani, 2013, “Descent and diffusion in language diversification: a study of Western Numic dialectology”, *International Journal of American Linguistics*-en agertzeko.
- Bellwood, P., 2001, “Archaeology and the historical determinants of punctuation in language-family origins”, in Aikhenvald & Dixon (arg.), 27-43.
- Birnbaum, H. & J. Puhvel 1966 (arg.), *Ancient Indo-European dialects*, University of California Press, Berkeley & Los Angeles.
- Black, P., 2004, “The failure of the evidence of shared innovations in Cape York peninsula”, in Bowerman & Koch (arg.), 241-267.
- Blažek, V., 2007, “From August Schleicher to Sergei Starostin. On the development of the tree-diagram models of the Indo-European languages”, *The Journal of Indo-European Studies* 35: 1-2, 82-109.
- Bowerman, C., 2004, “Diagnostic similarities and differences between Nyulnyulan and neighbouring languages”, in Bowerman & Koch (arg.), 269-290.

- & H. Koch (arg.), 2004, *Australian languages. Classification and the comparative method*, Benjamins, Amsterdam-Philadelphia.
- & —, 2004, “Introduction: subgrouping methodology in historical linguistics”, in Bowerman & Koch (arg.), 1-15.
- Camino, I., 2003, *Hego-nafarrera*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- Campbell, L., 2011, J. Kari & B.A. Potter, *The Dene-yeniseian connection* (2010) lanaren iruzkina, *IJAL* 77/3, 445-452.
- Colón, G., 2008, “Algunos aspectos del catalán medieval”, in Elvira *et alii* (arg.), 63-72.
- Cowgill, W.C., 1966, “Ancient Greek dialectology in the light of Mycenaean”, in Birnbaum & Puhvel (arg.), 77-95.
- Chambon, J.-P., 2007, “Remarques sur la grammaire comparée-reconstruction en linguistique romane (situation, perspectives)”, *Mémoires de la Société de linguistique de Paris*, 15, 57-72.
- & Y. Greub, 2002, “Note sur l’âge du (proto)gascon”, *Revue de Linguistique Romane* 66, 473-495.
- Dench, A., 2001, “Descent and diffusion: the complexity of Pilbara situation”, in Aikhenvald & Dixon (arg.), 105-133.
- Dimmendaal, G.J., 2001, “Areal diffusion versus genetic inheritance: an African perspective”, in Aikhenvald & Dixon (arg.), 358-392.
- Duhau, H., 1993, *Hasian hasi. Beskoitzeko euskara*, Alinea, Donibane-Lohizune.
- Dyen, I., 1978, “Subgrouping and reconstruction”, in M.A. Jazayeri, E.C. Polomé & W. Winter (arg.), *Linguistic and literary studies, in honor of Archibald A. Hill*, Mouton publishers, The Hague, Paris, New York, 33-52.
- Echenique, M.T., 2008, “Algunas consideraciones sobre las lenguas hispánicas en la actualidad”, in Elvira *et alii* (arg.), 521-530.
- & J.P. Sánchez Méndez, 2005, *Las lenguas de un reino. Historia lingüística hispánica*, Gredos, Madrid.
- Elvira, J., I. Fernández-Ordóñez, J. García-González & A. Serradilla (arg.), 2008, *Lenguas, reinos y dialectos en la Edad Media Ibérica. La construcción de la identidad. Homenaje a Juan Ramón Lodares*, Iberoamericana-Vervuert, Madrid-Frankfurt am Main.
- Enguita, J.M., 2008, “Sobre el aragonés medieval”, in Elvira *et alii* (arg.), 83-105.
- Erdozia, J.L., 2001, *Sakana erdialdeko euskara*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- García Martín, J.M., 2008, “Relaciones entre los estados peninsulares y significado de las lenguas en la Baja Edad Media”, in Elvira *et alii* (arg.), 31-62.
- Garrett, A., 1999, “A new model of Indo-European subgrouping and dispersal”, in S.S. Chang, L. Liaw, & J. Ruppenhofer (arg.), *Proceedings of the Twenty-Fifth Annual Meeting of the Berkeley Linguistics Society, General session and Parasession on loan word phenomena*, Berkeley Linguistics Society, Berkeley, 146-156.
- , 2006, “Convergence in the formation of Indo-European subgroups: phylogeny and chronology”, in P. Forster & C. Renfrew (arg.), *Phylogenetic methods and the prehistory of languages*, McDonald Institute for Archaeological Research, Cambridge, 138-151.
- Gorrochategui, J., 1991, “Descripción y posición lingüística del celtibérico”, in J.A. Lakarra (arg.), *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum*, ASJUren Gehigarriak 14, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 3-31.
- , 2007-08, “Lenguas y genes: aplicaciones a la prehistoria de la lengua vasca”, *Veleia* 24-25, 1185-1201.

- , 2012, “Las armas de la filología: la cuestión del Vasco Antiguo y los hallazgos de Iruña-Veleia”, in J.A. Lakarra, J. Gorrochategui & B. Urgell (arg.), *Koldo Mitxelena katedraren II. biltzarra*, UPV/EHU, Gasteiz, 41-70.
- Haig, G., 2001, “Linguistic diffusion in present-day East Anatolia: from top to bottom”, in Aikhenvald & Dixon (arg.), 195-224.
- Hall, R.A., 1946, “Bartoli’s ‘Neolinguistica’”, *Language* 22, 273-283.
- Hamp, E.P., 1966, “The position of Albanian”, in Birnbaum & Puhvel (arg.), 97-121.
- Heine, B. & T. Kuteva, 2001, “Convergence and divergence in the development of African languages”, in Aikhenvald & Dixon (arg.), 393-411.
- Hock, H.H., 1991 [1986], *Principles of historical linguistics*, Mouton de Gruyter, Berlin-New York.
- Hoenigswald, H.M., 1950, “The principal step in comparative grammar”, *Language* 26, 357-364.
- , 1966, “Criteria for the subgrouping of languages”, in Birnbaum & Puhvel (arg.), 1-12.
- , 1990, “Language families and subgroupings, tree model and wave theory, and reconstruction of protolanguages”, in E.C. Polomé (arg.), *Research guide on language change*, Mouton de Gruyter, Berlin-New York, 441-454.
- , 1992, “Comparative method, internal reconstruction, typology”, in Polomé & Winter (arg.), 23-34.
- Holmer, N.M., 1964, *El idioma vasco hablado*, *ASJU*ren Gehigarriak 5, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- Hualde, J.I. & Tx. Sagarzazu, 1991, “Acentos del Bidasoa: Hondarribia”, *ASJU* 25:1, 139-152.
- Ibarra, O., 1995, *Ultzamako hizkera. Inguruko euskalkiekiko harremanak*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- , 2000, *Erroibarko eta Esteribarko hizkera*, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Iruñea.
- Intxausti, J., 1995, “Leizarraga eta Leizarragatarrak (1563-1571), erreforma-kontra-reformetako ilun-argitan”, *RIEV* 40, 119-160.
- Iñigo, P., P. Salaberri & J.J. Zubiri, 1995, “-ki aditz-atzizkiaren gainean”, *FLV* 69, 243-295.
- Janhunen, 2009, “Proto-Uralic: what, where, and when?”, in J. Ylikoski (arg.), *The Quasiquincentennial of the Finno-Ugrian Society*, Société Finno-Ougrienne, Helsinki, 57-78.
- Koch, H., 2004, “A methodological history of Australian linguistic classification”, in Bowerman & Koch (arg.), 17-60.
- Lakarra, J.A., 1981, “Barrutiaren edizio kritiko baterako”, *ASJU* 15, 121-156.
- , 2011, “Gogoetak euskal dialektologia diakronikoaz: Euskara Batu Zaharra berre-raiki beharraz eta haren banaketaren ikerketaz”, in I. Epelde (arg.), *Euskal dialektologia: lehena eta oraina*, UPV/EHU, Bilbo, 155-241.
- Lehmann, W.P., 1990, “Syntactic change”, in Polomé (arg.), 365-388.
- , 1992, “Comparative linguistics”, in Polomé & Winter (arg.), 3-21.
- Markey, T.L., 1976, *Germanic dialect grouping and the position of Ingvaemonic*, Institut für Sprachwissenschaft der Universität Innsbruck, Innsbruck.
- Martínez-Areta, M., 2013, “Demonstratives and personal pronouns”, in M. Martínez-Areta (arg.), *Basque and Proto-Basque*, Peter Lang, Frankfurt am Main, 283-321.

- Melis, L., 1989, "La notion de dialecte supralocal: essai de définition dialectométrique", *Orbis* 33: 1-2, 70-74.
- Miceli, L., 2004, "Pama-Nyungan as a genetic entity", in Bowerman & Koch (arg.), 61-68.
- Mithun, M., 1992, "Typology and deep genetic relations in North America", in Polomé & Winter (arg.), 91-108.
- Mitxelena, K., 1972, "A note on Old Labourdin accentuation", *ASJU* 6, 110-20.
- , 1981, "Lengua común y dialectos vascos", *ASJU* 15, 289-313.
- Mugica, S., 1914, "El obispado de Bayona con relación á los pueblos de Guipúzcoa adscritos a dicha diócesis", *RIEV* 8, 185-229.
- Padilla, M., 2013, "Euskararen laguntzaile ahantziak: \*iron aditzaren historia", *FLV* 116, 131-169.
- Petit, D., 2004, "Les langues baltiques et la question balto-slave", *Histoire Épistémologie Langage*, 26/II, 7-41.
- , 2007, "Archaïsme et innovation dans les langues indo-européennes", *Mémoires de la Société de linguistique de Paris* 15, 13-55.
- Polomé, E.C., 1985, "How archaic is Old Indic?", in U. Pieper & G. Stickel (arg.), *Studia linguistica diachronica et synchronica. Werner Winter sexagenario*, Mouton de Gruyter, Berlin-New York-Amsterdam, 671-683.
- , 1990 (arg.), *Research guide on language change*, Mouton de Gruyter, Berlin-New York.
- & W. Winter 1992, (arg.), *Reconstructing languages and cultures*, Mouton de Gruyter, Berlin-New York.
- Pulgram, E., 1953, "Family tree, wave theory, and dialectology", *Orbis* 2, 67-72.
- Reguero, U., 2012, "Erdi Aroko euskara: dialektalizazioaren hastapenatarantz", UPV/EHUko master tesi argitaragabea.
- Rodríguez Adrados, F., 1998, *La dialectología griega*, Ediciones clásicas, Madrid.
- , 1999, *Historia de la lengua griega. De los orígenes a nuestros días*, Gredos, Madrid.
- Sagarzazu, Tx., 2005, *Hondarribiko eta Irungo euskara*, Alberdania, Irun.
- Salaberri Zaratiegi, P., 2004, "Artatzako euskal testua. Transkripzioa eta hizkuntza azterketa", *FLV* 97, 537-554.
- Salaburu, P. & M. Lakar (lag.), 2005, *Baztango mintzoa: gramatika eta hiztegia*, Nafarroako Gobernua-Euskaltzaindia, Iruñea-Bilbo.
- Sarasola, I., 1983, "Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos", *ASJU* 17, 69-212.
- Saroihandi, J., 1925, "El vascuence en el Collège de France", *RIEV* 16, 524-8.
- Schmidt, K.H., 1992, "Contributions from new data to the reconstruction of the proto-language", in Polomé & Winter (arg.), 35-62.
- Sjoberg, A.F., 1992, "The impact of Dravidian on Indo-Aryan: an overview", in Polomé & Winter (arg.), 507-529.
- Sturtevant, E.H., 1962, "The Indo-Hittite hypothesis", *Language* 38, 105-110.
- Ulibarri, K., 2011, "1619. urtean Sevillan argitaraturiko bertsoak: *Cancion en lengua vascongada o vizcayna que contiene la sustancia deste sermon*", *ASJU* 45:1, 361-385.
- Uranzu, L. de, 1955, *Lo que el río vio: biografía del río Bidasoa*, Valverde, Donostia.

- Uribe-Etxebarria, O., 2010-11, “Debagoieneko testuen azterketa diakronikoa: mendebaleko euskararen dialektologiari ekarpena”, doktoretza tesiaren egitasmoa, UPV/EHU, Gasteiz.
- Veiga, K., M. Vilasó & M. González, 2006, “Dialectología e xeografía humana”, in R. Álvarez, F. Dubert & X. Sousa (arg.), *Lingua e territorio*, Consello da cultura galega, Santiago de Compostela, 309-355.
- Villar, F., 1996 [1991], *Los indoeuropeos y los orígenes de Europa*, Gredos, Madril.
- Watkins, C., 1966, “Italo-Celtic revisited”, in Birnbaum & Puhvel (arg.), 29-50.
- , 2001, “An Indo-European linguistic area and its characteristics: ancient Anatolia. Areal diffusion as a challenge to the comparative method?”, in Aikhenvald & Dixon (arg.), 44-63.
- Winter, W., 1990, “The scope of historical and comparative linguistics”, in Polomé (arg.), 11-21.
- Zelaieta, E., 2005, “Bortzerrietako euskara, herriz herri (ez)berdintasunetan barrena (II)”, *FLV* 99, 287-306.
- , 2008, *Baztan-Bidasoako hizkeren azterketa dialektologikoa*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Zuazo, K., 2012, *Arabako euskara*, Elkar, Donostia.

## Aurkibidea / Índice / Table of contents

Hitzaurrea / Prólogo / Preface . . . . .	XVII
--	------

### TXOSTENAK ETA KOMUNIKAZIOAK / PONENCIAS Y COMUNICACIONES / INVITED PAPERS AND COMMUNICATIONS

El topónimo <i>Treviño</i> y la prevalencia de errores de historiografía lingüística <i>The place name Treviño and the prevalence of errors in linguistic historiography</i> JOSEBA ABAITUA ODRIUZOLA (Universidad de Deusto) & MIKEL UNZUETA PORTILLA (Diputación Foral de Bizkaia) . . . . .	3
Kolokazioak: <i>OEH</i> eta egungo erabilera <i>Collocations: The OEH and contemporary use</i> XABIER ALTZIBAR & JUAN CARLOS ODRIUZOLA (UPV/EHU) . . . . .	23
Euskal aditz jokatuaren osaeraz eta jatorriaz zenbait ohar <i>Some observations on the origin and composition of conjugated verbs in Basque</i> BORJA ARIZTIMUÑO LOPEZ (UPV/EHU) . . . . .	41
Txistukarien neutralizazioa mendebaldeko euskaran XVI-XVIII. mendeen bitartean (lehen hurbilketa) <i>Sibilant neutralisation in Western Basque between the 16th and 18th centuries (an initial approach)</i> UDANE ATUTXA (UPV/EHU) . . . . .	61
Euskalkien historiaz: Lapurdi eta Nafarroa Garaia <i>On the history of Basque dialects: Labourdin and High Navarrese</i> IÑAKI CAMINO (UPV/EHU) . . . . .	77

Aparición y evolución de esquemas de valencia no canónicos y ergatividad <i>The appearance and evolution of non-canonical valency pattern systems and ergativity</i> DENIS CREISSELS (Universidad de Lyon II) . . . . .	141
Euskal azentueren historiaz <i>On the history of the Basque accentual systems</i> ANDER EGURTZEGI & GORKA ELORDIETA (UPV/EHU) . . . . .	163
Basque spatial cases and the ergative-absolutive syncretism RICARDO ETXEPARE (IKER-UMR5478, CNRS) . . . . .	187
Las reglas del juego. Notas para una noción de ley morfológica <i>The rules of the game: Notes for a notion of morphological law</i> CARLOS GARCÍA CASTILLERO (UPV/EHU) . . . . .	213
Instrumentalaz gogoratzu, instrumentuaz haratago. Kasuaren izaera tipologian eta euskararen bilakabidea <i>Recalling the instrumental, beyond the instrument: The nature of the case in typology and the evolution of Basque</i> IVÁN IGARTUA (UPV/EHU) & EKAITZ SANTAZILIA (UPNA/NUP & UPV/EHU) . . . . .	227
Hasperenaren galera Iparraldeko euskarari <i>The loss of aspiration in Northern Basque</i> OROITZ JAUREGI (UPV/EHU) & IRANTZU EPELDE (IKER-UMR5478) . . . . .	245
Euskarazko egitura erresultatiboaren diakronia <i>The diachrony of Basque resultative constructions</i> DOROTA KRAJEWSKA (UPV/EHU) . . . . .	263
Euskararen historiaurrearen berreraiketa sakonagorako: forma kanonikoa, tipologia holistikoa, kronologia eta gramatikalizazioa <i>Towards a more profound reconstruction of prehistoric Basque: Canonical form, holistic typology, chronology and grammaticalisation</i> JOSEBA A. LAKARRA (UPV/EHU) . . . . .	275
<i>Le Dauphin</i> itsasontziko euskarazko gutunak (1757): lehen hurbilketa <i>The letters in Basque from the ship Le Dauphin (1757): An initial approach</i> XABIER LAMIKIZ (UPV/EHU), MANUEL PADILLA (UPV/EHU & IKER-UMR 5478) & XARLES VIDEGAIN (UPPA & IKER-UMR5478) . . . . .	325
Euskaldunen jatorria eta berezitasun genetikoa eztabaidan <i>The debate on Basque origins and genetic singularity</i> SAIOA LÓPEZ, NESKUTS IZAGIRRE & SANTOS ALONSO (UPV/EHU) . . . . .	343
Ergatibitate hautsiaz. Zergatik ote da orainaldia iraganaldi/irrealisa baino ergatiboagoa? <i>Split ergativity: Why is the present more ergative than the past/irrealis?</i> MIKEL MARTÍNEZ ARETA (UPV/EHU) . . . . .	353



Ohar bat [partizipioa + joan/eraman, eroan] perifrasiaren diakroniari buruz <i>A note on the diachrony of the periphrasis [participle + joan 'go' / eraman, eroan 'bring']</i> CÉLINE MOUNOLE (UPV/EHU) . . . . .	369
(Des)genitibizazioaren historiaz gehiago: genitibozko subjektu iragangaitzak (ISGEN) ekialdeko euskaran <i>More on the history of (de)genitivization: Intransitive subjects genitive (ISGEN) in Eastern Basque</i> MANUEL PADILLA MOYANO (UPV/EHU & IKER-UMR5478) . . . . .	383
Basque in the Becerro. Basque names and language in the <i>Becerro Galicano</i> of San Millán DAVID PETERSON (UPV/EHU) . . . . .	405
Euskararen dialektalizazioaren hastapenatarantz: konbergentzia eta dibergentzia prozesuak Erdi Aroan <i>Towards the beginnings of Basque dialectization: The process of convergence and divergence in the Middle Ages</i> URTZI REGUERO UGARTE (UPV/EHU) . . . . .	431
Uribeko Corpus Onomastikoa (UCO) <i>The Onomastic Corpus of Uribe (UCO)</i> ANDER ROS CUBAS (Barakaldoko HEO) . . . . .	445
<i>Aspectos del desarrollo de la lingüística histórica en los siglos XIX y XX</i> <i>Aspects of the development of historical linguistics in the 19th and 20th centuries</i> PIERRE SWIGGERS (Universidad de Lovaina) . . . . .	467
Testuak kokatuz dialektologia historikoan: egiteetatik metodologiara <i>Situating texts in historical dialectology: From acts to methodology</i> KOLDO ULIBARRI ORUETA (UPV/EHU) . . . . .	511
Euskal Filologia. Zer (ez) dakigu 25 urte beranduago? <i>Basque Philology: What do(n't) we know twenty-five years later on?</i> BLANCA URGELL (UPV/EHU) . . . . .	533
Vasco y gascón en el <i>Thesaurus Polyglottus</i> (1603) de Megiser <i>Basque and Gascon in the Thesaurus Polyglottus (1603) by Megiser</i> JOSU M. ZULAICA HERNÁNDEZ (Eusko Ikaskuntza) . . . . .	571
Oharrak Nerbioi ibarreko euskara zaharraz eta <i>Viva Jesús</i> testuaren jatorriaz <i>Notes on the old Basque of the Nervion Estuary and the origins of the Viva Jesús text</i> ENEKO ZULOAGA (UPV/EHU) . . . . .	593

KOLDO MITXELENAREN OBRA 25 URTE GEROAGO /  
 LA OBRA DE LUIS MICHELENA 25 AÑOS DESPUÉS /  
 KOLDO MITXELENA'S WORK 25 YEARS LATER

<i>Sobre Lenguas y Protolenguas</i> <i>About Lenguas y Protolenguas</i>	
JOAQUÍN GORROCHATEGUI (UPV/EHU) . . . . .	613
<i>La lingüística ibérica antes y después de Luis Michelena</i> <i>Iberian linguistics before and after Luis Michelena</i>	
JAVIER DE HOZ (Universidad Complutense) . . . . .	643
<i>Apellidos Vascos eta Mitxelenaren onomastika lanak</i> <i>Apellidos Vascos and Mitxelena's onomastic work</i>	
PATXI SALABERRI ZARATIEGI (UPNA/NUP & Euskaltzaindia) . . . . .	673
<i>Fonética histórica vasca, hitz eraketaren morfonologia eta neutralizazio erraldoiak</i> <i>Fonética histórica vasca, word formation morphonology and massive neutralization</i>	
MIREN LOURDES OÑEDERRA (UPV/EHU) . . . . .	699
<i>Textos Arcaicos Vascos 50 urte geroago</i> <i>Textos Arcaicos Vascos fifty years later</i>	
GIDOR BILBAO (UPV/EHU) . . . . .	717
<i>Euskal literaturaren historiaz Koldo Mitxelenak finkatu zuen eredu historiografikoa</i> <i>The historiographic model established by Koldo Mitxelena on a history of Basque literature</i>	
JON CASENAVE (Université de Bordeaux 3 & IKER-UMR5478) . . . . .	729
<i>Koldo Mitxelena, crítico de cine en euskera durante el franquismo</i> <i>Koldo Mitxelena, film critic in Basque language during the Franco years</i>	
JOXEAN FERNÁNDEZ (Euskadiko Filmategia & Université de Nantes) . . . . .	743
<i>English Abstracts of the Articles</i> . . . . .	755